



lazko feria. | TXOMIN MADINA

Biharko azokako postuak Seminariotik Ariznoa eta Monzon plazetara lekuz aldatu dituzte | 19

Laugarren aldiz, badator Kantari bailarako bazterrak alaitzera | 31

4. edizioa  
**Kantari**

Aretxabaletaren etorkizuna diseinatzeko, 'Jar Gaitezen' | 22



Bergarak eta Aloña Mendik jokatuko dute lehen jardunaldia etxean | 28



**Prestakuntza praktikoa jasotzen dabilta egunotan esperientziadun hainbat langabe. Argazkian, Aretxabaletan, Iñigo Untzetarekin, taldeko buruarekin.**

JULEN IRIONDO

# Mantentze-obrak eginez, lanerako gertatzen dabilta hainbat langabe

*Gazteak prest lanerako Debagoiengan delako programaren eskutik, enplegura zuzendutako prestakuntza jasotzen dabilta gazte langabe batzuk; bailara osoan udalek eskatutako zenbait mantentze-lan egiten hasi dira. Egunotan, Aretxabaletan izan dira. | 2*

**"Zirraragarria izan zen", diote Diadan izan ziren oñatiar batzuek**

Giza katean parte hartu zuten hainbat oñatiarrek | 17



**"Gure kontzientzia eraldatzean dago gizateriaren etorkizuna"**

**Enrique Martinez Lozano**  
Psikoterapeuta eta soziologoa | 8

**Bihar Goikobalura erromerian igotzeko dei egin dute**

Aspaldiko ohiturei eutsi gura diete Arrasaten | 11



**iKER**

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43  
OÑATI: San Lorenzo 1 / 943 53 35 48



# Ikasiz eta eginez ari dira bailarako hainbat gazte lanerako prestatzen

- ▶ Hamar lagun dabilta Mankomunitatearen sei hilabeteko programan
- ▶ Eraikuntzako mantentze-lanen alorreko ezagupenetan sakondu dute
- ▶ Debagoieneko herrietako udalek eskatutako lanak egiten ari dira orain



Elektrizitate lanetan. | JULEN IRIONDO

JULEN IRIONDO | ARETXABAETA

Aretxabaletako zaharren egoitza izan zen eraikina obretan egon da egun hauetan. Ez dira, baina, ohiko langileak izan han behar-rean jardun dutenak. Mankomunitatearen Enplegu Planaren barruan, 20 eta 30 urte arteko langabeak ibili dira, mailua, pala edota brotxa eskuan, *Gazteak prest lanerako Debagoiengan* izeneko prestakuntza programari esker.

Programan parte hartzen ari den eta, ondorioz, Aretxabaletan lanean ibili den gazteetako bat da Slamun Fadli Ami: "Lanbideren bitartez enteratu nintzen; beti ikusten ditut Lanbiden lan eta ikastaro eskaintzak, intereseko- ren bat aurkitzen badut ere. Une

honetan ez dut lanik, eta lanik ezean ikasteko aprobetxatu behar", dio Slamuk.

Izan ere, beharrerako hobeto prestatzeko helburuarekin, *Gazteak prest lanerako Debagoiengan* programak bi atal ditu: bat tai-

lerrean egin dutena, eraikuntza edo mantentze-lanei dagozkien espezialitate desberdinetako ezagupenetan sakontzera bideratua; programako bigarren zatian benetako lanak egiten dihardute gazteek, bailarako udalek proposa-

tutako lanak, Debagoieneko herrietan. Bi taldetan banatuta ari dira: bost gazte eta ardura-duna, talde burua, ditu talde bakoitzak. Koldo Azkoitiak, Mankomunitateko Garapen Agentzia-ko arduradunak azalpena: "Sei

hilabeteko programa burutzen ari dira. Hiru, ikasten; arotzeria, igeltserotza, elektrizitatea eta iturgintza lantzen".

Lehen zati honetan ere teoria bai baina praktikarekin nahastuta egin dutela, Slamun Fadli Amiren nabardura: "Tailerrean ere gehienbat egin duguna izan da praktika, ikusteko nola moldatzen garen". Nola moldatzen ziren ikusteko, beraz; Iñigo Untzeta talde buruaren arabera ondo, oro har, "gehiengoak bazuen-eta eskarmentua". "Lanean ibili izan dira; beraz, badakite. Tailerrean egin duguna izan da gero udalen enkarguz egin beharreko lanak han egin lehenengo, nolako lanak izango diren ikusteko", azaldu digu Untzeta.

## Oñatiko Txokolaterixia egokitzeko lanak dira hurrengoak

Debagoieneko herri guztietara iritsiko dira Mankomunitatearen programako partaideak. Udalek utzi dizkiete benetako lan horiek egiteko lekuak: eraikinak, lokalak, kirol instalazioak..., eta pozik utzi ere. Udalentzat ere ekonomikoki onenak ez diren garaiotan, egiteke zituzten hainbat lan egiteko balio izan die: "Elgetan, Asentzioko parkean mahai batzuk jarri ditugu; hiru banku ere

jarri ditugu, eta squasheko kantxetan hezetasuna kendu", azaldu digu Iñigo Untzeta. Eta aurrerantzean egingo dituzten lanen berri eman Koldo Azkoitiak: "Oñatin Txokolaterixia berria izango denaren egokitzapena egingo da; Eskoriatzan auzoetako argiteriarekin ibiliko gara, eta hainbat konponketa egingo ditugu hilerrian; Arrasaten Urzuren pabilioian ari gara..."

**Aktiba zaituzte**

**mondragonLingua** rekin



HIZKUNTZAK IKASTEKO METODORIK ERAGINKORRENA.

[www.mondragonlingua.com](http://www.mondragonlingua.com)



Gure 10 ikasletik 8k Cambridgeko azterketak gainditzen dituzte.

**MondragonLinguaren konpromisoa**

Aktiba zaituzte gure klaseekin.  
Adin guztiak: haurrak, gazteak eta helduak.  
Maila guztiak.  
Hizkuntza guztiak.

Aktiba zaituzte teknologiarik aurreratuenarekin.  
Zure ordenagailutik bertatik, eroso asko.  
Gazteenentzat bideojoko didaktikoak.



ARRASATE

Araba etorbidea 4. Tel. 943 71 20 55

OÑATI

Motxon kalea. Tel. 943 71 60 00




eta **SAMSUNG GALAXY TABLET** bat jasoko duzu doan, zure prestakuntzan laguntzeko.

SISTEMA ML+ ikastaroetan. Bezero PARTIKULARRENTZAT. Izakinak ahitu arte. Promozio hau ezin zaio beste bati erantsi.



Gaztea igeltserotzan. | J.I.



Iturria konpontzen. | J.I.



Egoitzako leihoa margotzen. | J.I.

Eta jarraitzen du Azkoitiak, hain justu, Mankomunitatearen programaren bigarren zatia buruz: "Aurrez bertako zerbitzu teknikoekin eta arduradunekin adostutako lanak egingo dituzte herri bakoitzean. Gainera, praktiketako fase honetan beka bat jasoko dute gazteek: hileko 480 euro izango dira eta gizarte segurantzaren ere eman zaie izena, ziurtasun guztiarekin aritzeko". Programaren berezitasunari buruz zera gehitzen du Garapen Agentziako arduradunak: "Demonstratuta dago oso eraginkorrak direla formazioa eta lan esperientzia uztartzen dituzten programa misto hauek, emaitza ona ematen dutela; Lantegi Tailerrekin eta Enplegu Eskolekin ikusi izan dugu. Haien antzerako gauza bat beste era batera egin nahi izan dugu aurten".

#### Aste honetan, Aretxabaletan

Slamu Fadli Amik azaldu digu amaitu dituztela Aretxabaletako zaharren egoitza izan zen eraikinean aurreko egunetan egiten ibilitako lanak: "Kanpoko alde dena margotu dugu, atek, leihoak... Barruan, pintura jausita zegoen hainbat lekutan, hezetasunaren ondorioz; komunetan, berriz, hainbat baldosa aurkitu ditugu apurtuta. Inor bizi ez den lekuetan halakoak gertatzen dira, ez da eta mantentze-lanik egiten.

Egoitzak bazuen konponketa beharra". Horiek, gazteek egingo lanetako batzuk bakarrik.

Tailerrean jasotako ezagupenak joandako egunetan Aretxabaletan jarri dituzte, beraz, praktikan gazteok. Tailerrean ere ariketa praktikoak egin arren, instalazio errealetan ibiltzea beste gauza bat dela diote bai talde buruek eta baita programako partaideek ere, beste erantzukizun batekin jarduten dutela lanean: "Tailerrean egindakoak ariketak dira; han egindakoak bota egiten dira, eta garbitu. Hemen egindakoa gelditu egiten da; beraz, nahiz eta emaitza berdina izan edo lana bietan ondo egin, sentsazio desberdina era-

giten dute ariketa egiteak eta lan errealek egiteak", Untzetak. Eta Slamuk: "Erantzukizunarena gauza garrantzitsua da. Aukera dago beste batzuek ikusteko lana ondo egiten duzula, eta ondo eginda agian deituko zaituzte beste lan baterako".

Eta lanok bukatzerakoan, Mankomunitatearen programaren izenak dioten bezala, prest lanerako, nahiz eta jakin gauzak ez daudela batera erraz. Saiatu ezagatik ez da izango, egitasmoaren oinarrian dauden helburuak ongi betetzen ari dira eta gazteak: "Primeran; gogotsu daude. Eurek lan egitea nahi dute, lanean hastea. Orduan, gustura etortzen dira, eta gustura egiten dute lan,

eta ondo", dio gazteen arduradun dabilen Iñigo Untzetak. Eta ikasleak ere hitz onak baino ez irakaslearentzako: "Zortea dugu Iñigo oso irakasle ona delako; gauza asko erakutsi dizkigu".

Egitasmoaren bultzatzaile izan den Garapen Agentzia ere konforme: "Esperientzia oso ona izaten ari da. Jendea gogotsu eta arduratsu dabil, eta udalek ere oso positibo jo dituzte orain arte egindako lanak".

Nahiz eta, esan bezala, honek ez ziurtatu programa amaitzean bertan ibilitakoek beste lanik izango dutenik: "Gauza oso zaila dago; lana topatzen badugu, oso pozik, noski", dio Slamuk. Eta Untzetak: "Ez dakit gaur egun obra alorrean lan askorik ote dagoen eta honek balioko ote duen orain. Dena dela, bukatzerakoan zerbait lortzerik balute mutilek, guretzako pozgarria litzateke".

Zuhur, baina baikorrago Azkoitia: "Eraikuntza sektorea lur jota dago, baina ari gara ikusten, baita ere, birgaitze alorreko gero eta lan gehiago ari direla ateratzen pixkanaka-pixkanaka, eta horretan diharduten enpresek badutela halako behar bat, presatutako eta esperientzia duten langileena". Eta aurrera begira, amaitzeko: "Espero dugu programa ondo burutzea eta, ahal bada, datorren urtean errepikatzea".

**KOLDO AZKOITIA**  
GARAPEN AGENTZIA

## "Gazteei lan esperientzia zehatza eman nahi genien"

Mankomunitateak Debagoieneko Enplegu Planaren barruan beste formazio saio batzuk ere burutu dituzte aurten: "Bost ikastaro motz egin ditugu, ehun ordu ingurukoak; 12 langabek hartu dute parte bakoitzean", dio Koldo Azkoitiak, Garapen Agentziako arduradunak. Baina *Gazteak prest lanerako Debagoieneko programa* desberdina dela azaldu digu Azkoitiak.



**Zertan da berezia programa hau?**  
Luzeagoa da eta beste plan-  
teamendu bat du. Sei hilabete-  
teko programan, hiru ikasten  
eman dituzte; bigarren fasean  
eskualdeko udalek proposa-  
tutako lanak burutzen ari  
dira.

**Horrez gain, 20 eta 30 urte arteko gazte langabeei zuzendutako programa izan da. Zergatik?**

Enplegu Plana diseinatu  
genuenean ikusi genuen gaz-  
teen alde zerbait berezia egin  
behar zela. Beste formazio  
saioak edozein adinetako  
debagoienarrei irekiak izan  
dira, baina kasu honetan sal-  
buespena egitea planteatu  
genuen.

**Esperientzia har dezaten, ezta? Bestela gupil zoro bilakatu daiteke: esperientziarik gabelanikez, eta lanik egin ezean ezin esperientziarik hartu.**

Bai. Dena den, aurretik bai  
eskatzen genielako parte-har-  
tzaileei nolabaiteko experien-  
tzia edo formazioa izan zezan  
ten arlo hauetan, eraikuntzen  
konponketetan eta abarretan.  
Zergatik? Programa motza  
delako batetik, eta nahi genuen-  
lako benetako esperientzia  
jasotzea, lan merkatuan txer-  
tatzeke erraztasun handiagoa  
izateko gero, lan esperientzia  
konkretu bat ematea, ez iza-  
tea soilik ikasketa. Formula  
eraginkorra da.

**Esperientzia har dezaten, ezta? Bestela gupil zoro bilakatu daiteke: esperientziarik gabelanikez, eta lanik egin ezean ezin esperientziarik hartu.**

Bai. Dena den, aurretik bai  
eskatzen genielako parte-har-  
tzaileei nolabaiteko experien-  
tzia edo formazioa izan zezan  
ten arlo hauetan, eraikuntzen  
konponketetan eta abarretan.  
Zergatik? Programa motza  
delako batetik, eta nahi genuen-  
lako benetako esperientzia  
jasotzea, lan merkatuan txer-  
tatzeke erraztasun handiagoa  
izateko gero, lan esperientzia  
konkretu bat ematea, ez iza-  
tea soilik ikasketa. Formula  
eraginkorra da.



ESANAK

**"Gogotsu daude gazteak. Lan egitea nahi dute, eta gustura datoz; lana ondo egiten dute"**

IÑIGO UNTZETA | TALDE BURUA



**"Lana ondo egin behar dugu, hori ikusita beste nonbaitetik dei gaitzaten aukera egon dadin"**

SLAMU FADLI AMI | PARTAIDEA



## KIRURGIA OROKORREKO ZERBITZUA

### Tratamenduak:

- Barizeak eta arma baskularrak: eskleroterapia eta kirurgia
- Uzki-patologia: hemorroideak (HAL/RAR), uzki-fisura
- Abdomen-paretako herniak
- Behazun-maskuria ateratzea (kolezistektomia) laparoskopia bidez
- Azal-tumoreak: neboa, lipomak, kistekak
- Koloneko eta hesteetako patologia
- Urgentziako kirurgia

**QUIRÓN**  
OSPITALEA  
Donostia

ESKA EZAZU ORDUA:

QUIRÓN DONOSTIA OSPITALEA | UDALAITZ ZENTRO MEDIKOAN  
Tel.: 943 43 71 00 | Tel.: 943 79 44 22

RPS: 122/09

www.quiron.es

# Ahots Kooperatibista: "Korporazioa Etxetresnen egoeraz ardura dadila"

Fagor Etxetresnek 66,8 milioi galdu dituzte urteko lehen seihilekoan

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Fagor Etxetresnek 66,8 milioi euroko galerak izan dituzte urteko lehen erdian, iaz baino hiru aldiz gehiago. Espainiako Balio-Merkatuaren Batzordeari emandako datuak dira. Urtarril eta ekain artean, 491 milioi euroko salmentak egin zituzten, iazko epe berean baino % 19 gutxiago.

Fagor Etxetresnek azpimarratu dutenez, bere kontuak saneatzeko 37 milioi euro ipini ditu aurtengo lehenengo seihilekoan, 2012ko emaitzen kargura. Etxetresnen kooperatibak dienez, "Espainiako etxetresna elektrikoaren merkatuak krisi ekonomiko larriaren ondorioak jasaten jarraitzen du eta horren eraginez familien kontsumoak behera egin du eta baldintza finantzarioak gogortu egin dira, eraikuntza arloaren kolapsoaz gain. Hala ere, bilakaera positiboa antzematen ari da, aldagai makroekonomikoen okerragotzea apaldu egin baita, izan ere, sektorearen %6,8ko jaitsiera nozitu du eta iaz tarte berean %16koa".

Gaineratzen duenez, Taldearen gainerako merkatu nagusietan -Frantzia eta Polonian, hain zuzen ere- sektorearen negozio-balioa % 7,7 eta % 1,4 jaitsi da, hurrenez hurren. Merkatu frantsesaren kasuan, egoerak okerre- ra egin du, izan ere, 2012ko lehen seihilekoan % 2,1 jaitsi zen.

## "Korporazioaren garaia da"

66 milioiko galera horien harira, Ahots Kooperatibista mugimenduak Mondragon Korporazioari Fagor Etxetresnen "egoeraz arduratzea" eskatu dio. *Kooperatibismoarentzako solidaritate eta azterketa garaia* izeneko prentsa-ohar baten, "estatusunetik irteteko enpresa zuzentzeaz, kudeatzeaz eta ekonomia eta finantza-baliabideak lor-



Fagor Etxetresnen lantegia. | GOIENA

tzeaz" ardura dadila eskatzen dio korporazioko zuzendaritzari. Mugimendu horren iritziz, "salbazioa izan behar zuen Industria Planak ez dirudi emaitzarik ematen duenik; aliantzak ez dira gauzatu, salmentek behera egin dute eta Poloniako ekoizpenak ez ditu eman espero ziren marjinak. Produktu izarrek, sukaldeek, marjina handiak ematea espero zen arren, horiek

behera egin dute nabarmen. Finantza-zioa lortzeko eta zorrei erantzuteko gaitasuna gero eta txikiagoa da. Gero eta lanpostu gutxiago geratzen dira, eta bizirauteko, aparteko ordainsariak eta Ekarpenen eta Kapitalen interesak kentzea ez dirudi nahikoa denik". Eta hau gaineratzen du: "Aparteko ordainsaria kentzeko eta gainerako erabakiak Kontseilu Errektoreak hartu ditu, Kapital-enpresa bateko Administrazio Kontseilua balitz bezala, bazkideen Batzar subiranoari galdetu gabe. Hori onartezina da!"

Ahots Kooperatibistak Deloitte auditoretza-enpresaren balorazioak aipatzen ditu; horien arabera, "aktibo zirkulatzailerak ez da pasibo zirkulatzailerak estaltzeko gai". Horrek guztiak, Ahots Kooperatibistaren esanetan, Fagor Etxetresnak "hartzekodunen konkurtsotik" gertu egon daitekeela esan nahi du.



# "Gerrarik ez" egotea eskatu zuen Munillak

Urkullu, Garitano, Biain eta beste ordezkari batzuk izan ziren astelehenean Arantzazun

L.K. | OÑATI

Aurreikusitako bezala joan ziren Arantzazuko Amaren eguneko ospakizunak, astelehenean. Arantza Tapia Eusko Jaurlaritzako Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun sailburua, Jon Darpon Osasun sailburua eta Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidentea izan ziren, besteak beste, Arantzazun; baita Martin Garitano Gipuzkoako ahaldu nagusia eta Oñatiko udalbatzako ordezkariak ere, Mikel Biain alkatea buru. Inigo Urkullu lehendakaria arratsaldeko lehen orduan heldu zen Arantzazura, agenda arazoak direla-eta.

Homilian, gotzainak honakoa eskatu zuen: "Nazioarteko elkar-teari nire eskaera, Siriara bakea eramango duten errotiko eta funtsezko ekimenak aurrera eramanez ditzaten; elkarrizketan, negoziazioan eta siriarren onuraren oinarritutako ekimenak".

## Presoen eskubideen alde

Euskal presoen eskubideen aldeko bilkura ere egin zuten hainbat lagunek kanpoaldean, eta espetxe politikaren gaineko txostena eman zioten Martin Garitanori. Ahaldu nagusiak egoera hori konpontzeko bere "konpromisoa" berretsi zuen.



Asteleheneko elizkizuneko une bat. | IMANOL GALLEGO

## Irailaren 20ra arte bidal daitezke lanak 'Ura eta Erreka Deba Ibarrean' argazki lehiaketara

Debagoieneko Mankomunitateak aurtengo urriaren 13an hasi eta 19ra arte, Ura eta Erreka Deba Ibarrean delako aste ospatuko du. Horrekin lotuta, izenburu bereko argazki lehiaketa deitu du, eta irailaren 20ra arte bidal daitezke lanak. 14 urtetik gorakoek har dezakete parte, norberak gehienez ere bi argazkirekin. Lanak formatu digitalean aurkeztu behar dira, norberaren izen, adin eta kontaktu batekin, [argazkilehiaketa@debagoiena.com](mailto:argazkilehiaketa@debagoiena.com) helbide elektronikora.

Ainhoa Larrañaga | Aditukom tituluko koordinatzailea

# "Jende eta kamera aurreko komunikazioa da aurtengo nobedadea Aditukom-en"

Erakunde baten komunikazioan sakondu nahi dutenendako titulua ematen du Huhezik

L.K. | ARETXABAETA

Komunikazioa erakundeetan delako aditu titulua ateratzeko graduondoa, Aditukom, eskainiko du aurtengo lehen seihilekoan, 2012ko emaitzen kargura. Aditukom, eskainiko du aurtengo lehen seihilekoan, 2012ko emaitzen kargura. Aditukom, eskainiko du aurtengo lehen seihilekoan, 2012ko emaitzen kargura.

**Labur esanda, zer da Aditukom?** Erakundeetako komunikazioan aditu titulua da. Ikuspegi oroko-

rrean hartuta, erakundeetako komunikazioa nola eramanez behar den janzteko ikasketak dira. Euskaraz eta erdaraz emateko asmoa geneukan, baina azkenean euskaraz egitea erabaki dugu.

## Nobedaderik badago aurtengoan?

Ikasgai berri bat sartu dugu: *Jende eta kamera aurreko komunikazioa*.



Ainhoa Larrañaga. | HUHEZI

## Noiz hasiko dira eskolak?

Urriaren 3an. Aretxabaletako campusean emango dugu, egunetan, 15:00etatik 19:00etara. Maiatza eta ekaina, azken bi hilabeteak, proiektua lantzeko dira. Lehenengo deialdian egiten ez duenak irailean izango luke aukera hori.

## Zeintzuk izango dira aurtengo irakasleak?

Hainbat izango dira: Joseba Kamio, Eneko Bidegain, Inaki Lakarra... Eta, berritasun gisa, kanpoko bi aditu ekartzeko asmoa daukagu. Enpresa jakin baten esperientzia edo praktika onak kontatzeko etorriko litzateke norbait.

## Nori zuzenduta dago titulu hau?

Erakunde bateko komunikazioaren gaineko ardura edo kezka duten profesionalak; adibidez, gradu bat amaitu duenari, igual Enpresagintzan, edo Ikus-entzuzko komunikazioan... eta gai honetan sakondu nahi duenari; eta bestalde, profesionalak, lanean dabilenak erakunde publiko zein pribatu batean; udal baten teknikari dabilenari, zinegotzi bati...; edo enpresa baten komunikazio ardurak dituenari; kasu horretan, lanean dabil, baina

komunikazio esparrua bereziki landu nahi du.

Iaz, betez ere profesionalak etorri zitzaizkigun; GKE batetik, udaletxe bateko komunikazio-diagnostikoa egin behar zuen bat, ohiko enpresa batetik edo kooperatiba batetik, herri mugimenduetatik ere bai...

## Nola eman behar da izena?

Izena emateko, [www.mondragon.edu/muplus/enpresen-zuzendaritza-eta-kudeaketa](http://www.mondragon.edu/muplus/enpresen-zuzendaritza-eta-kudeaketa) webgunera jo eta bertan agertzen da inskripzioa non eta nola egin daitekeen. Hil bukaerara arte zabalik dago epea.

## Ze lan egiteko balio dezake titulua?

Materia guztiak oso bideratuta daude ikasle bakoitzak egingo duen proiektura. Batzuek gehiago lantzen dute kanpo-dimentsioa; beste batzuek, barrura, kolektibora begira garatzen dute.

# Euskara ikasteko laguntza bereziak izango dituzte krisiak kaltetuenerik

Matrikulazio epea zabalik dago bai bailarako udal euskaltegietan, eta baita AEKn ere

IMANOL GALLEGU/L.K. | OÑATI

*Emaiizu euskarari* leloa da Debagoieneko udal euskaltegiek 2013-2014 ikasturterako aukeratu dutena, eta, *return* botoiak lagunduta, ekintza bat hastearen kontzeptua adierazten du. Joan den martitzenean prentsaurrekoan azpimarratu zuten moduan, "euskara ikasteak ez dauka beste zailtasunik ikasi gura izatea baino".

Debagoieneko udalek euskararekiko duten konpromisoa berretsi dute eta, besteak beste, langabeek, ikasleek, erretiratuak eta pentsiodunek dirulaguntzak izango dituzte udal euskaltegietan, udalen eskutik. Arrasateko Udaleko Euskara zinegotzi Joxe Etxebarriaren esanetan, "inor ez dadila diru faltagatik euskara ikasi gabe gelditu".

Aurten ikastaro gehiago eskainiko dituzte euskaltegiek;

bereziki, ikastaro trinkoak, lanik gabe dauden edo lan-jardun murrizketa duten herritarrek euskarara gerturatzeko.

Iaz, % 5 inguru hazi ziren matrikulazioak bailarako udal euskaltegietan.

## Arrasatearrentzako beka

AEK euskaltegietan ere zabalik dago matrikulazio epea, *Euskara praktikoa* leloarekin. Aurten, nobedade bat dago: Debagoieneko AEK euskaltegian beka sistema berria izango da Arrasateko biztanleendako, Udalarekin sinatutako hitzarmen bati esker: herriko ikasleek matrikulak merkeagoak izango dira, eta hasieran egingo zaie deskontu hori. %50eko murrizketa izateko, matrikula egiteko unean erretiratuak, ikasleak edo langabeak direla ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko dute.



Ingurumeneko estatu idazkaria, Federico Ramos, Eneko Etxebarriarekin eta beste arduradun batzuekin. | MIREN ARREGI

## Epeleko araztegiaren kudeaketa Gipuzkoako Urei eskualdatu die Ingurumen Ministerioak

Debagoieneko ur-saneamendu azpiegitura nagusia da Epeleko araztegia, eta, lehendik ere martxan zegoen arren, orain sinatu dute hitzarmena

MIREN ARREGI | ARRASATE

Espainiako Ingurumen Ministerioak Epeleko araztegia ustiatzeko ardura eman zion Gipuzkoako Ur Kontsoltzioari egunean. Sinatze ekitaldian izan ziren, besteak beste, Federico Ramos, Ingurumeneko estatu idazkaria; Ingurumeneko foru diputatua, Iñaki Errazkin; eta Gipuzkoako Ur Kontsoltzioko presidente eta Azpeitiko alkatea, Eneko Etxebarria.

Kudeaketa akordioa eguen goizean sinatu bazen ere, ez da orain arteko lan egiteko modua aldatuko, gaur arte ere Gipuzkoako Urak enpresak eraman baitu kudeaketa hori. Kantauriko Ur Konfederazioak egin zituen araztegiaren obrak, Espainiako Gobernuaren ekimenez, eta araztegiaren kudeaketa eskualdatu zen atzo, hitzarmen bat sinatuta. Bada, araztegi horren azpiegiturak Espainiako Estatuarenak izaten jarraituko du eta kudeaketa Gipuzkoako Ur Kontsoltzioarena izango da.

## Dagoeneko emaitzak bistan

Sinatze ekitaldiaren ostean, araztegiako instalazioak ezagutu zituzten. Goian aipatutakoez gain, bertan izan ziren Carlos Urquijo, Espainiako Gobernuaren ordezkaria; Josean Galera, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburuordea; eta Debagoienetik, Arrasateko alkatea, Inazio Azkarragaurizar, besteak beste.

Azkarragaurizarrek herritarrei jakinarazi gura die "ingurumenaren aldeko apustu hori" hasia dela dagoeneko emaitzak ematen: "Deba ibaiaren kutsadura maila jaitea lortu dugu eta, batez ere, bertako bizitza berreskuratzea lortzen ari gara". Bada, haren esanetan, Arrasaten, aireko eta erreketako kutsadura murrizteko aurrerapauso handiak

eman dira eta orain, lurzoruko kutsaduraren txanda da: "Orain, lurzoruko kutsadura murrizteko pauso sendoak ematea dagokigu, eta, jakina, lehen bezalaxe, nork bere alorretik erantzukizunez jokatzeari".

## Ehuneko ehunean lanean

Epeleko araztegiak, bestetik, duela urtebete ingurutik dihardu ehuneko ehunean lanean. Aretxabaletatik, Eskoriatzatik eta Arrasateetik datozen ur zikinak jasotzen ditu lehen kolektore

batek eta bigarrenak, ponpatze sistema baten bitartez, Oñatiko urak jasotzen ditu. Araztegiaren ur horiek garbitzen dira gero berriz ere ibaira isuri aurretik. Hain zuzen, urtean 2.500 tona solido eta materia organiko hartzen ditu araztegiak.

Egueneko eskualdatzearekin, bukatuta eta borobilduta gertatzen da Deba ibaiaren saneamendu sarea, Debagoienari dagokionez. Epeleko araztegia da sare horretako azpiegitura nagusia.



Udal euskaltegietako eta udaletako ordezkariak, prentsaurrekoan. | I.G.

## Euskaltzale guztiak deitu dituzte Soralezera, TopaEgunera

GOIATZ ARANA | DONOSTIA

TopaEguna ospatuko dute euskaltzaleek irailaren 28an Soralezera, eta Euskal Herriko euskaltzaleei parte hartzeko dei egin diete antolatzaileek, Deba bailarako euskara elkarteek eta Topaguneko ordezkariak. Goienaren laguntza ere izan dute.

TopaEguna euskaltzaleen jaieguna izatea nahi dutela azpimarratu dute antolatzaileek; euskaltzaleen ekarpenaren eskertze eta aldarrikapena izan dadin nahi dute, baina baita ospakizuna ere: "Euskal Herri osoan zehar elkarrekin antolatuta dauden euskaltzaleen festa eguna, elkar ezagutza eta

truckerako eguna izatea nahi dugu", azaldu zuten.

## Adin guztientzako ekintzak

Eguneko ekitaldi nagusia 18:00etatik aurrera egingo da, Euskal Herri osoko euskaltzaleen topaguneetako ordezkarien parte-hartzearekin. Horretaz gain, aisialdiko eskaintza -umeen hiria, hezitzaileen jolasak, berba-probak, Irrien Lagunak...-, kultur eskaintza -Xero Xietta taldearen erromeria, Kokein eta Gose taldeen kontzertua, bertsolariak...- eta herri bazkaria antolatu dituzte. Gainera, Jon Sarasuak liburu berriaren aurkezpena egingo du.



Josexo Arantzabal

2013 - 2014  
ikastaroak

## PLAZAKO DANTZA TRADIZIONALAK

HELDUENTZAT

Hastapeneko mailarako bi aukera:  
**ASTELÉHENETAN edo OSTIRALETAN**

Urria - Ekaina / Hasiera: urriak 7

Informazioa eta egitarauak:  
[www.herrixadantzan.com](http://www.herrixadantzan.com)

**IZENA EMATEKO EPEA: Irailak 27**

AED: 943 77 12 28 / GAZTE BULEGOA: 943 25 20 65  
HERRIXA DANTZAN: [herrixadantzan@gmail.com](mailto:herrixadantzan@gmail.com)

Antolatzailea



Laguntzaileak



## ZABALIK

**NAROA ELORTZA**  
http://goiena.net/iritzia/



## Hari muturrik nahi?

angabezia. Emakumeen aurkako biolentzia. Kapitalaren boterea. Ustelkeria. Langileriaren eskubideen zapalketa. Bazterketa soziala. Gatazkak. Eguneroko kontuak ditugu guztiak.

Guztien larritasuna, hori bakarrik aldatu da azkenaldian. Gero eta zailago zaigu irratia edo ordenagailua piztu eta irribarra mantentzea. Errazago eta osasungarriago, berriz, mundu paralelo baten kokatzea.

Baina ez ditzagun gure buruak engaina. Telezaborrak, prentsa arrosak edota futbolak eraikitako errealitatea ez da langileriaren osasuna zaintzeko tresna, jendartea lo mantendu eta ahultzeko estrategia simple baina eraginkorra baizik. *Freelance* lan eskaintzek langileriaren indarra diluitzen duten gisara.

Ez da erraza, hala ere, uneoro sistemaren krudelkeria (guk geuk osatu eta eraikitzen dugun sistema, bestalde) buruan izatea.

Ingurura begiratu eta kontsumismo eta estetikaren esklabo bihurtu garena ikustea.

Egia da sistema aldatzeko (ala iraultzeko) ezinbestekoa dela egungo egoeraren diagnosi zuzen eta zehatza egitea, baina nekagarria ere bada, aizue. Etsipena nagusitzen da sarri, ezer aldatzea ezinezko zaigula sinetsiz.

Ilusioa eta baikortasun dosiak bilatu beharko ditugu ezinbestean. Tresnak, berriz, baditugu. Badugu autoeraketan oinarritutako herri mugimendu aberatsa, badugu nortasun kolektiboa (gero eta diluituagoa akaso), baditugu herri ekimenetik sortutako erakunde eta ikastetxeak, baita lanerako grina ere.

Ilusioa faltan eta etsipena soberan? Baliteke. Baina ez digute (oraindik) amets egitea debekatu. Eta badugu amets kolektiboa eraikitzen jarraitzeko indarra. Irlen sarea josten jarraitzeko haria ere badugu. Baita hondar ale sakabanatuak pilatzen segitzeko ilusioa ere.

## USTEAK USTE

**IBAN ARANTZABAL** | iarantzabal@goiena.com


## Euskaltzale

zan naiz ni ere tribuzale, jendea tribuetan sailkatuzale. Taberna hauetan dabilelako, kamisetak halakoak, motxila estiloa, zapatak, orrazkera, musika tipoa... Eta sailkatu. Gurea da, ez da, zer da gurea, zer da gu... Lehen errazago egiten nuen sailkatzeak ez dit orain balio. Egon naiteke tribu honetan gaur eta bestera salto egin gero. Edo izan daiteke tribu handiago batean birziklatu ditudala motxilero hippyak eta ondo lisatutako alkandoradunak. Jarraitzen dut tribukerietan; orain, euskaltzaleen tribuko den edo ez sailkatzen dut, inkontzienteki egiten dut. Niri bost zein tabernatara sartzen den eta ilea makinarekin edo artaziekin mozten duen. Badugu garaia tribua handitzeko.

## "Ilusioa eta baikortasun dosiak bilatu behar ditugu ezinbestean"

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | http://goiena.net/iritzia/



## HANDIK ETA HEMENDIK

## A relaxing cup of kafesne

**Aritz Galarraga**  
berria.info/blogak/ekografiak/

Hautaketa aurretik dena propaganda, olio-emate, ahobatezkotasuna zen bezala, hautaketa ondoren hasi dira ugaritzen Madrilgo hautagaitza olinpikoaren inguruko kritikak. [...] Eta ez naiz sobera zalea, gertatzen zait, oro har, Espainia aldeko progresiak maite dituen saio horiekin; beste hark esan zuen bezala, aldaketa sozialerako ekarpen eskasa baitira. Baina astelehen gauean ikusi nuen La Sextako *El Intermedio*. Osoki Madrilgo hautagaitza olinpikoari buruzkoa. [...]

Alde batetik, hautaketa aurretik Espainia aldeko hedabide batzuek agertu zuten gehiegizko bozkarioa utzi zuten agerian. Batez ere prentsa idatziak, *El Mundo*, *La Razón*, kirol berripaperek. Baina baita telebista kateren batek ere, besteren gainera Telemadriderik –"Madrid brilla, ya casi olimpica"–. Baina esaten dute Espainia aldean: ariketa egin zuten behin zezena pasata. Alde horretatik, interesgarriagoa iruditzen zitzaidan hautaketa

ondorengo erreakzioei egin zieten errepaso: iruzur olinpikoa, jarrera lotsamangarria, begien bistako erosketa; Nazioarteko Olinpiar Batzordeko jendearekin nola sartu ziren hainbat eta hainbat hedabide, izen-abizenak emanez; Fukushima –hau bai– hondamendi nuklearra nola ekarri zuten gogora, Hiroshima eta Nagasakiko bonba atomikoak –japoniarren erru izan balira bezala. [...]

*El Intermedio*-k, aldiz, asteburuko telebista une izarrari eman zion: Madrilgo alkate Ana Botellak Olinpiar Batzordearen aurrean egin zuen diskurtso gogoangarriari. Eta baten batek galde dezake Botellaren ingeles mailaz barre egitea zilegi den; ez bakarrik barre egilearen ingeles maila parekoa izan daitekeelako, baizik eta euskara maila bera izan eta hitz egiteko borondatea duena txalotzen dugun bitartean, Madrilgo alkatesaren ahalegina harrikatu egin dugulako. Tira, egia da, baina ez da ingeles maila soilik, are ez da ingeles maila; izan zen dena, zer esan zuen, nola, antzeppen osoa iruditzen zitzaidan antzerki eskoletan erakusteko modukoa. Egin beharko ez litzatekeenaren eredu gisa, bistan da.

## Futbolekin egin izan balute, Urdaibai txapeladun

**Luis Aranberri Mendizabal**  
eibar.org/blogak/amatino/

Partida amaitu, errefereak jokaldi guztiak ontzat eman eta azken emaitza ere jendaurrean ezagutarazi ostean, lehorreko epaileek erabaki dute txapela galtzailearen mesedetan.

Donostiako Kontxan gertatu da, gaur, bazkalarretik.

Txapeladun egokitu den arren Hondarribia, zalantzarik ere ez gero lasterrena, orain hurrengo bezalaxe, Bermeo izan dela.

Uretan azkarrenak, beraz, urdaibaitarrak baina arauzko irabazleak, aldiz, bidasotarrak.

Justua ote?

Behar bada, ez.

Baina nork esan du justua izan behar duenik?

Arraun kirola erabat profesionala da gaur egun, eta Kontxako estropadak olinpiar mailakoak omen.

Ez dirudi, ostera, antolatzaileak eta epaileak horren esportagarriak direnik.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA

**Lehendakaria** Aitor Izagire

**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate  
**Erredaktore burua** Leire Kortabarria  
**Sailkatu arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Inaki Iturbe, Kepa Martelo  
**Argazkilaria** Imanol Soriano  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundifiano, Zortza Martin, Imanol Elortza

**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.

**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.

**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa



**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA**  
**ARRASATE 20500:**  
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**  
**ARETXABALETA 20550:**  
E05 Basabe Poligonoa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.com

**Lego Gordailua:** NA-3329/2000  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 20.100 ale  
**Difusioa:** 19.951 ale



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## GUTUNAK

Udalatx,  
zergatik ez?

**Urtzi Mendizabal biologoa eta Besaide Mendizale Elkarte**  
Arrasate

2012ko urriaren 16a egun garrantzitsua izan zen hainbat euskal ekosistema naturalentzat. Egun hartan Euskal Gobernuak Kontseiluak adostu zuen Europako Natura 2000ko *Kontserbazio Bereziko Eremu* izendatzea Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako 14 ibai eta itsasadar eta 5 mendi eta naturgune. *Kontserbazio Bereziko Eremuaren* figura praktikara eramatea posible egiten duten araudi legalak hasi dira azaltzen: 2012ko 217, 218, 219 eta 220 dekretuak, Arno, Ernio-Gazume, Pagoeta eta Izarraitz babestera zuzendutako. Eremu hauetan babes-neurri zehatzak ezarriko dira; honela, beraien natura babestu eta berreskuratzeko bidean aurrerapauso esanguratsua ematen da, aipaturiko dekretuen aterkipean.

Aldi berean, biodibertsitate, balio faunistiko, botaniko, geologiko, kultural eta ekosistema naturalen zerbitzuen aldetik, aipaturiko Arno, Ernio-Gazume eta Izarraitz mendien oso antzerakoa den beste euskal mendi bat babesteko ezinbesteko beharra dakarkigu burura: Udalatx.

Izan ere, Euskal Lurralde Antolamenduko Legearen eraginez, Eusko Jaurlaritzak Udalatx ingurunea, Izarraitz, Arno, Ernio-Gazume eta beste 47 naturgune *Interes Naturalistikodun Eremu* izendatu zituen.

2003ko ekainaren 10ean, Eusko Jaurlaritzak *Interes Naturalistikodun Eremu* gehienak aipaturiko *Interes Komunitarioko Gune* izendatzeko proposatu zituen Europako Batasunera, eta azken honek onartu. Eusko Jaurlaritzak, ordea, ez zuen *Udalatx Interes Naturalistikodun Eremua* proposatu, eta ordutik, babesik gabe jarraitzen du.

Europako 92/43 Habitat eta 2009/147 Hegaztien zuzentarauen arabera, ordea, Udalatx ingurunea *Interes Komunitarioko Gune* izendatua izateko baldintza guztiak betetzen ditu: 92/43 Habitat Zuzentaruak adierazten duenez, "Natura 2000 izeneko sare ekologikoa sortzen da, kontserbaziorako eremu bereziengatik osatua. Sare honek bere barnean hartzen ditu I. Eranskinean agertzen diren habitat naturalak eta II. Eranskinean agertzen diren animalia edo landare espezieen habitatak".

Besaide Elkartearen kolaborazioarekin, R. Aguirrebeña eta U. Mendizabal biologoek Arrasateko Udalarentzat egindako *Arrasateko Habitat naturalak* ikerketaren eta

ondorengo azterketen arabera, esandako I. Eranskinean dauden europar garrantziko 10 habitat natural daude Udalatx ingurunean, eta Arrasateko Hiri Antolamenduko Egitamu Orokorra berraztertzeke Ingurumen Jasangarritasun Txostenak jaso zituen 2011n: Artadia (9340 kodearekin), Gaztainadia (9260), txilardi lehor europarra (4030), txilardi oromediterraniar endemikoak otaberarekin (4090), belardi lehor seminaturalak kareharrizko lurzoruan (6210), belar-moztu altuera baxuko larre txiroa (6510), kareharri harkaitz landaredia (8210), hartxingadiak (8130), orkideadun belardi menditarra (6210\*), eta espezie ugari belardiak *Nardus*-ekin (6230\*). Azken bi hauek, gainera, europar lehentasunezko garrantzia duten habitatak dira. Eta Ingurumen Jasangarritasun Txostenean jasota ez egon arren, baita ere europar lehentasunezko garrantzia duen Haltzadia (\*91 E0).

Garbi dago *Udalatxeko Interes Naturalistikodun Eremuak*, Ernio-Gazume, Izarraitz edo Arnorena bezala, Natura 2000 mailako balioa duela. Honen guztiaren aurrean, ezinbesteko galdera sortzen da, bereziki Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde, Plangintza eta Nekazaritza Sailari: zergatik ez da *Udalatxeko Interes Naturalistikodun Eremua*, *Interes Komunitarioko Gune*

izendatzeko proposatzen, beste guztiak bezala? Legea betetzea, besterik ez da eskatzen.

Oso garbi dago ere, Arrasateko Udalak 2012ko urriari udalbatzan onartutako *Biodibertsitatearen Aldeko Manifestua*-ren arabera, udalerrian biodibertsitatearen galera gelditzeko beharra. Horretarako, balio naturala non dagoen zehatz-mehatz jakin behar da, kudeaketa egoki batera begira. Eta horretarako, ezinbestekoa da *Udalatxeko Interes Naturalistikodun Eremuan* ikerketa berri gehiago burutzea, bereziki biodibertsitate eta ekosistemen zerbitzuen aldetik.

Gure ingurumen osasuna dago jokoan, eta horrekin batera, gure ongizatea ere.

Nafartar  
espainolismoa

**Jon Otero Urizarren**  
Arrasate

Nafarroa garai batean erresuma izan zen. Oraindik ere batzuek Euskal Herria nahi dute aipatu nafar estatu bezala, nafar estatu erresumaren harira.

Aberri Egun batzuetan, Iparraldean batez ere, *Euskal Herria erresuma bat da* afixa irakur daiteke.

Baina zer gertatzen da? Nafarrek odolean daukate erresuma izan nahia?

Beha dezagun nafar historia: 1512an Foix-eko nafar dinastiak, denok dakigun bezala, galdu egin zuen Nafarroa Garaia boterea, Errege Katolikoaren alde. Nafarroa Beherean gorde ziren.

Nafar dinastia, han, Nafarroa Beherean, Albret dinastiak hartu zuen. Albret nafar dinastia Nafarroa Garaia berreskuratzeko saiatu zen Noingo guduan. Galdu egin zuen.

Nafarroa Beherea dinastia borboiak hartu zuen lehenengoz, etxe horretan, 1555ean.

Borboi dinastia izan zen Nafarroako errege 1589ra arte.

Dinastia hori, orduan, Frantziar errege izan zen. Bietan. Baina dinastia honek 1610ean Nafarroa Beherea Frantziar anexionatu zuen. Azken errege nafarra.

Iraultza batzuk medio, borboi dinastiak Frantziako erregetza galdu zuen, Errepublikaren zioz.

Handik denbora batera, lege salikoaren arabera, Espainiako errege bihurtu zen borboi antzinako nafar dinastia. Orain, borboiak Espainiako errege dira. Horri begira ari ote dira nafarrak, beren antzinako errege eta erresumari? Eta are gehiago, Felipe printzeak ez du oinordeko gizonik, bi alaba baizik. Beren espainolismoa erresuma grina ote da? Ni giputza eta errepublikanoa naiz.

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00


**Hemen**  
ascensores ♦ igogailuak  
debagoiena

**943 04 40 01**  
**691 52 22 04**

[debagoiena@ascensoreshemen.com](mailto:debagoiena@ascensoreshemen.com)

[www.ascensoreshemen.com](http://www.ascensoreshemen.com)

HUTSETIK HASITA,  
**1.000**  
IGOGAILU  
BAINO GEHIAGO  
IZATERA IRITSI GARA



**Enrique Martinez Lozano** | Psikoterapeuta, soziologoa eta teologoa

# "Gure kontzientziaren eraldaketan dago gizateriaren etorkizuna"

- ▶ Barnetasuna eta espiritualtasuna hizpide ditu Martinez Lozanok
- ▶ Bergaran eta Arantzazun aztertuko ditu kontzeptuak datorren astean

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Umearen psikologia ulertu eta bere barnetasuna zaintzen laguntzeko berbaldia egingo du Enrique Martinez Lozanok Bergaran. Mariaren Lagundia ikastolan izango da, datorren egunean (19), 18:00etan, bailarako hainbat irakasleren ekimenez. Ondoren, Arantzazun ere izango da. Martinez Lozano hainbat liburu eta artikuluren egilea da, pertsonaren barnetasunarekin eta espiritualitatearekin lotutakoak gehienak. Apaiz izana, iaz sekularizatu zen.

**Ze premia dauzka, orokorrean, neskatila edo mutiko batek?**

Jakintzaren usadio guztien deskripzio klasiko bati erreparaturaz gero, gizakian antzematen dugu dimentsio hirukoitz bat: gorpua, espiritua eta alde psikologikoa. Eta, alor bakoitzean, dagokion moduan erantzun beharreko premiak aurkituko ditugu, giza batasunez eta osotasunez hazi nahi badugu. Hortaz, jardun beharko dugu gorputzaren premiez (elikadura, atsedena, mugikortasuna); premia emozionalaz (aitortua edo maitatua sentitzea harreman fisikoaren, begiradaren edo berbetaren bidez), eta premia espiritualaz (bakea, zorientasuna, isiltasuna, askatasuna, osotasuna, batasuna...).

**Gaur egungo neskatila edo mutiko baten premiak eta duela 60 urteko batenak, esaterako, berdinak dira?**

Ez dut uste premiak aldatuko zirenik, premia horiek adierazteko, hautemateko eta erantzuteko moduak baizik. Aldaketak batez ere zerikusia dauka testuinguru soziokulturalarekin eta kontzientziarekin. Baina gure erronka da premia horiei dagokion moduan erantzuten jarraitzea. Alde horretatik, adimen emozionalari edo adimen espiritualari azkenaldian

ematen zaion balioa azpimarratzekoa da. Horrek ahalbidetzen du heziketa osoago bat.

**Zer esan nahi duzu umearen barnetasunari buruz diharduzunean?**

Barnetasunak gogora ekartzen dizkigu sakontasuna, oinarriak, erroak... Eta horrek gogora ekartzen dit Francisco Bernardez olerkari argentinarren bertsoa: "Zuhaitza bizi da loretsu, lurpean daukanari esker" ("Lo que el árbol tiene de florido vive de lo que tiene sepultado"). Zentzu horretan, barnetasuna zaintzea da bizimodu osoa ahalbidetzeko baldintza.

**Zela bereizten dituzu barnetasuna, espiritualtasuna eta erlijiotasuna?**

Zentzu batean, barnetasuna eta espiritualtasuna sinonimo moduan har daitezke. Eta kontzeptu bien esanahia izan daiteke gizatasun-sakontasuna edo gizatasun osoa. Batzuetan, erlijiotasun kontzeptuak aurrekoekin antzekotasunik izan dezake. Baina hizkera arruntan, erlijioa da espiritualtasunak hartu duen forma historikoa. Irudi klasikoan arabera, espiritualtasuna da asetzen gaituen ura; oster, erlijioa izango litzaiteke ura batzen duen ontzia. Edo, bestela, espiritualtasuna da denok konpartitzen dugun lurraldea eta erlijioa da orientazio-mapa bat. Horrek azaltzen du izan daitekeela espiritualtasun erlijiosoa, baina baita espiritualtasun laiko bat ere (Mariano Corbi), eta baita espiritualtasun ateo ere (Andre Comte-Sponville). Erlijioek ez dute espiritualtasuna agortzen.

**Zela landu dezakegu espiritualtasuna txikienekin eta zein da hori egiteko adinik egokiena?**  
Ezinbesteko baldintza da pertsona heldua bera, bere barnekotasunaz jabetzea eta horrek ematen dion aberastasunaz gozatea. Izan ere, ezin dezakegu umea lagundu



Enrique Martinez Lozano gurean izango da datorren astean. | GOIENA

guk egindako bidea baino urrutiago. Horretaz gain, umea kontziente izateko moduko espazioak sortu eta praktikak garatu behar dira. Praktika psikologikoez ari gara, adimen emozional eta espiritualaz, umeari bere barnekotasunarekin ohitzen lagunduko

**"Espiritualtasuna oinarritzko dimentsioa da umearendako"**

**"Erabakigarria ez da gertatzen zaiguna, horrekin egiten duguna baizik"**

dioten praktikez, bizi duenari izena jarriz eta hori kudeatzen ikasiz. Barnekotasunaren zaintza edozein adinetan sustatu beharko da, modu eta erreminta egokiek, betiere. Gaur egun, geroago eta programa gehiago daude ume zein nerabeak 3 urtetik 18 urtera bitartean laguntzeko.

**Familian zein lagunarte edo jendartean, ze zailtasun aurkitzen duzu umeen barnekotasuna lantzeko?**

Positibismo eta zientifizismo zaharkituek zipriritindutako medio soziokulturalaren inertzia da oztopo nagusia. Gaur egungo aurkikuntza zientifiko berrienak beste norabide batean badoaz ere, indarrean irauten baitute. Beste arrazoi bat da guraso eta hezitzaileen esperientzia eta kontzientziarik eza alor honetan.

**Argitara eman dituzun 12 liburuen artean, zeinetan lantzen duzu zehazki gai hau?**

*Vida en plenitud. Apuntes para una espiritualidad transreligiosa*, liburuan jorratu dut gaia eta lagungarriak izan daitezkeen pistak ematen saiatu naiz, Madrilgo Editorial PPC argitaletxearen eskutik.

**Umeen barnekotasunaren gaineko proiektu edo esperientziarik ezagutzen duzu Euskal Herrian?**

Euskal Herritik kanpo, badira oso proiektu interesgarriak bi ikastetxe publikotan lantzen dihardutenak: Zaragozako Aulas Felices eta Valentzian ikasturte honetan ezarriko den Escuelas Conscientes. Proiektu zorrotzak dira, oinarri sendokoak eta asko eman dezakete. Lehenengo Martin Seligman-en psikologia positiboan dago oinarrituta; bigarrenak Mindfulness-en garapenean du oinarria. Euskal Herrian nabarmenduko nuke Gasteizko Veracruz ikastetxean egiten ari diren lana barnekotasunaren hezkuntzan oinarritutako programa oso batekin. Aurki, horren gaineko liburu bat argitaratuko dute, Josean Manzanosek idatzia, Khaf argitaletxearekin.

**Txikiengana barnekotasuna lantzeak ze onura ekar diezaiok jendarteari?**

Barnekotasuna eta espiritualtasuna gizatasunaren sinonimo badira, eta kontzeptu horiek aintzat hartzen ez baditugu, gizakiari zerbait kentzen ari gara: oinarritzko atal bat anputatuko diogu eta, ondorioz, huts-sentipena eragingo diogu. Oinarritzko dimentsio bati uko egitera behartuko genuke umea. Espiritualtasuna oinarritzko dimentsioa da, gorpuzduntasuna, afektibotasuna edo sozibilitatea diren moduan. Horregatik da garrantzitsua zaintzea adimen espiritual, dimentsio oinarritzko horiei, dagokion moduan erantzuten laguntzen digulako. Barnetasuna lantzeak laguntzen digu pertsonak askeago, kontzienteago eta solidarioago hazten. Adimen espiritual da gure sakoneko identitatea ezagutu eta bizitzea ahalbidetzen duen gaitasuna. Gizateriak eta planetak etorkizunik badute kontzientziaren eraldaketa bati esker izango da, gauzak aztertu eta bizi izateko beste modu bati bide eginda.

**Arantzazura zatoz bigarren jarraian...**

Aurten krisi pertsonalen gaia jorratuko dugu, nire azken liburuan oinarrituta eta oinarritzko uste sendo bati erreparatuta: "Erabakigarria ez da gertatzen zaiguna, gertatzen zaigunarekin egiten duguna baizik".



**Zatozte Bergarako San Martin Jaietara!  
Irailaren 13tik 16ra**



BERGARAKO UDALA

San Martin plaza • Tel.: 943 77 91 00  
www.bergara.net • bergara@bergara.net





**Ikus itzazu argazkiak, inon baino lehenago Asteleheneko Goienan!**

## UDAKO ARGAZKIEN IX. GOIENA LEHIAKETA

# Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!




Argazki guztiak fotoblog honetan: [blogak.goiena.net/argazkiak](http://blogak.goiena.net/argazkiak)

Baita hemen ere: udakoargazkiak udakoargazkiak



MIKEL SEDANO RUEDA. 2012ko Sari Nagusiaren irabazlea.



MIREIA AGUIRRE. 2012ko bigarren sariaren irabazlea.

**Har ezazu parte!**



GARAZI OLABARRIA. 2012ko hirugarren sariaren irabazlea.

### Oinarriak

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake. Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
  - Egilearen izen-abizenak eta herria.
  - Harremanetarako telefonoa.
  - Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
  - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 5etik irailaren 20ra (biak barne).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean, ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Irakurle/ikusleei aukera emango diegu argazki onenari botoa emateko blogean. Botoa ematen parte hartzen duten guztien artean beste sari bat zozketatuko da.
- Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: [argazkiak@goiena.com](mailto:argazkiak@goiena.com) helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otarora Lizentziaduna 31, Arrasate ARETXABALETA: Basabe poligonoa E05, Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan, gutun-azal batean sartuta, CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPG formatuan.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Beste inon argitaragarbeak izango dira argazkiak.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 7an jakingo dugu, asteleheneko Goiena paperean.

- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera asteleheneko Goiena paperean eta Goiena.net-n sortuko dugun foto-blogean. Goiena telebistan, Facebook-en ([www.facebook.com/udakoargazkiak](http://www.facebook.com/udakoargazkiak)) eta Twitter-en ([www.twitter.com/udakoargazkiak](http://www.twitter.com/udakoargazkiak)) ere erakutsiko dira argazkiak.
- Epaimahaia Goienako kideek eta bailarako argazkilarik profesionalak osatuko dute eta argazkiaren kalitatea, originaltasuna eta balio historikoa hartuko dituzte kontuan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienako artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

#### HAR EZAZU PARTE SARE SOZIALETAN!

- Twitter eta Facebook bidez ere parte har daiteke lehiaketan, honela:
  - **Twitter bidez**, [@udakoargazkiak](https://twitter.com/udakoargazkiak) helbideari aipamena eginda argazkia bidalita, eta argazkiaren deskribapena eginda.
  - **Facebook bidez**, [facebook.com/UdakoArgazkiak](https://facebook.com/UdakoArgazkiak) orriaren horman argazkia partekatuta, eta argazkiaren deskribapena eginda.
- Twitterrez eta Facebookez aurkezten diren argazkiak lehiaketako blogean agertuko dira, baina daukaten kalitatearen arabera argitaratuko dira Goiena paperean. Hau da, ez badaukate paperean argitaratzeko moduko kalitatearik, ez dira argitaratuko euskarri horretan, baina sari nagusirako kontuan hartuko dira.

### Sariak

#### 1. saria

**Nikon D3100 reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Bergarako KB Photoestudio argazki-dendaren eskutik.**

- 14,2 megapixel.
- Full HD bideo-grabazioa.
- 3 hazbeteko pantaila.
- Auto-fokatze sistema, 11 puntukoa.
- ISO 100-3200 sentsibilitatea.
- Integratutako edizio funtzio ugari.



**2. saria:** bi pertsonendako SPA zirkuitua eta asteburuko menua Orioko AISIA hotelean Arrasate Bidaiak-en eskutik.



**3. saria:** bi pertsonendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.



**Herritarren saria:** Google Android sistemadun 7 hazbeteko tableta, Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.



**Boto emaleentzat saria:** Munduko kafe ezberdinen otarrea, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEAK:

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

**KB**  
photoestudio  
[www.kbphotoestudio.com](http://www.kbphotoestudio.com)

ARRASATE BIDAIAK

**GURE AMETSA**  
JATETXEA

Arrasateko hipermerkatua

**EROSKI**

zurekin

**karibu**  
munduko zaporeak  
[karibumundukosaporeak.com](http://karibumundukosaporeak.com)



Amaia  
Txintxurreta  
Kantariko  
aurkezlea



4. edizioa

# Kantari



## BADATOR!

Goiena Komunikazio Taldeak Debagoiengan KANTARI karaoke-ikuskizuna laugarren aldiz antolatu du.

Udazkenean egingo dugu KANTARI. Beraz, Debagoiengan bizi bazara, **2001. eta 2005. urteen artean jaiotzen bazin** eta euskal kantuak abestu eta dantzatzeko prest bazaude, animatu eta eman izena.

Gutxienez hiru laguneko eta gehienez bost laguneko taldeak osatu beharko dituzue. Abestiak zozketa bidez banatuko ditugu.

**Izena emateko azkeneko eguna irailaren 23a izango da.**

Eskoletan banatuko den txartela irailaren 23a baino lehenago eraman behar da leku hauetako batera: **zure eskolako idazkaritzara edo Goienaren edozein egoitzara.**



goienakluba<sup>“</sup>

ETA GOIENA KLUBEKO **BAZKIDEENDAKO**,ESKAINZA BEREZI HAU

**Kantariekin eta Eroski Bidaiekin Port Aventura!**

Zure gurasoak Goiena Klubeko bazkide badira, familia osoarentzako Port Aventuraarako asteburu bat lor dezakezu.

**Ez badira, bazkide egin daitezke etxera eroandako orria beteta.**

Goiena Klubaren gaineko informazioa, gunehonetan:

**[www.goienakluba.com](http://www.goienakluba.com)**

Zozketaren gaineko informazio guztia, berriz, hemen:

**<http://blogak.goiena.net/kantari/>**



Informazio gehiago: 943 25 05 05  
<http://blogak.goiena.net/kantari/>

goiena<sup>“</sup>

# HERRIAK

ARRASATE

## Goikobalura, erromeriara!

Aspaldiko usadioak berreskuratze aldera, erromeria egingo dute bihar Santa Barbaran

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Zuztarrak Errotuz elkarteak, Arrasateko Udalaren eta herriko hainbat kultura eragilerekin batera, aurreko mende erdira arte Arrasaten ospatzen zen erromeria berreskuratze nahia agertu zuten opor aurretik. Bada, bihar da eguna: Goikobalura erromeria bueltatuko da.

Erromeriaren berri beste hainbat datu ikertzen zebiltzala izan zuten Zuztarrak Errotuz elkartekoek, eta hura gaur egunera ekartzea ideia ona iruditu zitzaion, besteak beste, Arrasatek ez duelako erromeria propiorik izan urte askoan. Erromeria XX. mende hasieran egiten zela argi dute, aztertutako dokumentuetan hala azaltzen da-eta, baina ospatzeari noiz utzi zioten ez dago batere argi. Edozelan ere, sekula ez da berandu usadio onak berreskuratze.

### Goikobaluren garrantzia

Erromeriaren beste helburu bat da Goikobaluk aspaldi zuen garrantziaz jabetzea eta, pixkanaka, hori indarberritzea. Izan ere, gaur egun Santa Barbarako parke moduan ezagutzen duguna Arrasateko herriarentzat leku inportantea izan zen.

Egun, jakina da bertan gaztelu edo gotorleku bat egon zela; ezezagunagoa da, ordea, gazteluak harreman zuzena izan zuela Atxorrotzeko gazteluarekin 1200. urtera arte, gutxienez, Gipuzkoako zati handi baten Nafarroako erresumako lan administrazioak bertan egiten ziren-eta.

Horrez gain, 36ko gerran eta Napoleonen garaian ere zeresan handia izan zuen herriaren historian, eta, urteen poderioz, historiaren zati hori ia guztiz galdu da arrasatearren artean. Gaur egun, Arrasate herri



Goikobaluko erromeria aurkeztu zuten eguneko prentsaurrekoa. | GOIENA

### 'GOIKOBALUKO ERROMERIXIE': EGITARUA

**12:00** Kalejira, Seber Altubetik irtenda.

**13:00** Goikobalura igoera.

**13:45** Txalaparta, bertsolariak, dantza, sagardoa eta taloak.

**15:00** Bazkaria.

**16:00** Jolasak eta dantzak.

**18:00** Herriko Plazara jaitsiera eta dantzaldia.

moduan handitzen joan den heinean, sentimendu eta historia hori belaunaldi berriei jakinarazteak duen garrantzia azpimarratu nahi izan dute antolatzaileek. Eta lan horretan lagungarria oso izan daiteke biharko erromeria; aspaldian indarra galdu duen toki hori berriz ere indartzen joatea.

### EGITARUA, ELKARLANEAN EGINA

Biharko, egun osoko egitaraua prestatu dute eta Zuztarrak Errotuz elkartekoek eta Udalekoek, Arrasateko kultura eta gizarte eragileek bertan izan duten garrantzia argi utzi izan nahi dute. Egunean zehar, dantzari, txistulari, bertsolari eta sagardogileek parte hartuko dute, eta hori guztiori elkarlanari esker

lortutakoa dela esan du Kepa Urteagak, Kultura zinegotziak.


### 12:00etan Seber Altubean

Eguerdian ekingo diote erromeriari, Seber Altube plazatik irtenda kalejira eginda. Ordubete geroago, 13:00etan, Herriko Plazatik hasiko dira Goikobalura igotzen eta bertan taldeek protagonismoa hartuko dute dantza, kantu eta kolorez eguna girotzen. Bazkaria, berriz, 15:00etan hasiko da, eta jatekoa norberak etxetik eraman beharrek dela argi utzi dute; gainera, bertan sua egitea guztiz debekatua egongo da. Bazkalostean, musika eta dantzekin jarraituko dute, eta, 18:00 inguruan, Herriko Plazara jaitsiko dira erromeria ezin hobeto amaitzeko, dantzaldiaz lagunduta.

**XABIER ZUBIZARRETA**  
ZUZTARRAK ERROTUZ  
ELKARTEKO KIDEA

"Herriaren historia aztertzea oso garrantzitsua da"

Zergatikera-baki duzue erromeria hau berreskuratzea?



A. ARAMBURUZABALA

Zuztarrak Errotuz elkartearen helburu nagusia herriko historian sakontzea eta gure historiaren irakurketa propioa egitea da. Horretarako, azken hiru urteotan hainbat ekimen antolatu ditugu, eta, orain, Goikobalun ospatzen zen erromeria berreskuratzea tokatzen zen.

### Nola izan zenuten erromeriaren berri?

Beste gauza batzuen gainean arakatu bitartean izan genuen erromeriaren berri, eta herritarrek horrelako ospakizun bat berreskuratzea oso interesgarria iruditu zitzaigun.

### Garrantzitsua da, beraz, herriaren historia aztertzea, ezta?

Bai; esaterako, nik 40 urte nituen arte Goikobaluko gazteluarena kondaira bat zen. Gerora, ordea, frogatuta geratu da bertan gaztelu bat zegoela, dokumentatuta ere badago. Historiaren zati hori, baina, eskolan ezkutatu egin zigten; horregatik, uste dugu azterketa mota hauek oso garrantzitsuak direla.



**zetabi**  
arkitektura bulegoa  
bergara  
943 76 53 09  
zetabi@zetabi.eu

**ZIURTAGIRI ENERGETIKOA**  
ETXEA ALOKATU EDO SALTZEKO BEHARREZKOA  
www.facebook.com/zetabi.arkitektura

**ITE**

ERAIKIA	ITEa
urtea < 1900	2013
1901 - 1940	2014
1941 - 1965	2015

eraikinen azterketa teknikoa

# Iturripe eta Musakola ere, ikasturte berrirako gertu

Bi kiroldegietan obrak egin dituzte udan, zerbitzua hobetzeko asmoz

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

1977ko ekainaren 24an inauguratu zuten Musakolako kiroldegia. Iturripeko kirol guneko kantxa estalia berriagoa da, 1991koa. Bietan, herritarrendako zerbitzua zabaldu eta hobetzeko, hainbat obra egin izan dira eta obra horietako asko egiteko uda denboraldia aprobetxatu da, klub gehienek oporrak hartzen dituzte-eta.

Bada, aurtengo uda ez da salbuespena izan, Iturripen bereziki. Sabaia konpontzen aritu dira Freyssinet enpresakoak, itoginek eragiten zituzten arazoak ekiditeko. Baina ezusteko batek lanak zaildu zituen: abuztuaren 8an kantxako zati handi bat sabai gabe zegoenean euri zaparradak kalte handiak eragin zituen zoruan: "Kantxaren zati handi bat erabat altxatu zen eta dena jaso eta lehortzen utzi behar izan genuen", adierazi du Aukeak.

## Iturripen, aspaldiko arazoekin

Arazoak arazo, atzo ezkeror erabilgarri dago Iturripeko kantxa. Hori bai, Aukearen arabera, aspalditik datorren zoru azpiko



Azken orduko lanak amaituta, atzo ezkeror dago erabilgarri Iturripe. | GOIENA



Musakolan harrera berria jarri dute, "zerbitzua hobetzeko". | JOKIN BEREZIARTUA



Body pump ikastaroa probatu zuten martitzenean. | JOKIN BEREZIARTUA

## Ate irekiak, "probatzeko aukera ona"

Astelehenetik atzora arte ate irekiak izan zituzten Musakolan. Ikasturte berriari begira prestatu duten eskaintzaren berri emateko egunak izan dira. Spinninga, pilatesa, body pumpa, body balancea, aquagyma eta beste hainbat ikastaro probatzeko aukera izan dute herritarrek, doan. Martitzenean body pump ikastaroan parte hartu zuen batek esan zigunez, halako saioak "probatzeko aukera ona" dira. 2013-2014 denboraldirako matrikulazio epea zabalik dago eta izena emateko nahikoa izango da kiroldegiko harrerara jotzea, goizez zein arratsalde. Eskaintzaren berri izateko Udalaren webgunea bisitatzeko aukera dago: [www.arrasate-mondragon.org](http://www.arrasate-mondragon.org).

hezetasunaren arazoa ez da erabat konpondu. Hezetasun horrek kantxaren zoladura mugitzen du, koska batzuk sortuz: "Soluzioa ez da erraza eta ez da merkea. Hori aurreratu digute, zifrarik aipatu gabe, baina esan digute inbertsio handia dela. Horregatik, udan kantxa ahalik eta ondoen uzten saiatu gara".

## Musakolan harrera berria

Bestalde, ikasturte berria harrera zerbitzu berriarekin hasi dute Musakolako kiroldegian. Itxura


berria emateaz gain, orain arte lehen solairuan zegoen bulegoa behera jaitsi dute. Hau da, erabiltzaileek bulegoan egin beharreko tramite guztiak harreraren egin ahalko dituzte aurrerantzean; ikastaroetan izena eman eta abonatu txartela eguneratu, esaterako. Zerbitzu "hobea, gertukoagoa eta erosoagoa" ematea izan da lanon helburua. Harrera txukunago uzteko beste lan batzuk ere egingo dituzte. Era berean, erabiltzaileak asteon hasi dira barruko igerilekuak erabiltzen.

**SIMS**  
**SERVIMASA**  
Sukaldeko altzariak eta osagarriak

**BERGARA**  
Aitziturri 4, 193 posta-kutxa  
Tel.: 943 76 19 95 Faxe: 943 76 07 49  
E-posta: [bergara@servimasa.com](mailto:bergara@servimasa.com)

**LEZO**  
103 industria poligonoa  
Tel.: 943 52 05 00 Faxe: 943 515757  
[www.servimasa.com](http://www.servimasa.com)

**blum**  
**FRANKE**



**Birziklatzeko erraztasunak ematen dizkizugu.**



**Zatoz eta informa zaitez!**



## Birzikleta Azokarako material bilketa bihar, hilaren 17an eta 19an

Egoera onean dagoen edozein material jasoko dute; hilaren 16tik 21era, hiri autobusa doan

J.B. | ARRASATE

Irailaren 16tik 22rako Mugikortasun Astea izango da, autoa utzi eta beste era batera mugitzera ohitzen joateko. Ekintza aipagarrienak datorren aste bukaeran badira ere, Birzikleta Azokarako material bilketa bihar hasiko da -11:00etatik 13:00etara, Udal Azokan-. Hilaren 17an eta 19an -11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara- batuko dute egoera onean eta garbi dagoen materiala: askotariko bizikletak, patinak, kaskoak, belozimetroak, gurpilak, esku-larruak maillotak... Material horri jabeak jarriko dio salneurria eta saltzen ez den materiala eta saldutakoaren zenbatekoa jabeari itzuliko zaio irailaren



Birzikleta Azoka, iaz. | ARTXIBOA

26an Udal Azokan (17:00-19:00). Bestalde, hilaren 16tik 21era hiri autobusa doakoa izango da; adingabeek, ohiko eskola bidaie-tarako ez bada, nagusi batekin joan beharko dute.

## Euskal presoek eskubideen aldeko Elkartasun Eguna izango da bihar

J.B. | ARRASATE

Bihar egingo dute euskal presoek eskubideak aldarrikatzeko Elkartasun Eguna. Antolakuntza taldean aritu den Aitor Urizarrek kontatu digu zein den Arrasateko presoek egoera: "Arrasatek 12 preso ditu egun, Espainian zein Frantzia sakanatuta. Gertuen dagoena 300 kilometrorara dago eta urrutien dagoena, berriz, 1.000 kilometrorara. Gehienak daude egoera txarrean, baina hiru kasu dira bereziki larriak, 197/2006 doktrina aplikatu dietelako: Xabier Urizar *Gautxori*, Luis Mari Azkargorta *Kanto* eta Jesus

Mari Zabarte *Garratz*. Hiruiek kalean egongo beharko lukete aspaldi".

### Musika protagonista

Orain arte ekainean egin izan da Elkartasun Eguna, baina aurten irailean egitea erabaki dute. Egun osoko egitaraua prestatu dute eta musika izango da protagonista: kontzertuak 18 tabernatan eta gaztetxean.

Egitarau osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



## Uribarri-Erguin auzoan jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran

J.B. | ARRASATE

Aste bukaeran izango dira Uribarri-Erguin auzoko jaiak. Gazte talde bat haserre agertu da alkatetzak jaien egitarauan *Erguin* hitza aipatu ez duelako eta idatzi bat bidali diote Kristina Zeziaga auzo-alkateari. Idatzi horretan, "Erguingoa izatearen sentimendua" aipatzen dute: "Beste herri edo auzo batera bizitzera joan zaitezke, baina nongoa zaren galdetzen dizutenean harrotasunez esaten duzu Erguingoa zarela".

Kristina Zeziaga alkateak lasaitasunerako dei egin du: "Orain arte egitarauan *Uribarri-Erguin* jarri izan dugu,

baina auzoaren izena Uribarri da berez. Hala ere, ez dugu liskarretan sartu nahi eta auzoa banandu baino gehiago, batzea da gure asmoa. Erguingoa izatearen sentimendua ulertzen dut, baina sentimendu hori jaiak antolatzeko orduan laguntza emateko erabil dezatela eskatuko nieke. Izan ere, azken sei urteetan ideia berriak jasotzeko dei egin izan dugu, baina ez da inor agertu".

Egitarau osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



# Hondakinen Mahaitik altxatu da PSE-EE, "iruzurra" dela iritzita

Mahaia osatzen duten gainerako taldeek eztabaida berrartzeko eskatu diote

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Asteon egin da Hondakinen Mahaia bigarren bilera eta joan den astetik hona mahaia osaketan gertatu diren aldaketak izan dira albiste. Alderdi sozialistak mahaitik altxatzea erabaki du eta asteon egindako agerraldian Aritz Arrietak bi arrazoi nagusi aipatu ditu erabaki hori argudiatzeko: erabakiak hartzeko duen "gaitasunik eza" eta mahaia beraren osaketa.

Arrietaren arabera, "iruzurra" da Hondakinen Mahaia, bertan hartu beharreko erabakiak lotseleak ez direlako: "Erabakia hartuta dago, eta, alkateak erabaki hori atzera botatzen ez duen bitartean eta mahaia osaketa aldatzen ez bada, alderdi sozialista kanpoan geratuko da".

### Eztabaida berrartzeko gonbita

Eguaztenean bildu zen Hondakinen Mahaia bigarren aldiz. Arrasateko egungo egoera nolakoa den eta egoera hori hobetzeko zer egin daitekeen aztertzen aritu ostean, helburuak finkatzen hasi ziren Bildu eta Aralar, EAJ, Ezker Anitza, Zero Zabor, Arrasate Garbi eta Ekologistak Martxan. PSE-EEk mahaia uzteko hartutako erabakiaren harira, eguazteneko bigarren bileran bildutako ordezkari guztiek honakoa baloratu zuten: "Gaiarekiko arduraz jokatzeko denoi dagokigu, arrasatear guztien interesen mesedetan. Horrenbestez, Hondakinen Mahaia PSE-EE alderdiari gonbita egiten dio erantzukizunez hausnartu eta, gainontzeko alderdi eta eragileekin batera, hondakinen kudeaketari buruzko eztabaida berrartzeko". Datorren asteko bileran helburu zehatzak eta horiek betetzeko epeak finkatuko dituzte.

### Gaia berriz osokora eramatea

Alderdi sozialistak eguazten eguerdian egindako agerraldian, mahaian berriro esertzeko baldintza moduan jarri zuen alkateak gaia berriro ere osokora eramatea. Era berean, mahaian adostu beharreko helburuetan bat etor daitezkeela esan zuen Arrie-

### Oinez, autobusez edo autoz, Arantzazura erromesaldia domekan

Urtero legez, Arrasateko fededunek erromesaldia egingo dute Arantzazura. Domekan izango da; ibilbide osoa oinez egin behar dutenak 06:30ean geratu dira Kontzezino kalean eta autobusez doazenak, berriz, 09:00etan irtengo dira Gari-baitik. Aurten ere Udaltzako ez du modu ofizialean parte hartuko.

ESANAK

"Udalak erabakia hartu duenez, ez dugu ezer esateko mahai horretan"

ARITZ ARRIETA | ALDERDI SOZIALISTA

"Arduraz jokatzeko denoi dagokigu, herritar guztien mesedetan"

HONDAKINEN MAHAIA

tan". Bestalde, "neurriak hartzeko ordua" dela uste du Arrietak: "Egongo dira atez atekoaren aldekoak, baina badakigu Arrasateko gehiengo aurka dagoela. Uste dugu neurriak hartu behar direla eta herritarrek adierazi behar dutela aurka daudela".

### Arrasate Garbi bat egin du

Arrasate Garbi plataformak, bestalde, Hondakinen Mahaian parte hartzea erabaki du, azkenean. Erredakziora bidalitako prentsa oharrean, modu positiboan baloratu zuten astelehenean alkatearekin izandako bilera. Mahai horren osaketari buruzko irizpideekiko desadostasuna mantentzen dute, hau da, ez daude ados Ezker Anitza eta Ekologistak Martxan taldea bertan egotearekin, euren ustez "mahaia eraginkortasuna eta oreka" oztopatzen dutelako. Hala ere, akordio batera heltzeko interes komuna batzea erabaki dutela azaldu dute: "Arrasate Garbi akordio batera heltzeko interes komuna batzea erabaki du, gure arteko aldeak konpondu eta horrela arrasatearren interes orokorren alde egiteko".

tak: "Birziklatzeko helburuetan ados egongo gara eta fiskalitatean ere, seguruenik, adostasunera hel gaitzke. Funtsean, baina, ez gaude ados bilketa atez atekoa izatearekin, eta, Udal Gobernuak erabakia hartu duenez, ez dugu ezer gehiago esateko mahai horre-

## IKASTURTE BERRIAREN HASIERA!!!

### UNIBERTSITATERAKO:

- Ingeniaritza.
- Enpresa ikasketak.

### LEHEN ETA BIGAREN HEZKUNTZA:

- LMH.
- DBH.
- Batxilergoa.

### SARBIDE PROBAK:

- Goi mailako zikloetarako.
- Unibertsitaterako.

### HIZKUNTZAK:

- Ingelesa
  - Ikastaro trinkoak:
    - Pet.
    - First.
    - Advanced.
  - Ahozko aurkezpenak ingelesez.
  - Ingelesa bigarren hizkuntza daukaten irakasleentzako didaktika eta metodologia.
- Alemana.

### ELIKADURA:

- Elikagaien Manipulazaila.



# Emakumeek elikadura subirotasunean izan beharreko tokia aldarri

Txileko eta Euskal Herriko nekazaritza ereduak eta femismoa berbegai izan zituzten Kulturaten

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Bagarak kudeatzen duen GUREZTATU ekimenak Emakume Txokoarekin eta Emausekin batera antolatutako *Feminismotik komunitatera, elikadura burujabetza helburu* berbaldiak jende ugari erakarri zuen Kulturatera eguzten arratsaldean. Gaurko nekazaritza ereduak eta horiek aldatzeko egin beharreko urratsez egin zuten berba, besteak beste, Florencia Arostica txiletarrak eta Maite Aristegi eta Assumpta Aierdi euskaldunek.

## Hiru errealitate, helburu bat

Txileko errealitatea izan zuen hizpide aurrena Arosticak. Anamuri elkarteko lehendakaria da (emakume nekazari eta indigenen nazio erakundea), eta egungo nekazaritza ereduak bertan beharra geratu behar duela eman zuen aditzera. "Eredu industrial eta matxista nagusitzen da. Guk mundu justu baten alde diharduten emakume eraikitzaileak izan gura dugu. Nekazaritza feminismoaren alde egiten dugu; nahiz eta feminismoari berari kutsu negatiboa eman gura izan zaion, horren aldeko apustua egiten dugu".

Bestalde, eta eredu industrial ardatz hartuta, jasangarriagoak diren beste bide batzuk bilatzearen alde azaldu zen. "Erabiltzen diren produktu toxikoek eta kalte handiak eragiten diote lurrari eta jendearen osasunari".

Helburua lortzeko ez dela ezer asmatu behar esan zuen txiletarrak. "Antzinako ereduak berres-



Arostica, Aristegi eta Aierdi, berbaldia hasi aurretik. | Z.V.D.M.

kuratu beharko lirakeke. Galdu egin da lehen nekazaritza zegoen hartu-eman, jakinduria eta partekatzeak. Hazien elkar-trukeak egiteko ohitura zegoen, esate baterako".

Maite Aristegik -baserritarra eta EHNE eta Etxaldeko kidea- ere lehengotara bueltatzeko ideia defendatu zuen. "Izugarri aldatu da baserri eredu. Lehen, bizi zen, ingurukoek zaintzen zuten, helburu nagusia jendearen jaten ematea zen, eta emakume balioak zituen".

Nekazaritza industrialak horiek guztiak alboratu dituela

eta eredu maskulinoak nagusitu direla ekarri zuen gogora Aristegik. Berriz ere oreka bilatzearen alde azaldu zen: "Bakarrik ezin izango dugu, agian, baina elkarrekin bilduz, bai".

Bestalde, Emauseko Elikadura Burujabetza ataleko arduradun Assumpta Aierdik elikadura burujabetzak feminismoarekin duen lotura handiaz egin zien berba Kulturatera bertaratutako: "Lurra banatzea edo legea aldatzea lortzen baldin bada, baina ez baldin badago genero ikuspunturik, ez da benetako aldaketarik izango".



Literaturjauzietan liburuak askatuko dituzte herriko kaleetan. | AED

## IV. Literaturjauziak: modu entretenigarrian literatura herritarrei gerturatzeko asmoz

Liburu-askatzea, ipuin-antzezpena eta Harkaitz Canoren berbaldia antolatu dituzte

Z.V.D.M. | ARRASATE

Literaturjauziak antolatu ditu AEDk laugarrenez, herritarrei literatura gerturatzeko. "Egiteko horretan erakargarritasunak garrantzia dauka, ahalik eta jende gehienarengana iristeko". Hala eman du aditzera euskara elkarteko Itxaro Artolak.

### Tailerra, azoka, antzerkia...

Hilaren 21ean aurreneko ekimenak egingo dituzte. *Egin zure pelikula!* tailerra eskainiko du Ibai Zangitu aretxabaletarrak. "Goizean, gidioak eta muntaia nola egin irakatsiko du. Arratsaldean, berriz, parte-hartzaileek kalera irten eta film bat grabatuko dute". Izen-ematea AEDn egin behar da hilaren 19a baino lehen eta 10 euro ordaindu beharko da.

Egun berean, euskarazko liburu, DVD eta CD azoka egingo dute, Zahar-Berriren alde, Biteri plazaren eta Gazte Bulegoaren artean. AEDk, gainera, saiheski-erre jana prestatuko du, dirua biltzeko.

Hilaren 23an, liburu-askatzea (*bookcrossing*-a) egingo dute. Herrian zehar hainbat autoreren

lanak utziko dituzte, "topatzen dutenek irakurri, gozatu eta berriz askatzeko". Aurretik antolatu izan dute, eta herritarrei adi-adi egoteko gomendioa egiten diete AEDtik, "liburuak dauden tokitik hegan egiten baitute".

Bestalde, zientzia fikziozko ipuin-antzezpena egingo du Mikel Martinez aktoreak hilaren 25ean. *Denboraren korapiloa* izeneko emanaldiak Stanislaw Lem idazlearen obrak ditu oinarri. Kulturaten izango da, 19:00etan, eta modu dibertigarrian ikus-entzuleek literaturaz gozatzeko aukera izango dute".

"Urriaren 3an, aldiz, literatura alde zaharrera eramango dugu. Herriko jendearen laguntza izango dugu. *Hitz Ibiltariak* ari gara antolatzen eta erreztaldia-antzerki moduko zerbait izango da, umorez jantzia. Azken ukituak ematen ari gara".

Amaitzeko, urriaren 9an Harkaitz Cano idazleak berbaldia egingo du Kulturateko areto nagusian, 18:30ean. *Kontakizuna eta Katarsia* izenburua ipini dio, eta hark itxiko du Literaturjauzien egitaraua".

## Astelehenean irekiko dute 2013-2014ko Kulturateko pintura ikastaroetan izena emateko epea

Irailaren 16tik 20ra bitartean eman ahal izango da Kulturateko pintura ikastaroetan izena, 17:00etatik 19:00ak bitartean. Amaia Bengoa izango da irakaslea; irailaren 23an hasiko dituzte eskolak eta ekainera arte arituko dira. Gehienez ere, 20 pertsonako taldeak sortuko dituzte. Helduak astean 3 orduz arituko dira-143 euro izango da matrikulazioa- eta hurrek, berriz, astean ordu eta erdiko eskolak izango dituzte astean zehar -73 euro- zein zapatuetan -95 euro-. Informazio gehiago: 943 25 20 25.

## Herritarrek liztor beltzen habia handiak ikusiz gero Udaltzaingora deitzeko dei egiten du Udalak

Arrasateko Udalak herritarrei gogora ekarri gura die liztor beltzen (asiarren) habia handiak ikusiz gero dei dezatela berehala Udaltzaingora (943 25 20 10). Orain arte, eta ekaina ezker, hamar habia kendu dituzte Arrasaten, horietatik zazpi liztor beltzek egindakoak. Normalean, erreka inguruetan egiten dituzte habiak, ur asko behar izaten dutelako, baina irail inguruan lekualdatu eta zuhaitzetan egiten hasten direla eman dute aditzera Arrasateko Udaletik.



IMANOL GALLEGO

**Kamioi batek su hartu zuen AP-1ean**

Kartoiak garraiatzen zuten kamioi batek su hartu zuen AP-1 autobidean astelehenean. Eibarrerako noranzkoan, San Josepe harrobiaren inguruan gertatu zen eta bidea itxi zuten. Gurpil bat zartatu, sua hasi eta ibilgailua kiskalita geratu zen. Baina, kalteak kalte, zorionez gidariak ez zuen minik hartu.

# Folk eta jazz doinuek itxiko dituzte aurtengo Kulturate Akustikoak

Velez eta Igelaren Banda dira bigarren asteburuko protagonistak

ANDER LARRAÑAGA | ARRASATE

Kulturate Akustikoak kontzertu bildumaren lehen asteburuak Diuke, Olivenza eta Markos Untzeta taldeak ekarri ditu Arrasateko Kulturateko areto nagusira, musika areto bilakatuta.

Kontzertu bilduma horren bosgarren edizioak ireki du irailko kultura eskaintza Arrasaten eta emanaldiok Kulturaten izango dira.

Bigarren astebururako beste bi emanaldi daude antolatuta: Soledad Velez txiletarraren eta Igelaren Banda talde euskaldunaren kontzertuak.

## Jarrita eta lasai entzuteko

Arrasateko Kultura teknikari Karmelo Alberdik hauxe adierazi du: "Normalean entzuten ez dugun musika ekartzea da kontzertu bilduma honen helburua. Musika ezohikoa da; sarritan gurean izaten ez diren musika estiloak entzutera animatuko nuke jendea.

Hain zuzen ere, ordubeteko kontzertuak izaten dira, arratsaldeko zortzietan hasita, eta lasai



Soledad Velez, gitarra eskuan duela. | SOLEDAD VELEZ

eta jarrita entzuteko. Kultura teknikariak azaldu duenez, halako musika talde horiei leku bat eskaini nahi izan diete, euren musika erakusteko. Horrez gain, azpimarratzekoa da kontzertu

bilduma horretarako sarrerak doakoak direla.

## Soledad Velezen folk doinuak

Esan bezala, asteburuan Kulturate Akustikoek bi kontzertu

eskainiko dituzte. Gaur, Murtzia-tik datorren Soledad Velez txiletarra arituko da Kulturaten. Folk doinuak Janis Joplinen antzeko ahots indartsuarekin uztartzen dituen abeslaria da Velez.

Nahiz eta normalean bikote moduan aritu abeslariaren izena daraman taldea, gaur, bateria jotzailearen laguntzarekin ere izango da Arrasaten.

## Euskaldunek ireki eta itxi

Asteburuko bigarren eta kontzertu bildumaren azken kontzertua Igelaren Bandak emango du eta haiekin itxiko dira aurtengo Kulturate Akustikoak. Kontzertu bilduma Markos Untzeta talde euskaldunak ireki zuen joan den egubakoitzean, hilaren 6an, eta, hori dela eta, Kultura teknikariak egoki ikusi du beste talde euskaldun batek ixtea. Beraz, domekan, hilaren 15ean, izango da emanaldia, 20:00etan, beste guztiak bezalaxe.

Bada, Udazabalerako Jose Letona plazan antolatuta zuten kontzertua bertan behera utzi behar izan zuten, eguraldiagatik, eta, oraingoan, Kulturate Akustikoak kontzertu bildumari esker bueltatu dira Arrasatera.

Euskal musika tradizionalen oinarritutako talde instrumentala da; betiere, euren jazz-zerzeladak nabarmen direla.

Oskorriko taldekide ohi Bixente Martinezek gidatutako taldea Hasier Oleaga bateria jotzaileak eta Amair Cajaravill biolontxelo eta kontrabaxu jotzaileak osatzen dute. Alberdiren esanetan, "Oleaga bateria jotzaile onenetakoa da Euskal Herrian eta Cajaravill musika klasikotik dator. Nahasketa horrek ematen dio berezitasuna taldeari."

## Besaide Mendizale Elkartek irteera eta ikastaroak antolatu ditu irailerako

Mendi irteerak, Besaideko Oroimen Eguna eta orientazio ikastaroak

ANDER LARRAÑAGA | ARRASATE

Besaide MEK hainbat irteera, ikastaro eta ekimen prestatu ditu hilabete honetarako, elkarreko bazkideendako.

Antolatutako ekintzen artean, mendiko bizikleta irteera bat, hiru mendi irteera -Besaideko Oroimen Eguna da bat- eta mendiko orientazioaren gaineko pare bat ikastaro borobildu ditu mendizale elkarteak.

## Mendi irteerak

Irailerako lau mendi irteera daude antolatuta Besaide Mendizale Elkartearen eskutik; batzuk Euskal Herrian izango dira eta bat, Leonen.

Lehenengoa irailaren 15ean, domekan, izango da eta aipaturiko Besaideko Oroimen Eguna ospatuko dute. 1995a ezker, urtero legez, mendian istripuan hildako euskal mendizaleak agurtzeko asmoz antolatzen den eguna da hori. Aramaioko Orixol Mendizale Elkartea denez antolatzailea, elkarre horretako kideak ere han izango dira.

Egitarruari dagokionez, meza izango da 11:00etan eta ordu erdi geroago omenaldia egingo dute Orixol Mendizale Elkartearen

dakariaren hitzaldiarekin, bertsolariarekin, txistulariarekin... Goizean trikitilari eta txalapartariak arituko dira eta txosna bat egongo janarekin eta edariekin.

Irailaren 22an, Bizkaiko biraren 17. etapa (Ubidea-Urkiola) egingo da eta izena emateko epea irailaren 16tik 18ra bitartean izango da, 19:30etik 20:30era.

Hirugarren irteera Leongo mendietara egingo da, irailaren 28an eta 29an, eta irailaren 23tik 25era bitartean eman beharko da izena, 19:30etik 20:30era.

Azken irteera mendiko bizikleta irteera izango da eta Aizkorri buelta emateko asmoa dago (autoak Arantzazun utzita). Irailaren 21ean izango da eta Garibaitik irteera, 09:00etan.

## Ez galtzeko ikastaroak

Gipuzkoako Mendizale Federazioak antolatuta, mendiko orientazio ikastaro bi eskainiko ditu Besaide Mendizale Elkarteak: bata, irailaren 28an eta 29an; eta bestea, urriaren 5ean eta 6an.

Lehenengoa iparrorrazaren bidezko orientazio ikastaroa izango da, Aiako Harrian, Irunen. Federatuendako prezioa 65 euro

izango da eta federatuta ez daudenentako, 80 euro. Mailari dagokionez, edozeinendako ikastaroa da, hasiberriendako pentasatuta baitago.

Bigarren ikastaroa GPS bidezko orientazio ikastaroa izango da, Adarran, Andoainen. Trebakuntza ikastaroa izango da hori; beraz, ez da hasiberriendako moduko ikastaroa.

Ikastaro horietan izena emateko edota informazio gehiago jasotzeko, Gipuzkoako Mendizale Federaziora jo behar da.

## 'Pitxi' Herreroren oroimenezko eskubaloi txapelketa asteburuan

ANDER LARRAÑAGA | ARRASATE

Bihar, hilak 14, hasiko da Arrasateko Iturripe kiroldegian Jesus Maria Herrero *Pitxi*-ren oroimenezko eskubaloi txapelketa eta domekan amaituko da.

## Partiduak


Bihar lehenengo bi finalerdiak jokatu dira: alde batetik, 16:00etan, Somos Eibar Eskubaloi taldea eta Alcorta Forging Group Elgoibar taldeak arituko dira nor baino nor gehiago; eta bestetik, 17:45ean, Ford Mugarri Arrasate eta Tolosa CF taldeek jokatu dute partidua finale-rako sailkatzeko asmoz.

Domekan, hilaren 15ean, goizean jokatu dira partidua: 10:30ean, hirugarren eta laugarren sailkatuak erabakitzeko partidua izango da.

Eta jarraian, eguerdiko hamabietan, Jesus Maria Herreroren oroimenezko XI. txapelketaren finala izango da, bihar finalerako sailkatuko diren bi taldeekin.

## Gonbidapena

Arrasate Eskubaloi Taldeko kideek eskubaloi gustuko duten guztiei egiten diete gonbita txapelketara joateko, giroa alaitzeko asmoz.



# Abian da ETEOko eraikinean zer egin erabakitzekeo prozesua

Abendura arte, behintzat, Bagarak bideratuko du prozesu hori

TXOMIN MADINA | OÑATI

Oñatiko Udalak hiru urte hutsik daroan ETEOko eraikinarekin zer egin erabakitzekeo prozesua jarri du abian.

Asmoa da 4.000 metro koadro dituen eraikina kultura eragileendako, sortzaileendako eta artistendako gune izatea. "Duela bi urte programa landu genuenean, ETEOri bizitza eman beharra aztertzen genuen. Aldi berean, herriko kultur talde eta bestelako gizarte mugimenduen partetik euren beharrezan asetzeko eskaerak jaso ditugu. Ikusi dugu bi gaiak uztartu egin daitezkeela, eta horri bidea ematen hasi gara", dio Kultura batzordeburu Nerea Zubia zinegotziak.

Zubiaren esanetan, baina, helburua ez da ETEOko eraikinean dagoen espazio guztia betetzea, ezta bere arkitektura baldintzaile izatea ere: "Esan dezakegu herrian espazio zabal bat daukagula gune konkretu baten, eta horrek eskaintzen dituen aukerak aztertu gura ditugu".

## Bagara bideratzailea

Prozesua gidatzeko, abendura arte, behintzat, Bagara kontratatu du Udalak. "Guk kultura eta sormenerako espazio moduan ikusten dugun arren, ez dago erabakita. Herriko beharrak aztertu gura ditugu, eta horren arabera egin aurrera", azaltzen du Zubiak, eta gaineratu Udalak, dituen baliabideekin, ez duela horretarako gaitasunik.

Prozesua, gainera, beharrezan materialei erantzungo dien zerbaitez izateaz gain, ikasketarako bidea izatea ere gura dute. "Lan egiteko ereduak aztertu gura ditugu, herriko taldeen artean sareak



Johana Olabarria eta Nerea Zubia ETEOko eraikinaren aurrean. | T.M.

JOHANA OLABARRIA | BAGARAKO KIDEA

## "Prozesu honek komunitate moduan elkar ezagutzeko aukera ematen digu"

Egun kanpoan bizi den oñatiarra ekainean hasi zen ETEOren inguruko prozesuan lanean.

### Zer egin duzu orain arte?

Lehenengo lana izan da herrian dagoenaren kontzientzia hartzea. Ekainean eta uztailean kontrastatze lanak egin ditugu: udal teknikariekin, orain arte herrian lanean egon den kultura lantaldearekin eta kultura inguruko mugimendu eta norbanakorekin.

### Zer erantzun izan duzu?

Askotarikoak, eragile bakoitzak bere ezaugarriak eta errealitatea dituelako. Batzuk etorkizuna beste era batera lantzeko ideiarekin daude; baina ETEO espazio edo leku soil bat bezala ikusten dutenen aldetik



T.M.

elkarrekin ekiteko borondatea ere ikusi dut.

### Diozu prozesu hau konplexuagoa baina era berean aberatsagoa dela. Zergatik?

Elkarrekin egiten delako. Buru bat gauza bati buruz pentsatzen badabil, ideia batzuk izan ditzake; hogeitak, askoz gehiago. Komunitate moduan elkar ezagutzeko aukera ematen digu; eta jendeari gauzen inguruan hausnartzeko aukera ematen badiogu, beste erantzukizun batekin hartzen ditu horrelako proiektuak. Eraldaketa ere ekar dezake, eta hori herritarrek eginda, beste gauza batzuetarako sustraiak bota ditzake.

### Nola ikusten duzu Oñatiko kultur mugimendua?

Mugimendu handia dago. Akaso ez dute elkarren arteko harreman handirik, baina aniztasun handia dago, eta horrek esan nahi du energia asko dagoela.

sortu, horren inguruan hausnartu... Prozesu honek horretarako aukera ematen digu. Bagararen lana ezagutzen genuen, eta ikusten genuen bere filosofiak guztiz bat egiten zuela gura genuenekin", azaltzen du Nerea Zubiak. Udalak eragile moduan hartuko du parte prozesuan.

Bagararen aldetik, Johana Olabarria hartuko du prozesuaren ardura. "Hasiara baten, lehen fasea, gizarteratze fasea da egingo duguna", dio Olabarriak. Haren esanetan, horrelako proiektu batek baditu oinarrian hainbat kontzeptu; lehenengo eta behin, herrigintza: "Uste dugu horrelako proiektu baten herriak berak hartu behar duela lekua eta erantzukizuna".

Gauzak horrela, lehenengo fase honetan, herrian mugitzen diren talde, norbanako edo mugimenduei ETEOn sortuko den aukera aurkeztea, iritziak jasotzea eta elkarriketarako sortzea izango da egin beharrekoa, Bagarako kidearen esanetan. Sortzaileekin egindako lehen hartu-emanek dagoeneko eman dute fruitua, prozesuak badu eta leloa: *Sormenari helduz, sortzera (h)eltzia*, hain zuzen ere.

## Ekainerako, definituta

Epeei dagokienez, gizarteratze faseak abendura arte iraungo du, eta asmoa da hor jasotakoarekin ETEOren izaera eta edukia ekainerako definituta izatea.

Oraingoan, lehen faserako 30.000 euro bideratu ditu Udalak. "Dauden beharren arabera, datozen urteetako aurrekontuak lantzen goazen heinean ikusiko dugu urte bakoitzean zenbat bideratuko dugun ETEOra", azaltzen du Nerea Zubiak.

## ESANAK

"Prozesua ikasketarako bidea izatea ere gura dugu"

NEREA ZUBIA | ZINEGOTZIA



MIREN ARREGI

## Skateparkeak, harrera ona

Abuztu erdialdean amaitu zituzten Ibarren dagoen skate parkea egiteko lanak, eta ordutik hona asko ibili dira bertan jolasean. Bada, bertako arauak azaltzen dituen kartela jarri berri dute, eta oraindik ere skate parkearen inguruko lorezaintza lanak egitea falta da.

## Domekatik aurrera ez da soroslerik egongo Usakon

Domeka izango da, aurten behintzat, Usakon sorosleak egongo diren azken eguna. Txandaka lanean sei sorosle ibili dira aurten bertan, eta, Oscar Carrascal Kirol teknikariaren esanetan, sorosleek zauriren bat edo beste artatu behar izan duten arren, gertakari azpimarragarri bakarra egon da: abuztuaren lehen gazte batek orkatila hautsi zuen. "Nahiko balorazio positiboa egiten dugu. Izan ere, nabaritu dugu Oñatira etortzeko bidegorria zabaldu izanak izan duela eraginik, jende nahikotxo egon da-eta. Eta eguraldi onak ere lagundu du", dio Carrascalek.

## Natur Eskolako teilatua konpontzeko lanetan dabilta egunotan

Natur Eskolako eraikinaren teilatua konpontzeko lanak hasi dituzte asteon. "Hezetasunarekin eta arazoak genituen. Eraikinak ez du teilarik, tela asfaltikoa baizik, eta hori konpontzea da egiten dabilta, datozen urteetarako prest uzteko", azaldu du Natur Eskolako Jon Betanzosek. Konponteta lan horiek ez dute luze joko, datorren astan amaituta egotea espero dute-eta. Lanon aurrekontua 10.400 euro gehi BEZa da. Langileak, bitartean, ikasturte berrirako eraikina atontzen eta materiala prestatzen dabilta. Natur Eskola dagoeneko zabalik dagoen arren, irailaren azken astean hasiko dira ikaste-teeetako bisitak hartzen.

## Auzo konposta egiten dutenek, %25eko hobaria zabor tasan

Auzo edo auto-konposta egiten duten 495 herritarrek zabor tasan %25eko hobaria jasoko dute. Tasa murrizketa hori hirugarren hiruhilekoari dagokion ordainagirian aplikatzeko bitartekoak egingo dira. Izan ere, Gipuzkoako Urak enpresa arduratzen da Oñatin ur-ordainagiriarekin batera zabor tasa kobratzeaz, eta Udal Gobernu Taldeak onartu dituen eskaeren berri emango diote hobaria aplikatzeko. 516 herritarrek bete zuten hobari-eskaera orria eta gehienak onartu dira. Ukatu diren kasuetan, etxebizitzan inor erroldatuta ez egotea izan da arrazoia.





Hamar oñatiarrak Bartzelonan. | FELI ZUMALDE



Oñatiarrak giza katean señerari eusten. | KONTXI ZELAI

# Oñatiarrak Kataluniako giza katean, independentziaren alde

Euskal Herritik bi autobus joan ziren kataluniarrei elkartasuna adieraztera

IRATI GOITIA | OÑATI

Irailaren 11n Kataluniara begira izan ziren asko eta asko. Kataluniako Biltzar Nazionalak deituta, 400 kilometroko giza katea osatu zuten 1.600.000 lagunek –Generallitatearen arabera– Kataluniako iparraldetik hegoaldera, Diada egunez.

Kolore gorria eta horia izan ziren nagusi, esteladekin batera, baina ikurrinak ere ikusi ziren. Izan ere, Euskal Herritik bi autobus joan ziren Bartzelonara kataluniarrei elkartasuna adieraztera eta giza katean parte hartzera; tartean, hamar laguneko oñatiar taldea.

## Euskal Herritik bi autobus

Eguazten goizaldean irten ziren oñatiarrak Katalunia aldera: "Gasteizen hartu genuen Bilbotik zetorren autobusa. Beste bat Donos-

tiatik irten zen eta hori Iruñetik pasatu zen jendea jasotzera. Behin Bartzelonara iristean, bakoitzak ikurrina bana bizkarrean hartu eta egiaztagirien bila joan ginen. Oso ondo zuten dena antolatuta. Taldeak egin zizkiguten eta bakoitzari arduradun bana jarri", kon-

tatu digu bertan izan zen Elena Bengoa oñatiarrak.

## "Zirraragarria izan zen"

Euskaldunak, tartean oñatiarrak, Katalunia plazan izan ziren: "Gu giza katearen alde banatan egon ginen señera luze-luze bat eskue-

tan hartuta eta katea erdian. Zirraragarria izan zen. Telebistan -eta ikusten da zer izan zen, baina bertan egotea berezia izan zen. Gainera, pantaila erraldoi bat zegoen plazan eta Katalunia guztian katea nola egiten zihozten ikusteko aukera izan genuen. Oso polita izan zen".

## Bi herrialderen elkartasuna

"Gaurkoa egun berezia eta garrantzitsua izan da. Eta nik uste dut guk ere ikusi eta ikasi dugula nola egin gauzak", adierazi digu Bengoak. Izan ere, Kataluniara joan ziren oñatiar asko Oñatiko Gure Esku Dago ekimenean ari dira lanean eta erronka garrantzitsua dute hurrengo urterako: giza kate erraldoia egin nahi dute Durangotik Iruñera, 2014ko ekainaren 8an. "Gu gaur Bartzelonan izan gara kataluniarrei laguntzen, bultzada bat ematen. Baliteke, baina, eurek ere laguntza eskaintzea guri datorren urtean. Herrien arteko elkartasuna da".

Bideoa ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



## Gure Esku Dago taldearen aurkezpena

Hogei pertsona inguru dabilta Oñatin Gure Esku Dago ekimenaren barruan lanean eta azken asteotan buru-belarri dabilta taldearen aurkezpena gertatzen. Irailaren 21ean izango da, 12:30ean. Etxaluz eta Kale Zaharretik artzain euskaldun bat eta katalan bat abiatuko dira –irailaren 22an artzain-txakurren txapelketa dela aprobeztatuta– eta plazan elkartzeko dira. Bertan egingo dute ekitaldi nagusia.

Bestalde, Herri Eguneko herri bazkarian zerbitzari lanak egingo dituzte dirua batzeko, eta jende bila dabilta. Hona idatzi behar da: [onatiko.gure.esku.dago@gmail.com](mailto:onatiko.gure.esku.dago@gmail.com).

## Aire garbiago baten alde, utzi motordun ibilgailuak albora

I.G. | OÑATI

Mugi zaitzez aire garbiago baten alde lelopean Mugikortasun Astea antolatu dute hilaren 19tik 21era Udalak eta Txirrinka elkarteak elkarlanean. Mugikortasun jasangarriaren alde hainbat ekintza antolatu dituzte eta panel informatiboak jarriko dituzte herriko hainbat txokotan; haien helburua da bizikletan aritzen direnen, oinezkoen eta gidarien arteko elkarbizitza sustatzea.

Bada, egubakoitzean ibilgai-luentzako itxita egongo dira: Kale Zaharra, Kale Barria, Atzeko kalea, Euskadi etorbidea, Portu kalea, Lope de Agirre eta Ramon Irizar.

## MUGIKORTASUN ASTEA

### IRAILAK 19

20:00 Film labur emanaldia, Lazarraga parkean.

### IRAILAK 20

07:00-09:00 Oinez edo bizikletan lanera edo eskolara dozenei gosaria.

18:00 Bisita gidatua bizikletaz, plazatik hasita.

### IRAILAK 21

10:00 Bizikleta tailer soziala (izena emateko: 943 71 82 57).

## Torturak utzitako 'Barruko arrastuak', dokumentalean

I.G. | OÑATI

Oñatiko Euskal Memoria taldeak herrian frankismo garaitik gaur egunera arte izan diren atxilotuen zerrenda egin du; baita torturatuak izan direnen testigantzak jaso ere. Hala, 168 atxiloturen izen-abizenak batu dituzte; horietako 26 emakumezkoak. Bost hamarkadatan atxilotuak izan diren horietatik 59k torturak bizi izan dituztela onartu dutela jakinarazi dute taldeko kideek.

## Testigantzak dokumentalean

Bada, egin dituzten elkarrizketak batzuekin dokumental bat egitea erabaki zuten, eta, hain-

bat hilabetetako lanaren ostean, *Barruko arrastuak* izeneko dokumentala aurkeztuko dute hilaren 18an kultura etxean, 19:00etan. Irudiz-eko Kepa Aranburu oñatiarrak zuzendu du.

## "Egia ezagutzera ematea"

"Tortura eta errealtate hau inguratuta dagoen zigorgabetasunaren egia ezagutzera beharrezkoa denez, dokumentalaren aurkezpena egitea erabaki dugu", adierazi digute taldetik. Eta, hain zuzen, gaineratu dute ondorengo belaunaldiek gertatutakoaren egia ezagutzeko bide bakarra memoria historikoa berreskuratzea dela.

## Trikiti doinuak Lizargaratekoen eskutik, bihar

I.G. | OÑATI

Lizargarate trikitizale elkar-tearen eguna ospatuko dute zapatu arratsaldean, eta, noski, ez da trikiti doinurik falta izango, baina beste ekintza batzuk ere antolatu dituzte. Hala, haurrendako tailerrak izango dira, 18:00etan hasita: aurpegia margotzeko eta eskulanak (giltzatakoak eta brotzeak) egiteko aukera izango da agustindarren eta institutuaren arteko gunean. Ume ausartenentzako berriz, bi traktore ere izango dira. Atzealdeko gurdira igo eta ibilalditxo bat egiten ahal izango dute. Iluntzean, 20:00etan, erromeria izango da Bide Batez taldearekin eta gaua ere haiek girotuko dute goizaldera arte. Txosna ere jarriko dute Lizargarate trikitizale elkarteak.

## Urteurrenean, bizi eta gazte dago Antixena gaztetxea

I.G. | OÑATI

Antixenako gaztetxearen urteurrena ospatzeko ekintzak antolatu dituzte gaurko. 19:00etan, pintxoak eskainiko dituzte gaztetxean bertan eta ondoren, triki-poteoa egingo dute herriko tabernetan. Gauerako, kontzertuak antolatu dituzte. 22:00etan hasiko da Egurra eta Kitto taldea gaua girotzen eta gero, erromeria izango da. Sarrera hiru euro da.

Gaztetxetik lehen urtearen balorazio positiboa egiten dute: "Ekintza ugari egin dira urte osoan: kontzertuak, hitzaldiak, bideo emanaldiak...". Onartu digute, baina, ekintzetan beti batzen den arren jendea, batzarretan egin duela parte-hartzeak zertxobait behera. Hala, jaien ostean, batzar berezia egingo dute eta gazte guztiei egiten diete parte-hartzeko deialdia.

ENGLISH-KIDS

Ingelesa:  
3-12 urte bitartean.

Metodoa:  
Britainia Handiko ikastetxeetako.

www.english-kids.es  
Tel.: 680 39 80 22  
Oñati

## Ruper Ordorikak gaztelekuan joko du datorren egubakoitzean, hilaren 20an

O.E. | OÑATI

Kontzertua egingo du Ruper Ordorikak Oñatin datorren astean. Egubakoitzean izango da, hilak 20, gaztelekuan, 22:30ean. Disko berriaren bezperatan emandako kontzertua izango da, urriaren hasieran irtengo da eta haren azken lana: *Azukre koxkorak*.

Disko berria tributu-album moduan definitu dute; hau da,

beste talde edo artista batzuen kantuak bere egingo ditu, *Sarri Sarri*-rekin egin duen moduan. Toots & the Maytals jamaikarren *Chatty Chatty* kantuaren moldaketa ere egin du, country-western eremura eramanda.

### Sarrerak, gaztelekuan

Gaztelekuko kontzerturako sarrerak hantxe salduko dituzte, 8 eurotan, egunean bertan.

## Joseba B. Lenoir nafarrak kontzertua egingo du domekan Pako tabernan, gitarra lagun duela

Joseba B. Lenoir musikariak kontzertua egingo du Pako tabernan domekan. Antolatzaileen esanetan, rock-and-roll garratzenetik abiatuta, beste hainbat soinu eta estilo garatu ditu bere ibilbidean. Gaineratu dute ez dela entzuteko musikaririk errazena, eta agian ez dela arrakastatsuenen artean izango, baina sortzen dituen atmosfera horietatik ihes egitea ez dela batere erraza izango.

## Auzo-bazkaria, patata-tortilla lehiaketa eta I. mendi bizikleta zeharkaldia, Arantzazu auzoko jaietan

Auzoko jaiak ospatuko dituzte asteburu honetan Arantzazun, eta gaurtik, egubakoitza, domekara bitarterako egitaraua prestatu dute. Auzo-etxean egingo duten patata-tortilla lehiaketak eta mus txapelketak emango diete hasiera jaietako gaur. Bihar, Arantzazuko I. mendiko bizikleta zeharkaldia, triki-poteoa eta auzo-bazkaria egingo dute. Domekan, meza, auzoko presoei omenaldia eta herri kirolak auzo-etxean. Umeendako txokoa ere egongo da.

## Mus txapelketako V. San Migel saria jokatu da hilaren 21ean Kale Zaharreko plazatxoan

Aurtengo San Migel eta Errosario jaien barruan, mus txapelketako V. San Migel saria jokatu da. Irailaren 21ean izango da, datorren zapatuan. Kale Zaharreko plazatxoan izango da txapelketa. Bikoteak 30 euro ordaindu beharko ditu txapelketan parte hartzeko eta izen-ematea egunean bertan izango da. Sari asko egongo dira; tartean, 200 euro herriko lehen bikotearendako.

# Oñatin jokatu da Euskadiko arku tiroketa txapelketa

Irailaren 22an izango da, Zozopasen, V. San Migel sariarekin batera

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Euskadiko arku tiroketa txapelketa jokatu da datorren domekan, irailaren 22an, Oñatin. "V. San Migel saria ere egun eta toki berean jokatu da. Euskadiko txapelketa Gipuzkoan antolatzea tokatzen zen aurtan, eta ikusi genuen aukera ona izan zitekeela Oñatin egitea, irailean egin ohi izan dugun herriko txapelketarekin batera. Proposamena egin genien, eta onartu egin dute", dio Txantxiku Arkulariak taldeko Gorka Bikuñak.

### Zozopasen

San Migel sariak bezala, Euskadiko txapelketa ere Zozopasen jokatu dute, Arantzazun, Bello-tza aldean. "Proba bakarrean jokatu dira sari biak. Basoan zehar prestatuko dugun ibilbide baten lehiatuko dira parte-hartzaileak, baina probek ez dute demaseko zailtasunik izango. Goiz osokoa izango da, hori bai. 09:30ean hasiko da eta eguerdira arte iraungo du", zehaztu du Bikuñak.

Txapelketa biak Txantxiku Arkulariak taldeak antolatuko ditu, eta horretan dihardute. "Ibilbidea zehazteko edo probak



Euskal Ligaren barruan, 2012ko martxoan, Zozopasen. | TXANTXIKU ARKULARIAK

jartzeko, esaterako, ez dugu laguntzarik behar, moldatzen gara, inguruko laguntzarekin, hori bai. Hala ere, proba ikustera doazen herritarrendako mezua zabaldu gura dugu: ez daitezela bakarrik ibili basoan zehar, beste norbaitekin baizik. Ez proba arriskutsua izango delako, badaezpada neurri gisa baizik", dio Gorka Bikuñak.

### Erakustaldia ere bai

60 parte-hartzaile inguru espero dituzte antolatzaileek. "Hego Eus-

kal Herriatik ez ezik, Burgostik, Errioxatik eta Kantabriatik ere etorriko dira. Euskadiko txapelketan parte hartzeko, baina, Euskadiko lizentzia behar da. "Beraz, posible da txapelketa biak lagun bakarrik irabaztea edo bakoitzak bere irabazlea izatea", zehaztu du Bikuñak.

Egun 20 lagun inguru dira Txantxiku Arkulariak taldean eta egubakoitz iluntzeetan elkar-tzen dira ETEO atzeko kantxan. Arkuarekin tiratzen ikasi gura duen edonor joan daiteke.

## 500 ume inguru elkartuko dira domekan Haurren Egunean

O.E. | OÑATI

Gipuzkoko, Bizkaiko eta Nafarroako 13 dantza talde etorriko dira domekan Oñatira, 43. Haurren Eguneran; 500 ume, guztira.

Oñatiko Oñatz taldeko 200 ume dantzari gain, Oñatin izango dira domekan: Lizarrako Ibai Ega taldea, Antzuolako Oinarin, Sestaoko Salleko, Zumarragako Irrintzi, Zarauzko Jalgi, Arrasateko Txikitxu eta Lore Gazteak, Gernikako Alai, Soralezeko Urrats, Legazpiko Korosti, Aretxabaletako Leizarra eta, azkenik, aurtan lehenengo aldiz etorriko den Zestoako Itxaropena dantza taldeko umeak.

### Alkate txikiaren agurra

Urtero egin ohi duten moduan, aurtan ere Arboledan egingo dute ongietorria kanpoko taldeei, 10:15ean. Ogitartekoa jan ostean, alkate txikiaren agurra egingo dute Foruen plazan, 12:00etan. Jon Irazabal izango da aurtengo alkate txikia. Segidan, ibilaldia egingo dute ume guztiek herriko kaleetan zehar. Arratsaldean alardea egingo dute. Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegira joango dira.

Bestalde, erraldoiak eta txorimaloak ere ibiliko dira kaleetan gora eta behera. 18:30ean izango da hori.

## Astelehenean hasiko dira kirol ikastaroak

O.E. | OÑATI

Astelehenean, hilak 16, hasiko dute ikasturte berria Zubikoa kiroldegian. 2013-2014 denboraldian 12 bat jarduerak eskainiko ditu kiroldegiko udal zerbitzuak. Ate irekiak egin dituzte aste honetan, jarduerak horiek hobeto ezagutzeko; gaur da azken eguna izena emateko. Ikasturtea astelehenean hasiko da. Bestalde, bihar, martitzena, da azken eguna ur-jardueretan izena emateko. Hilaren 20an behin-behineko zerrendak aterako dituzte.

**ESPOLON**



School of English

**BERGARA**  
Ibargarai 31. Barruko Plaza  
Tel.: 943 76 03 53 • 943 53 29 65

**ANTZUOLA**  
Errekalde auzoa  
Tel.: 943 76 03 53 • 943 53 29 65  
Faxa: 943 76 03 53  
espolon@euskalnet.net

## INGELES KLASEAK

- Maila guztiak
- Umeak (4 urtetik aurrera)

**Goizez, arratsaldez  
eta eguerdiz**

## BERGARA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

---

*Sukalde eta bainu enzimarak*

---

Urate 8 BERGARA  
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47  
Faxa: 943 76 04 77

## disdira

ile-apaindegia  
edertze gela

---

Masterreka 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55

## Kabutzia

ARRANDEGIA

---

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62



## Burdiñate

Puente al Inglés  
Akademia

---

**Ingelesko klaseak • Azterketa ofizialean prestaketa  
Eskolen errefortzua**

*Informa zaitez konpromiso gabe!*

Tel.: 943 54 09 12 - Burdiñate 5 behea, BERGARA

# Berrikuntzak San Martinetako ferian, bazkarian eta danborradan

Seminarioko postuak Ariznoa eta Monzon plazetara igoko dituzte

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

San Martin jaiak ospatuko dira asteburuan, eta ez datoz berrikuntza gutxirekin. Ekitaldi ia guztiak bihurtik astelehenera izango diren arren, egun hauetan Moises Aspiazuren omenez egiten den bikote nagusiendako 29. dantza solte txapelketa gaur, egubakoitza, jokatu da. 19:00etan izango da, Udal Pilotalekuan, Moiazpi dantza elkarteak antolatuta, eta 13 bikotek hartuko dute parte –bergararik ez dago.

## Feria, berrantolatuta

Bihar, zapatua, bete-betean murgilduko gara jaietan. Ohi bezala, barazki, fruta eta gazta lehiaketa irekiko dute 10:00etan, berrikuntza nabarmen batekin, gainera: postuen antolaketa berria. Hain zuzen, Seminarioan ez dute posturik jarriko, eta Ariznoa eta Monzon plazetan jarriko dituzte. Hain zuzen, San Martin eta Munibe plazetan, lehiaketan parte hartuko duten fruta eta barazki postuak egongo dira; gazta lehiaketako postuak Munibe plazan jarriko dituzte; eta Monzon eta Ariznoa plazetan baserriko produktuen gainerako postuak egongo direla aurreratu dute Udal arduradunek. Urtero jartzen diren bi txosnei dagokienez, herriko harategietako odolosten txosnak San Martin plazan jarraituko du, baina taloena Ariznoa plazara lekualdatuko dute.



Sagarrak saltzen San Martin plazan, iazko ferian. | JULIO CALLEJA

Antolaketa berriarekin alde zaharrari bultzada eman nahi diote Udaletik. "Indarberritzeko beste ahalegin bat" dela azaldu

du Maren Belastegi zinegotziak.

Nagusien danborradan –domeka, 22:30– ere badira nobedadeak.

*Nagasaki* doinua ekialdeko koreografiak lagunduta egingo da, bere garaian hala estreinatu zelako. Horretarako, *Peter Pan* musikaleko koreografo eta dantzariaren laguntza izan du Udalak: Eibarko Irene Hermandorena. San Martinen errepresentazioa ere egingo da, iaz bezala. Umeen danborrada astelehenean izango da, 18:30ean.

## Egindako lana eskertuko diete

Regino Valle, Carlos Arrondo eta Felipe Altuna omendu egingo ditu Udalak bihar, zapatua. San Martin feria antolatzen 20 urtetik gora daramate, eta egindako lana eskertu nahi die Udalak.

Omenaldia 13:30eko barazki, fruta eta gazta lehiaketetako sari-banaketa ostean izango da, San Martin plazan. Aurrekoa, alkatearen esker hitzak eta plaka oroigarria jasoko dituzte.

**Egitarau osoa:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



## Sutegiak eta larrain-dantza

Berrikuntzen artean, zapatuko Txomingeroen bazkarirako sutegiak laga ditu Udalak, urteroko mahai eta bankuekin batera, bazkaria lrala kalean prestatu nahi dutenendako. 160 lagunendako lekua egongo da, norberak eroan behar du bazkaria eta 14:30ean hasiko da.

Larrain-dantza da aurtengo beste berrikuntzetako bat. Hori ere zapatuan izango da, 19:30ean, San Martin plazan, eta interesa duten herritar guztiek har dezakete parte.

## Ekitaldi ugari gaztetxean

Bihar, zapatua, 00:00etatik aurrera. Sasi DJ txapelketa egingo dute. Txapelketan apuntatzeko ez da ezer berezirik behar, musika *pendrive* batean eroatearekin eta gaztetxeko kortexoko zerrendan izena ematearekin nahikoa da. Gauaren amaieran sari banaketa egingo dute. Domekan, DJ Crazy Palmera egongo da eta astelehenean, berriz, bandaren kontzertura joateko dei egin dute, "Gaztetxeruntz martxari jarraipen berezia" egiteko.

## Ludoteka kalera, Munibe plazara, aterako dute hilaren 17tik 20ra bitartean

M.B. | BERGARA

Datorren astean barrena, kalera aterako dute Agorrosingo ludoteka. Hilaren 17tik 20ra bitartean Munibe plazan egongo dira Jarduneko begiraleak ludotekarekin, 17:00etatik 19:00etara, bertan eskaintzen dituzten zerbitzuak ezagutzera emateko asmoarekin.

## Jolasak eta tailerrak

Lau egun horietan askotariko ekintzak egingo dituzte: hilaren 17an, kareta eta antifazen tailerra; hilaren 18an, hainbat jolas; hilaren 19an, txapa tailerra eta jolasak; eta hilaren 20an, berriz, aurpegia margotzeko aukera izango dute bertaraten diren ume guztiek.

## Doako bisita gidatuak eskainiko ditu bitu bihar eta etzi Turismo Bulegoak

M.B. | BERGARA

Europako Ondarearen Jardunaldiak ospatuko dira asteburuan, eta, horren harira, doako bisita gidatuak eskainiko dituzte bihar, zapatua, eta etzi, domeka, Turismo Bulegoan.

Hilaren 14an, Ariznoako San Pedro parrokian doako bisita gidatua egin ahal izango

da: 10:30ean euskarazko bisita egingo dute eta 16:00etan, berriz, gaztelarazko bisita izango da. Hilaren 15ean, berriz, hirigune historikoan barrena egin ahal izango da doako bisita. Bakarra izango da, 11:30ean.

Bisitak Turismo Bulegotik abiatuko dira eta komenigarria da aurrez izena ematea.

## Agorrosin itxita egongo da 16tik 22ra, garbiketa asteagatik

Agorrosindik jakinarazi duteenez, ekintzagunea itxita egongo da –taberna ere bai– hilaren 16tik 22ra bitartean ohiko garbiketa egiteko. Dena den, martitzenetik egubakoitzera, 12:00etatik 18:00etara, harrera zabalik egongo da informazioa emateko eta izen-ematea egin ahal izateko.



estudio@beb-ark.com



IÑAKI BERASATEGI  
ELISABETH ENA  
XABIER BERASATEGI  
IÑAKI ARREGI

943 76 03 46



ERAIKINEN AZTERKETA TEKNIKOAK

Barrenkale 7

Bergara

# Urrian hasiko duten 35/02 epaiketa salatu dute Artatsen

San Martin jaietan herria kolore laranjaz betetzeko eskatu diete herritarrei

MIREN ARREGI | BERGARA

Urriaren 17an hasiko den 35/2002 epaiketa salatu dute Bergarako ezker abertzaleko kideek Artatse elkartearen. *Herriko tabernen auzia* moduan ezagutzen den horretan, 37 lagun eta 110 herriko taberna epaituko dituzte, ETA finantzatzea egotzita. Artatseko agerraldian egon zirenek esan zuten lan politiko eta sozial hutsa egiteagatik epaituko dituztela pertsona horiek guztiak.

## Erantzule zibil moduan

Artatse elkartearen erantzule zibil moduan Auzitegi Nazionalera deitzen duen zitazioa esku artean zutela eta laranja kolorez jantzita egin zuten agerraldia. *Herriko tabernen auzia* izenez ezagutzen den 35/02 epaiketa salatu zuten modu horretan. HBko, Batasuneko eta EHko 37 lagun epaituko dituzte sumario horren barruan, baita 110 herriko taberna eta elkarte ere. Bada, Artatse, beste hainbat herriko taberna eta elkarterekin batera, ateak itxiarazteko arriskuan dagoela gogorarazi zuten agerraldian, eta baita Arrano taberna ere.



Artatse elkartearen egin zuten agerraldia martitzenean. | MIREN ARREGI

Agerraldian salatu zuten bake eta konponbiderako bidean oztopo larria direla udazkenean hasiko dituzten makro-epaiketak, tartean 35/02 sumarioarena. Eta gogoan izan zituzten euskal herritik urrun dauden euskal herritarrak; bereziki gogoan izan zuten etxean preso duten Jose Luis Elkoro bergararra. Gogora ekarri zuten Elkoro ez dutela herriko tabernen auzian epaituko eta ondorioz ez duela Madrilera joan beharrik izango.

## Kalera, laranja kolorez jantzita

Aste bukaeran ospatuko dituzten San Martin jaietan hainbat ekimen egingo dituzte makro-epaiketa salatzeko; esaterako, herritarrei dei egin diete kalera laranja kolorez jantzita ateratzeko. Zapi eta kamiseta laranjak Arrano tabernan egongo dira salgai baina laranja den edozerk balioko du ekimenarekin bat egiteko. Horrekin batera, epaiketaren kostuei aurre egiteko txosna ipiniko dute eta bonuak ere salduko dituzte.



Bergarako Orfeoi Gaztea osatzen duten neska-mutikoak. | KARLOS ETXANIZ

## Nagore Sanzek zuzenduko du Orfeoi Gaztea aurrerantzean

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Bergarako Orfeoi Gazteak irailaren 23an hasiko du kurtsoa, eta aurten berritasunekin hasiko du, gainera. Aurrerantzean Nagore Sanz izango da taldeko zuzendaria.

## 25 laguneko taldea

25 lagunek osatuko dute Orfeoi Gaztea, baina oraindik badago izena emateko aukera. Interesatuak [bergarakoorfoia@gmail.com](mailto:bergarakoorfoia@gmail.com) helbidera idatz daiteke, edo 639 47 18 63ra deitu (baita WhatsApp edo SMS bidez)

Proiektuak, Musika Eskolarekin elkarlanean, bi helburu ditu: batetik, kantu-zaletasuna suspertzea; eta bestetik, Berga-

rako Musika Eskolako haur abesbatzen eta Bergarako Orfeoiaren artean zubi-lana egitea. Orfeoiko entseguak astelehenetan izaten dira eta ordu eta erdi irauten dute (ordutegia zehazteke dagoen arren, 20:15 inguruan izango dela azaldu dute). Kantatzea gustuko dutenei astelehenetan 20:15etik 21:45era Santa Marinako sakristau etxera joateko gonbita egin diete.

## Sanzen ibilbidea

Sanz, Bergarako Musika Eskolako eta Soralezko musika eskolako irakaslea izateaz gain, Bergarako Orkestra Sinfoniko presidentea ere izan da.

## Ordiziako gazta irabazlea

Bolintxo okindegiak erosi du eguaztenean Ordiziako Azokan egin zuten lehiaketako gazta irabazlea 7.500 eurotan. Ricardo Remiro Agirre Eunateko artzainaren gazta erdia da. Victoriano Arizabaletak azaldu du ondo aholkatuta joan zirela enkantera. Gazta erdia Arrasateko eta Bergarako okindegietan jarriko dute ikusgai.



ARANTZAZU EZKIBEL



MIZPIRUALDE EGOITZA

## Gregoriak 100 urte bete zituen domekan

Gregoria Arietaleanizbeaskoak 100 urte bete zituen joan den domekan, irailaren 8an. Lagunen eta senitartekoen bisita izan zuen Arietaleanizbeaskoak egun berezian, eta zorion agur asko jaso zituen. Mizpirualde egoitzan elkartu ziren guztiak, 100 urteak behar bezala ospatzeko. Udalaren izenean Jaione Isazelaia alkateak lore sorta eskaini zion Arietaleanizbeaskoa andreari. Zorionak, bada, Gregoria!

**Felsinee-ren 5. urteurrena laster!**  
Eskerrik asko, gudan jarritako konfiantzagatik eta zuen fideltasunagatik.

**Oso ondo pasau San Martinetan!**

[www.felsinee.net](http://www.felsinee.net)

**Felsinee**

Ibargarai Etorbidea 17, behea  
20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 53 44 53

# Nazioarteko xakelarien lehia etzi Bergara Hiria torneoan

Domeka goizean taldekako txapelketa izango da eta arratsaldean, nazioartekoa

XABIER URZELAI | BERGARA

San Martin jaien barruan jokatuko dute aurten ere Bergara Hiria xake torneoa, eta antolatzaileek 120 xakelari inguru batzea espero dute: "Ez dugu gehiagorako gaitasunik, eta kopuru polita da hori. Leku falta dugu, eta xakelari gehiago ekartzeko aurrekontua ere handiagoa izan behar da", diosku antolatzaile lanetan dabilen Miguel Angel Muelak.

Goizean, 10:00etan hasi eta 14:00ak bitartean taldekako Bergara Hiria torneoa jokatuko dute: Euskal Herri mailako talde onen-

ESANAK

**"Maila oso oneko xakelariak izango dira Bergara Hirian, nazioarteko maisuak"**

MIGUEL A. MUELA | ANTOLATZAILEA

tsuenak izango dira, tartean Setao eta Gros moduko taldeak.

**Kanpokoak ere bai**

Euskal Herriko xakelariez batera, kanpoko ordezkariak ere izango da torneoan, Asturias, Kantabria, Gaztela Leon edo Aragoiko taldeak ere izango direlako Bergaran. Eta noski, horien kontra Bergarako Atletiko Zaleak taldekoak lehiatuko dira: "Gure xakelariei ez diegu eskatuko aurrean ibiltzea [Barre], gu xake-zaleak baino ez garelako, ez xakelari profesionalak, baina ea



A. Hoffman –ezkerrean– izango da, besteak beste, Bergaran. | TABLADEFLANDES

Begarako ordezkariak lan txukuna egiten duten".

**Maisuak, arratsaldean**

Bazkalostean, 16:00etatik 21:00ak bitartean Nazioarteko Xake Txapelketa jokatuko dute; hor, Euskal Herrikoekin batera nazioar-

teko maisuak ere lehiatuko dira: "Strikovic edota Alejandro Hoffman moduko nazioarteko maisuak izango dira, eta eurekin lehiatzen Euskal Herriko Inigo Argandoña edota David Astasio moduko xakelariak. Maila oso oneko jendea izango da".

## 'Osina' gogoan Pirinioetan

Pol-Pol mendi taldeko betanoek Jose Antonio Zeziaga laguna ondo gogoan izan zuten asteburuan Pirinioetara egindako irteeran. *Osina* uztailean hil zen, eta urtean irteerak antolatzen ibili zen lagunari omenalditxo egin zioten. Argazkian, bergararrak Midi Bigorreko behatokian.



## Gazte mailako pilota partidua jokatuko dute gaur Angiozarren

Herriko pilotariak hasi dira denboraldi berriari begira lanean. Hala, gaur, egubakoitzan, 20:00etan, bigarren mailako gazteen partidua jokatuko dute, Añorgakoen kontra. Hitzordua, baina, Angiozarko pilotalekuan izango da, Udal Pilotalekuan dantza txapelketa dago eta.

50 urte

**metagra**

gure aukera

# 'Jar Gaitezen': etorkizuneko herria marrazten joateko tresna berria

Prozesu parte-hartzailea aurkeztuko dute egunean (hilak 19) Arkupen

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Aretxabaletari buruzko zer-nolako irudia daukate herritarrek? Zertan hobe daiteke? Zer aldatu beharko litzateke? Zer mantendu eta zer sustatu? Horri guztiorri erantzuteko asmoz, Aretxabaletako Udalak Bagararen laguntzarekin *Jar gaitezen* ekimena abiarazi du eta jendaurrean aurkeztuko dute datorren egunean, irailak 19, Arkupen.

## Diagnosi komunitarioa

Ekimenaren jatorria iazko aurrekontu parte-hartzailean dagoela eman du aditzera Bagarako Arkaitz Biainek: "Parte-hartze bidez 2013ko aurrekontuen ildo zehaztu zen. Dinamikari jarraipena eman gura izan diogu, eta, orain, herriko beharrei kasu egingo diegu".

Diagnosi komunitarioa egitea izango da, beraz, oraingo asmo nagusia. "Herritarrekin batera Aretxabaletaren argazki bat atera gura dugu, herriaren egoera zein den eta zer behar dauden ikusi eta gerora egin beharreko lana zehazteko". Hala, ahalik eta sektore gehienek parte hartzea gurako luketela eman du aditzera Biainek, "emaitza ahalik eta anitzena izan dadin".

Ana Bolinaga alkateak, bestalde, nabarmendu gura izan du garrantzitsua dela horrelako proiektuetan herritarrekin batera aritzea. "Aretxabaleta eraiki-



Bolinaga alkatea, Bagarako Biainekin eta Agirrerekin. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

tze prozesu honetan zer-nolako herria gura dugun marraztuko dugu guztion artean. Baina ez dugu gauza fisikoez bakarrik berba egingo; kultura, historia, hezkuntza, berdintasuna, justizia eta askatasuna ere esku artean izango ditugu, esaterako".

## Lantaldetan banatuta

Maiatza eta uztaila bitartean hasi ziren prozesua zehazten: "Orduan,

## ESANAK

**"Zer-nolako herria gura dugun marraztuko dugu denon artean"**

ANA BOLINAGA | ALKATEA

**"Hainbat sektorek parte hartzea gura dugu, emaitza anitza izateko"**

ARKAITZ BIAIN | BAGARA

herriko eragileekin bilerak egin genituen, eta, hain zuzen, haiek esandakoek gure lan ildoak zeintzuk izango diren finkatzen lagundu digute".

Iraila eta azaroa bitartean, berriz, beste urrats bat egingo dute *Jar Gaitezen* egitasmoan: herritarrez osatutako lau lantalde sortuko dituzte eta bakoitzean hainbat esparru jorratuko dira. Lehenengoan, euskara, hezkuntza eta gazteria arloak egongo dira; bigarrenean, hirigintza eta ingurumena; kultura, kirola eta herri bizitza hirugarrenean; eta, azkenik, sozioekonomia eta ongizatea laugarrenean.

Bilerak egingo dituzte ondoren talde horietan, "pare bat bakoitzean". Eta irteten diren ondorioekin lan ildo batzuk zehaztuko dituzte, azaroa eta urtarrila bitartean. "Orduan, helburuak lortzeko herritik zer egin daitekeen ikusiko da; eta *herritik* esaterakoan, Udalarena izan daiteke aurrera eramateko ardura, baina baita norbanako zein eragileena ere".

## Taldeak, askotarikoak

*Jar Gaitezen* prozesuan sortuko diren taldeak askotarikoak izatea gura dute ekimenaren sustatzaileek. "Ez dugu gura alor horietan adituak edo beti nahasita egon direnek soilik parte hartzea, horrek asko mugatuko bailuke emaitza. Herritarrek eurek erabaki dezakete non parte hartu".

Bolinagak, bestalde, Udalak talde horietan izango duen zereginaz egin du berba: "Gu herritar bezala beste herritarrekin arituko gara, maila berean, eta ez, sarritan, administrazioaren eta herriaren artean izaten den egitura piramidalean".

Proiektuaren xehetasun gehiago irailaren 16an emango dituzte, 18:30ean hasita, Arkupen.

## Yoga saioak egingo dituzte irailean Aretxabaletan

Irailean yoga ikastaroak egingo dituzte, Aredhana yoga-psikoterapia zentroak antolatuta. Bi egunean eskainiko dira: martitzenetan 10:00etan, 17:30ean eta 20:00etan hasiko dira eta eguenean, berriz, 10:00etan eta 17:00etan. Izena emateko 616 96 57 95 telefono-ra deitu behar da.

## Gaur emango diete hasiera karateko entrenamenduei

Gaur, egubakoitza, emango diete hasiera UDAko karate taldekoek entrenamenduei. Gazteenak -5-11 urte artekoak- 18:00etatik 19:00ak bitartean elkartuko dira; 19:30etik 20:45ak bitartean 12 urtetik gorakoak. Entrenamenduak Ibarra kiroldegian izango dira, martitzen eta egubakoitzetan.

## Bazkide kanpaina abiarazi du Kuku Mikuk ikasturte hasieran

Z.V.D.M. | ARETXABALETAKO

Kuku Mikuk bazkide kanpaina ipini du martxan; 0 eta 6 urte bitarteko haurrak dituztenak hilaren 16tik urriaren 7ra egin daitezke bazkide. Ikasturteko kuota 30 euro izango da.

Bestalde, ate irekien eguna ere antolatu dute elkar ezagutzeko:

urriaren 4an, 17:30ean hasita. "Eta gainera, gure jarduera auzolanen eta batzar bidez garatzen dugu eta aurrenekoa urriaren 20an izango da".

## Haurren hezkuntza ardatz

Bestalde, 0-3 eta 3-6 urte arteko haurren hazkuntzarako laguntza

taldeak sortuko dituzte hirugarren urtez. Hilean behin elkartuko dira, goiz zein arratsalde, eta hainbat gai landuko dituzte: loa, negarra, edoskitzaroa... "Herrikoek zein kanpokoek har dezakete parte, irekia da".

Hitzaldia ere antolatu dute. Amalur Amatasunaren Laguntza Zentroko Ana Bacigalupe eman gura du, hilaren 23an, 10:30ean eta 18:00etan. Goizez joateko asmoa izanez gero, [kukumikuelkartea@gmail.com](mailto:kukumikuelkartea@gmail.com) helbidera idatzi.

Jou Diaz  
Harakina  
Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETAKO

Mobiliario  
ARENZA  
ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA  
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETAKO

PIENSOS  
SUNZUE S.A.

## FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea  
ARETXABALETAKO  
Tel.: 943 77 00 33 / 943 79 42 56



Ibilera nordikoa kalean egiten, makilekin. | PICAFORT

## Izen-ematea zabalik eskaintza berria duen kiroldegian

Ibilera nordikoa, korrika taldea eta euskal dantzak dira aurten prestatutako berrikuntzak

IURE EIZAGIRRE | ARETXABALETA

Denok estreinatu berri dugu ikasturtea eta Aretxabaletako kiroldegia ere horretan dabil. 2013-2014 denboraldirako kirol ekintzen programa prest du eta aurreko ikasturtearekin alderatuta, zenbait berrikuntza ditu eskaintzak, bai egin ahal izango diren kirol jardueri dagokionez bai orduetegi dagokionez. Kirol berriak eta saio gehiago izango dira, beraz, zabaldu egin da eskaintza.

Maiatzean eta ekainean gero eta zale gehiago dituen ibilera nordikoa probatzeko aukera eskaini zuen kiroldegia, eta, izandako erantzuna onaren ondorioz, orain ikastaro moduan sartu dute kirol eskaintzan. Martitzen eta eguen arratsaldetara emango dute. Gauza bera gertatu da korrika taldearekin eta hau ere astean bi egunetan (astelehen eta eguztenetan) egin ahal izango da.

Igeriketako entrenamenduak ere ikasturte berriko nobedadeetako bat dira, euskal dantzekin batera. Kiroldegitik argitu dute euskal dantzak jarduera moduan antolatu dituztela eta ez dutela musika eskolan edo dantza taldean eskain-

tzen diren jardueri eragiteko inolako asmorik.

Bestalde, azken ikasturtean arratsaldean eman duten abdominal hipopresiboaren ikastaroa goizez ere eskainiko dute.

### David Spine Concept

Kirola egitean gorputza zaintzearen garrantzia azpimarratzen da eta asmo horrekin eskainiko dute David Spine Concept zerbitzua Ibarra kiroldegian, Athlon medikuntza zerbitzuekin elkarlanean.

Bizkarreko mina kentzeko teknika da David Spine Concept, eta mugimenduan sendatzea da horren filosofia. Kiroldegian metodologia zehatza jarraituko dute: hasieran bizkarraren egoera (lunbarak, zerbikalak...) aztertuko test bat egingo dute, gero 12 edo 24 saioz osatutako tratamendua jarriko dute martxan eta amaitzeko, azken ebaluazioa egingo dute.

### Izen-ematea zabalik

Kiroldegiko jarduerak astelehenan hasiko dira, baina aurrerago ere, taldeak osatu arte, eman ahal izango da izena kiroldegian edo *ibarrakiroldegia.com* webgunean.

## Herriko 13 komertziok deskontu ederrak eskainiko dituzte bihar

Aretxartek Ixadebalde beherapenen azoka antolatu du, beste behin

MIRIAN BITERI | ARETXABALETA

Ixadebalde beherapenen azoka egingo dute bihar, zapatua, herrian. Aretxarte Merkatarien Elkarteak antolatuta, deskontu ederrak topatzeko aukera izango dute erosleek egun osoan; azoka 10:00etatik 20:00etara egongo da zabalik Mitarte kalean.

Edizio honetan herriko 13 komertziok hartuko dute parte; erosleek askotariko produktuak izango dituzte aukeran postuetan, hala nola arropa, osagarriak, zapatak eta baita umeendako jostailuak ere. Eskaintza gehienak amaitzear dagoen udako produktuenak izango badira ere, beste-lako denboraldietakoak ere atzerako dituzte kalera dendariak. Azken horren harira, honakoa azpimarratu gura izan du Aretxarteko presidente Idoia Elexpuruk: "Aurten eguraldiak ez du askorik lagundu; ez dugu udabe-

rririk izan eta uda oso berandu hasi da. Beherapenetan salmentak txarto joan ez badira ere, zer eskaini badugu oraindik, eta hori da, hain justu, Mitarten jarriko duguna, baina baita beste denboraldietako produktuak ere".

### Herriko trikitilariak

Betiko moduan, Ixadebalde azokaren bueltan, askotariko ekintzak izango dira egunean zehar. Muskarik ez da falta izango: 12:30etik 14:00etara, Libe eta Lur herriko trikitilariak Mitarte girotuko dute; eta arratsaldean, 18:00etatik azoka itxi arte, Beñat eta Julene aretxabaletarrek hartuko dute beste bien lekukoa.

Horrez gain, umeendako jolasak eta tailerrak gertatu dituzte oraingoan ere: 17:30etik 20:00etara, besteak beste, aurpegia margotzeko aukera izango dute etxeko txikienek.

### Bazkide txartelak banatzen

Bestalde, UDAkoak gonbidatu dituzte; bazkide txartelak banatzearekin batera, herriko kirol elkartean izena emateko aukera eskainiko dute azokan izango duten postuan.

Edatekoa eta jatekoa ere izango da Aretxartek berak kudeatuko duen tabernatxoan. Gertu eta Brasileña Kafeak dendakoak arduratuko dira mokadutxoak jartzeaz. Eta horrez gain, erosleen artean 150 euroko otarrea zozketatuko dute.

### HERRRIKO 13 DENDA

- ▶ Gertu janari prestatuak
- ▶ Kilima haur denda
- ▶ Zubia zapata denda
- ▶ Asensio arropa denda
- ▶ Belar Meta arropa denda
- ▶ Brasileña kafeak
- ▶ Tinta Beltza inprimategia
- ▶ Amaia ume denda
- ▶ Haurrak haur denda
- ▶ Titade mertzeria
- ▶ M5 kirol denda
- ▶ Benito zapata denda
- ▶ UDA



Joan den irailean egindako Ixadebalde. | GOIENA

## Basotxok aste kulturala ospatuko du bi aste barru

I.E. | ARETXABALETA

Basotxo Erretiratuen eta Pentsionisten Elkarteak aste kulturala ospatuko du irailaren 23tik 28ra. Egunero izango dute ekintzaren bat: 23an argazki lehiaketa aurkeztuko dute, 24an eskulanean erakusketa irekiko dute Basotxon

eta jokoak izango dituzte, 25ean Arkarazo eta Arientza elizetara irteera egin eta arratsaldean Idiazabal gazta aztertu eta probatuko dute, 26an txokolate-jana eta dantzaldia izango dute, 27an *Aretxabaleta atsegina* txostenaren aurkezpena eta pintxo-poteoa egingo

dute, eta 28an, azkenik, San Migel jaiak aprobetxatuta, Eibarko, Arrasateko eta herriko kantu taldeak batuko dira Aretxabaletako kaleetan zehar abesteko.

### Argazki lehiaketa

Aste kulturalaren irekierarekin batera aurkeztuko dute argazki lehiaketa. Pertsona nagusiak ditu gaitzat eta irailaren 16tik 26ra aurkeztu ahal izango dira lanak Basotxo elkartean. Irabazlea hila- ren 27an jakinaraziko dute.



## IXADEBALDE

Aretxabaletako VII. merkealdi azoka

Irailak 14, zapatua. 09:30etatik 20:00etara  
Mitarte kalean (euria eginez gero, Iturigorri pilotalekuan)

- Goizean trikitilariak, haur jolasak eta puzgarriak.
- SARI BAT ZOZKETATUKO DA: Otar polit bat.

ANTOLATZAILEA: LAGUNTZAILEA:



Orly  
Benito oinetakoak  
Amaia ume denda  
Brasileña akeita etxea  
Zubia  
Kilima  
Asensio  
Tinta beltza  
Haurrak  
Gertu  
Belar meta  
U.D.A.  
M5  
Titare

## Auzoko proiektua abian jartzeko dinamizatzailea behar dute

M.B. | ESKORIATZA

Udalak, Euskaltzaleen Topagunearekin elkarlanean, Auzoko proiektua jarriko du martxan datozen hilabeteotan, eta, horretarako, dinamizatzailea behar du. Curriculumak *auzoko@topagunea.org* edo *euskara@eskoriatza.net* helbidera bidali behar dira astelehena, hilak 16, baino lehen.

Auzoko egitasmoaren bidez Euskal Herrira iristen diren lagun berriei euskararen berri eman nahi zaie, eta hizkuntza baliabideak eskura jarri. Elkartrukea lagun artean egitea proposatzen da, ahalik eta modu naturalenean; horretarako, lagun taldeak sortzen dira, eta

batzarretan elkartruke egoerak bultzatu.

Dinamizatzaile lanpostuari dagokionez, Topaguneak egingandako kontratua astean zazpi ordu eta erdiko jarduneko izango da, irailaren erdialdean hasi eta abendu bukaerara arte; urtarrilean jarraitzeko aukera egon daiteke.

Interesatuak honako baldintzak bete behar dituzte: bi hizkuntza ofizialak ondo erabiltzen jakitea, taldeak dinamizatze gaitasuna, hizkuntzekiko sentsibiltatea, harremanetarako gaitasuna, aniztasunarekiko interesa, Eskoriatza ondo ezagutzea eta ordu-tegi malgua izatea.

## Etzira arte bidal daitezke Udako Argazki Lehiaketarako irudiak

M.B. | ESKORIATZA

Ibarraundi museoa II. Udako Argazkien Lehiaketa antolatu du aurten bigarren bezala; eta etzi, domeka, amaitzen da irudiak *ibarraundi@eskoriatza.net* posta elektronikora bidaltzeko epea. Parte hartzeko ez da ezer ordaindu behar, eta edozein eskoriatzarrek har dezake parte, ez da eta adin mugarik jarri.

Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, bi argazki aurkez ditzake; eta horiekin batera honako datu pertsonalak bidali beharko ditu: kontakutua, adina eta izenburua. Jasotako guztietatik Udaleko Garapen

batzordeak 30 aukeratuko ditu eta horiek erakusgai jarriko ditu hilaren 23tik 27ra Ibarraundin. Ikustera joaten direnek botoa eman ahal izango dute museoan bertan, eta baita Facebooken eta Eskoriatzako Udalen webgunearen bidez.

### Urriaren 2an

Urriaren 2an jakinaraziko dira irabazleen izenak. Hiru sari banatuko dira: 15 urtetik beherakoek, 16 eta 49 urte bitartekoek eta hortik gorakoek 50 euroko txartel bana irabaziko dute, herriko merkatarien elkarteak dendetan gastatzeko.

## Kirol jardueretan izena eman daiteke kiroldegian

Gertu dago ikasturte berrirako kirol eskaintza, eta izen-ematea ere zabalik dago. Herriko kiroldegian edo Udalen webgunean (*www.eskoriatza.net*) eman daiteke izena, kontuan izanda izen-ematea osatzen dela ordainketaren agiriarekin batera. Eskolak irailaren 30ean hasiko dira.

## Amuskak gertu ditu urteroko ikastaroak eta antzerki tailerra

Amuska emakumeen elkarteak ere antzerki tailerra eta urteroko ikastaroak antolatu ditu: hain justu, ehoziri-lanak eta bainika, olio-pintura, patchwork, eskulanak eta joskintza. Interesatuak irailaren 23a baino lehen eman behar dute izena. Urritik otsailera bitartean izango dira eskolak.



Urteroko hitzordu bilakatu da Eskoriatza-Arrasate-Eskoriatza bizikleta martxa. | IBARRAUNDI MUSEOA

# Goitibeherek eta bizikletek kaleak hartuko dituzte

Hilaren 18tik 22ra arteko Mugikortasun Astean askotariko ekintzak daude

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Berrikuntzekin dator irailaren 18tik 22ra bitartean egingo den Eskoriatzako Mugikortasun Astea. Hilaren 18an, eguaztena, bizikletak konpontzeko tailerra izango da herriko plazan. Zikloturistak taldeko ordezkariak emango dituzte azalpenak 18:00etan hasiko den tailerrean.

Ibarraundi museoko teknikari Saioa Altzuak, berriz, azaldu digu egunerako goitibehera tailerra antolatu dutela. Ordu eta toki berean izango da Jose Angel Urrutia eskoriatzarrek eskainiko duen saioa. Hain justu, goitibehera zelan egiten den ikasi ahal izango dute tailer horretan parte hartzen dutenek; gainera, emaitza probatzeko aukera ere izango da zapatu egingo den goitibehera lasterketan.

Baina, lasterketa eguna baino lehen, egubakoitzean, hilak 20, skate jaialdia izango da tren geltoki zaharrean. Besteak beste, ume zein gazteei zuzendutako lehiaketak eta *longboard* erakustaldia egingo dituzte han. Sariak ere banatuko dituzte.

### Goitibehera lasterketa

Zapatuan, esan bezala, goitibehera lasterketa egingo dute. Apotzagako jaitsiera erabiliko dute horretarako. Ibarraunditik jakinarazi dute zabalik dagoela horretarako izen-ematea. Federatuek hilaren 18a baino lehen apuntatu behar dute Federazioan eta gainerakoek Jose Angel Urrutiarekin egon behar dute, 687 52 76 63 zenbakira deituta; 16 urtetik beherakoek, gainera, gurasoen baimena behar dute.

Aurtengo Mugikortasun Asteari amaiera borobila emateko, dagoeneko errotuta dagoen ekintza egingo dute irailaren 22an, domeka: Eskoriatza-Arrasate-Eskoriatza bizikleta martxa. 10:00etarako jarri dute hitzordua herriko plazan, eta handik Aretxabaletarantz abiatuko dira, eta hango txirindulariak hartu ostean, Arrasatera joango dira.

### Jolasparkea inauguratu

Bueltan Torrebason egingo dute geldiuena. Parte-hartzaileen artean hamarretakoa banatzearekin batera, abentura jolasparke berria inauguratuko dute.

Bestalde, 18 kilometroko ibilaldia egingo dute; parte hartzen dutenek kaskoa eroan beharko dute eta 10 urtetik beherakoek lagunduta joan beharko dute.

## Gaikako zakarrontzi gehienak daude jarrita

Dagoeneko jarrita daude kaleko hondakinak jasotzeko gaikako zakarrontziak; plaza inguruak baino ez dira falta. Denera, 96 ontzi ipiniko dituzte, herriko 24 lekutan launaka jarrita: horia ontzi arinendako; urdina, paper eta kartoiendako; marroia, organikoendako; eta grisa, errefusarendako. Irudian, liburutegi ondokoak ageri dira.



MIRIAN BITERI

**Frutería MARTIN Frutería**

**FRUTAN ETA TXARKUTERIAN ESPEZIALISTA**

San Juan kalea 12, behea Tel. 652 77 53 58



# Arratoiak ez ugaritzeko neurriak hartzeko deia

Udalak herritarrei eskatu die amuarrainei eta antzarei jatekorik ez botatzeko

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Antzuolako Udalak arratoiendako pozoia banatzea ez litzateke albiste izango, azkenaldian arratoiak ugaritu diren sentazioa herrian hedatuta egongo ez balitz. Baina zenbait auzotako bizilagunekin hitz egitea nahikoa da kezka kalean dagoela konturatzeko. Eta Udala ere jakinaren gainean dago, arratoiak akabatzeko lanean diharduen Rentokil enpresatik adierazi baitiete azkenaldian sarriago etorri behar izan dutela pozoia uztera, jendearen eskaria igo egin delako. Ez da, hala ere, Antzuolako arazo bakarrik, enpresatik azaldu baitute arazo orokorra dela.

Herrian ere, bizilagunek auzo batzuetan bakarrik nabaritzen dute arratoi kopuruaren hazkundera. Antigua auzoan bizi den Florentino Lamarianok, adibidez, dio bere auzo inguruan ez duela halakorik sumatu: "Herrian komentatzen da hor behean arratoi asko ikusten dela. Antiguan arratoiak gordetzeko guneak badaude, arratoi lekua da hau, errota eta hegaztiak ditugu, baina nik ez dut arratoi bat bera ere ikusi aspaldian".

Beheko auzoan galdetuta, berriz, ikuspegia aldatu egiten da. Felipe Fernandez bertako bizilaguna da eta aitortzen du arratoi dezente agertu dela azkenaldian inguruan. Etxe aurrean ikustea ere ohikoa da eurentzat, "zelaian ere ikusten dira eta azpian sartzen dira", argitu du Fernandezek. "Behealdean, ibaiertzean ikusten dira, baita ibaian gorantz egiten ere. Ez dakit lehen jendeak ahatei eta amuarrainei ogi zatiak botatzen zizkielako den, baina ibai inguruan agertu izan dira", azaldu du.

Beste auzotar batek ere berretsi ditu Fernandezek hitzak, bi etxebizitza-blokeren artean ibiltzen direla baieztatuta.

## Udalaren deia

Zenbait herritarrek udaletxera helarazi dute euren kezka eta honek ohiko neurriak hartu ditu, besteak beste, behar duten herritarrei pozoia banatzea eta heskaiak moztu edo kentzea, horien azpian zuloak egiten baitituzte arratoiek. Bere aldetik egindako lanaz gain, herritarrei dei egin die Udalak: ibaiko amuarrainei eta Altzarteko antzarei jaten ez emateko.

Haurren eta helduen entretenigarri izan da animaliei kalean ogi zatiak botatzea eta hauek jan gabeko apurak arratoien elikagai bihurtzen dira, eta horrek arratoi gehiago agertzea eragiten du. Lamarianok beste ikuspegi bat du: "Ahatei ematen zaiena uretan geratzen da eta hor ez da janik egoten arratoientzat. Pipak eta jaten egoten da jendea hemen eta haien azalak egoten dira, ondorioz txoriak ikusten dira", baina dioenez, arratoirik ez.

## Baseri eta ortuetan ere bai

Herrigunean ez ezik, baseri eta landa eremuetan badabilta arratoiak. Fernandezek berak baratza du errepidearen bestaldean eta zera dio: "Nire ondokoak konposta egiteko ontzia du eta ontziaren azpitik ateratzen ikusi izan ditut. Baratzean bertan dagoeneko ereindako babak nituen eta haiek jan zizkidan. Orain alboan txabola duen kide bati agertu zaizkio arratoiak eta behin eta berriro joaten da udaletxera pozoien bila. Herriaren sarrerako ortuetan ere ikusi izan ditut eta baserriren batean oiloaren pentsua jaten ibili izan dira".



Lizarragako bizilagunak errepidea hobetzeko lanetan. | JOXE LUIS ARREGI

## Auzolanean dabilta konpontzen Lizarragara doan errepidea

I.E. | ANTZUOLA

Udalak emandako aurrekontu-saila ondo baino hobeto ari dira aprobetxatzen Lizarraga auzoko bizilagunak; izan ere, errepidea nahiko hondatuta zegoen eta hori konpontzen ari dira auzolanean. "Beharrik handiena non zegoen aztertu genuen, eta, hasteko, bidea berritzea erabaki dugu", azaldu du Joxe Mari Urkiolak, auzolaneako arduradunetako batek.

Duela bi aste hasi ziren lanean lizarragarra. Baseri edo etxe bakoitzeko ordezkari bana batu dira azken bi zapatuetan eta 25 pertsona inguruko taldea osatu dute.

Ura errepidean pilatuta geratzen zen orain arte, eta, hori konpontzeko, bide ondoko arekak txukundu dituzte, urak bere bidea egin dezan. Horrez gain, errepidea hain estua izan-

da ezinezkoa zen bi auto batera pasatzea eta batek beti atzera egin beharra zuen. Beste autoa pasa bitartean zain egoteko bost puntu egokitu dituzte inguruak horretarako aukera ematen zuen lekuetan.

Lanak oso aurreratuta dituzten arren, oraindik badute zereginik lizarragarrek: errepideak zulo asko ditu eta horiek estaltzeko asmoa dute datozen bi asteetan.

## Udala gustura lanekin

Auzolanean ari dira egiten Lizarragako lanak, baina Udalak ere egin du bere ekarpena: 7.000 euro materialak erosteko.

Udaletik adierazi dutenez, gustura daude auzotarren ekimenarekin, bai oraingoarekin, baita beste momentu batzuetan auzolanean egin izan dituzten lanekin ere.



Beheko auzoa: auzotarrek diotenez, arratoiak dabilta ibaiertz eta etxebizitza inguruan. | IURE EIZAGIRRE

## Udalak ez dio helegiterik jarriko auzo-konposterako dirulaguntzari

I.E. | ANTZUOLA

Gipuzkoako Foru Aldundiak hiri hondakinen prebentzioaren eta berrerabilpenaren arloko dirulaguntzak esleituta ditu dagoneko. Antzuolako Udalak auzo-konpost gunea jartzeko dirulaguntza zuen eskatuta, baina Aldundiak ezeztatu egin du eskari hori, aurrekontuko baliabideen

mugak eta beste eskaera batzuen lehentasuna dela eta.

Dirulaguntzen esleipena uztailekoa da eta bi hilabeteko epea aurreikusten zuen erabaki horri helegitea jartzeko. Inma Beristain alkateak azaldu duenez, ordea, Udalak ez du helegiterik aurkeztuko eta datorren urtean helduko dio berriro proiektu horri.

## 180 familia konposta egiten

Antzuolak oraindik ez du auzo-konposta egiteko gunerik, baina, herriaren azalera horretarako aukera ematen duelako-edo, asko dira etxean konposta egiten duten familiak. Beristainek 180 bat familia zenbatu ditu.

Debagoieneko Mankomunitateak egin izan du auzo-konposterako deialdirik Antzuolan, baina ez da familia askorik apuntatu. Bada, hemendik gutxira beste deialdi bat egitea aurreikusten dute.

## 60 ikaslerekin emango diote hasiera astelehenean Xinkonako haurren eskulan ikastaroari

Haurrek berriro ere eskulanak egiteko aukera izango dute astelehenean aurrera Xinkona denda; izan ere, orduan emango diote hasiera hiruhileko ikastaroari. 4 eta 12 urte bitarteko 60 haurrek eman dute izena ikastaroan eta berrerabilitako materialekin zenbait objektu egingo dituzte. Gainera, negua hurbildu ahala osagarriak egingo dituzte.

## Datorren egubakoitzera arte luzatu dute jaietako argazki lehiaketarako lanak aurkezteko epea

Eguaztenean amaitzen zen Antzuolako Udalak antolatutako jaietako argazki lehiaketarako lanak aurkezteko epea, baina beste astebetez luzatu dute eta argazkiak datorren egubakoitza baino lehen eraman beharko dira udaletxera. Aurtengo udako jaietako edozein irudik balio du eta parte-hartzaile bakoitzak hiru lan aurkez ditzake, gehienez. Argazkilaritza eta kultura arloko epaimahaiak erabakiko du irabazlea nor den.

## Erretiratuek egun osoko irteera egingo dute hilaren 18an, Gipuzkoako eta Lapurdiko kosta ezagutzeko

Antzuolako erretiratuen elkarteak beste irteera bat antolatu du hilabete honetarako. Hilaren 18an Hondarribira joango dira eguna pasatzera, baina kostaldeko herri hori baino gehiago ezagutzeko aukera izango dute, goizean Biarritzen ibiliko baitira. Gainera, bisita gidatua egingo dute han Tren Txikian. Bazkaldu ere elkarrekin egingo dute eta arratsaldean euren kabuz ibili ahal izango dira Hondarribian.



Santi Roman zuzendari berria eskolako patioan, asteon ateratako argazkian. | JOKIN BEREZIARTUA

Santi Roman | San Martin eskolako zuzendaria

## "Eskolak herriarekin dituen loturak sendotu egin behar ditu"

- Elorrikoa da eta azken lau ikasturteetan irakasle lanetan aritu da eskolan
- Irailaren 6an hasi zuten ikasturtea; aurten, 144 ikasle eta 19 irakasle

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aurtengoa San Martin eskolan jarraian egiten duen laugarren ikasturtea izango da Santi Romanendako (Elorrio, 1962). Hori bai, ikasturte berria aurrekoak baino lanpetuago hasi du, zalantza barik. Izan ere, orain arte Nekane Arrondok bete duen lekua beteko du, zuzendari kargua. Irailaren 6an hasi zuten ikasturtea eta Haur Hezkuntza zein Lehen Hezkuntza kontuan hartuta, 144 ikasle eta 19 irakasle izango dira aurten.

**Nola amaitu duzu eskolako zuzendari? Zein izan da prozesua?**

Zuzendaritza taldea lau urtean behin berritzen da. Sartzerako doan taldeak proiektu bat aurkezten du eta proiektu horrek iraun behar du lau urte. Jaurlaritzako ikuskariak jarraipena egiten dio proiektu horri eta amaitzen denean beste talde bat sartzen da. Zuzendaritza taldea hiru pertsonen osatzen dute; ni aukeratu ninduten eta gero nik bi aukeratu ditut laguntzaile moduan.

**Eta? Pozik zaude egokitu zaizun kargu berriarekin?**

Irakaskuntza publikoan tokatzen den kargu bat da. Aurten guri tokatu zaigu eta aurrera egin behar dugu gure proiektuarekin. Balorazioak amaitzen dudanean egingo dizkizut.

**Zeintzuk dira ikasturte berriko erronka nagusiak?**

Guretako oso garrantzitsua da elkarbizitza, hau da, eskolako agente eta partaide guztiak kontuan hartzea. Ez bakarrik ikasle eta irakasleak, baizik eta sukaldari, garbitzaile, gidari eta monitorea ere. Guztiok osatzen dugu eskola. Horrekin batera, herriarekin ditugun loturak ere sendotu egin behar ditugu, herri batek

el duelako zentzurik eskola barik, eta alderantziz.

**2013-2014 ikasturterako 144 ikasle eta 19 irakasle dituzue. Pozik zaudete datuokin?**

Ikasle aldetik lan egiteko kopuru egokiak dira. Klase bakoitzean ez dira 20 ikasle baino gehiago eta lan pertsonalizatua egiteko aukera ematen du. Ikasle-ratioa 25 ikaslara handitu dutela jakinda, ezin gara kexatu.

**Murrizketek eraginik izan al dute San Martin eskolan?**

Aipagarriena da eskolaren kudeaketarako diru ekarpena %50 murriztu dela. Horren ondorioz, besteak beste, lehen ikasleek ordaintzen ez zituzten ekintza batzuk orain ordaindu egin behar izan dituzte, irteerak edo barne-tegiak bi urtean behin antolatu behar izan ditugu lehen urtero egiten zirenean... Garraioan eta pertsonalean ere murrizketak egon dira. Orokorrean esanda, batez ere hezkuntzaren kalitatean eragin dute murrizketek.

**Eskolak zertan hobetu du? Zer du hobetzeko?**

Elkarbizitzan asko hobetu dugu-

**"Ikasle, irakasle, garbitzaile, gidari... Guztiok osatzen dugu eskola"**

**"Murrizketek hezkuntzaren kalitatean eragin dute, batez ere"**

la esango nuke. Guraso elkartearekin dugun harremana, esaterako, asko sendotu da azken urteetan. Hori bai, oraindik asko dugu egiteko; saiatzen gara markatu ditugun helburuak betetzen.

Bestalde, obra batzuk egin dira. Adibidez, igogailua egokitu da eta komunak jarri dira –orain solairu bakoitzean dugu komuna; lehen bakarra zegoen-. Baina eraikinak ere badu zertan hobetu, Haur Hezkuntzako eguraldi txarra egiten duenerako ez dute estalkirik, esaterako.

**2012ko udan lan batzuk egin ziren auzolanean. Esperientzia errepikatu al duzue aurten?**

Bai. Krisiaren ondorioz eta Udalak ekarpenik ezin zuenez egin, uztailean guraso eta irakasle batzuk lehen solairua margotzen aritu ziren, auzolanean. Jarrera hori txalotzekoa da.

**Bestalde, jangela eredu aldatzeko lanean ari da guraso elkarte. Zein da zuen egungo eredu?**

Kudeaketa eredu zuzena dugu. Lehen, eskolako bertako arduradunek kudeatzen zuten; eurek erosten zituzten lehengaiak, kalitatezko elikadura bermatuz eta bertako ekonomia sustatuz. Orain, elikaduraz arduratzen den enpresa batek ekartzen ditu lehengaiak eta guk kontrola eramaten dugu. Sukaldariak enpresa horrek ekarritako produktuekin prestatzen du janaria. Hau da, guk ez dugu janaria erosten eta beraz, ez dugu menua erabakitzen. Gai konplikatu da eta badakigu guraso batzuk kezkatuta daudela. Janariaren kalitatea jaitsi egin da eta gure asmoa da lehengo kudeaketa eredu itzultzea. Helburu hori lortu aurretik, baina, bide luzea dago egiteko.

## Mendian hildako mendizaleak gogoratzeko, Besaide Eguna egingo dute domekan

Aurten Orixolek antolatu du; egitaraua, betikoa: meza, omenaldia eta mokadutxorako aukera

J.B. | ARAMAIO

Besaideko Oroimen Eguna izango da domekan. Egun berezia izaten da, mendian hil diren mendizaleak gogora ekartzeko eguna. Aurten Orixol mendizale elkarteari egokitu zaio eguna antolatzea: "Dantzariak aurkitzea izan da lan zailena. Horrek erakusten du ospakizuna antolatzeak ez digula buruhauste handirik sortu". Izan ere, Besaideko mugan dauden Elorrioko, Arrasateko eta Aramaio mendizale elkarteek antolatzen dute Besaide Eguna, urtero elkarte batek.


Egitaraua urterokoa izango da: 11:00etan mendian hildakoen aldeko meza egingo dute eta

11:30ean omenaldia –Euskal Mendi Federazioko presidentek egingo du berba eta bertsolariak, dantzariak, trikitilariak, txalapartariak eta txistulariak ere egingo dira–.

Orixol elkarte arduradunek aurreratu dutenez, txosna txiki bat egingo da Besaiden bertan, salda, txorizo eta edatekoekin.

**Lau federatu hil dira aurten**

2012ko irailaren 16tik federatutako lau mendizale hil dira mendian, Orixolek jakinarazi duenez: Gloria Lazaro (Araba), Benantxio Irureta (Gipuzkoa), Luis Peña (Bizkaia) eta Carlos Imirizaldu (Nafarroa).



Besaideko Oroimen Egunaren aurreko edizioetako bat. | ORIXOL MENDIZALE ELKARTEA

### Kirol Merituaren zilarrezko domina Mainer Undarentzat

Kirol Kontseilu Goreneko presidente Miguel Cardenal Carrok aditzera eman duenez, borrokalari aramaioarra Kirol Merituaren Errege Ordenarako izendatua izan da; zilarrezko dominaren mailan ageriko da bertan, ibilbide arrakastatsuegatik. Urriaren banatuko dituzte sariak.

### Deu H' Hi Do taldearen kontzertua gaur Sastiñan, 20:00etan

Joan den egubakoitzean Jazz 4 Joy talde gasteiztarrek dantzarako giroa sortu zuen Sastiñan. Haur, gazte zein heldu, gustura geratu ziren laukote arabarrak eskainitako saioarekin. Gaur, hori bera egiten saiatuko da Deu H' Hi Do taldea; swing doinuak eskainiko dituzte, 20:00etan hasita.

## Erretiratuen bazkarian izena emateko azken eguna, hilaren 16a

J.B. | ARAMAIO

Alaiak erretiratuen elkarteak urtero antolatzen duen bazkaria irailaren 22an egingo da aurten. Oraindik izena eman ez duenak hilaren 16a baino lehen egin behar du. Antolatzaileek dei egin diete herriko erretiratuei parte hartzerako anima daitezten. Bazkariaren prezioa hamar

eurokoa da eta ordainketa Kutxabank edo Laboral Kutxan egin daiteke.

**Hildakoen aldeko meza**

Egun horretan ohitura denez, hildakoen aldeko meza egingo da San Martin elizan, 12:00etan. Bazkaria 14:30ean izango da, pilotalekuan.

## ELGETA

# 0-14 urte bitarteko umeendako jolasparkea egiten dihardute

Maala parkeak ere badu konponketa beharra; auzolanerako dei egingo dute

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Ikasturte hasiera honetan hesituta dago kiroldegiko jolasgunea. Parkea berritzeko lanak abiarazi ditu Udalak, eta nobedade handiak iragarri ditu.

Lurrarekin egindako betelarenekin handitu egingo da berdegunearen azalera. Gainera, bidegorri itxurako espaloi batek kiroldegiaren sarrera, skate parkea eta jolasparke berria lotuko ditu. Guneak pasealeku itxura hartuko du; Domingo Iturbe kaleko goiko aldean dagoen parkearen antzerakoa.



Lanak Bolatokiko jolasgunean. | L.Z.

## Jolas gehiago

Jolasparkeari dagokionean bi gune izango ditu: 0-5 urte bitarteko umeena, eta 5-14 urte bitartekoena.

Txikien guneak etxetxo bat, hareazko kutxa, bi ziburu eta

jolaserako modulu bat izango ditu. Nagusiagoendako izango den gunean aurreikusten dira piramide bat, zesta itxurako ziburu, txirrista handi bat, txikiagoak

diren beste bi txirrista —aurretik daudenak berreskuratuko dira—, eta jolasguneari abentura parke itxura emango dion 31 metroko tirolina.

## Mahai gehiago

Egurrezko lau mahai daude Bolatokiko parkean, eta guztiak konpontzea erabaki du Udalak. Horrez gain mahai berriak ere ekarriko dituzte. Kantxaren goiko aldean dauden jolasak oso hondatuta daude, eta berreskuratuz ezin direnak kendu egingo dituzte. Litekeena da libre gelditzen den espazio horretan mahaiak ipintzea.

Goitu enpresako beharginek dihardute Bolatokiko parkea berritzeko lanetan. Lanak noiz amaitu dituzten galdetuta Oxel Erostarbe alkateak ez du data zehatzik eman. "Urteko sasoi honetan eguraldiak eragin handia du", adierazi du.

## Auzolanerako deia

"Asmoa da konpon daitezkeen altzari eta jolasak berreskuratzea", adierazi du Erostarbek. Bolatokiko parkean, esaterako, bi txirrista, etxetxo bat eta mahaiak konponduko dituzte.

Maala parkeko jolasguneak ere badu konponketa batzuk egiteko premia. Udalak jakinarazi du iraila amaitu aurretik herritarrei jolas horiek auzolanerako konpontzeko dei egingo diela.

## Hitzaldia, afaria eta kontzertua gaur gaztetxean

L.Z. | ELGETA

ESK sindikatuak gonbidatuta Andaluziako langileen sindikatuko (SAT) bi ordezkari gaztetxean izango dira gaur, barikua. Sindikatuaren nondik norakoak eta azkenaldian aurrera eramandako ekintzak izango dituzte hizpide, 17:00etan hasita.

Gaztetxeek antolatuta afaria eta kontzertua egingo dituzte jarraian. Turboshit, Ez! eta Guaka taldeek joko dute 22:30ean hasiko den kontzertuan. Gogoratu behar da Guaka taldeak herrialde maputxearen aldeko aldarria egiten diharduela herriz herri.

## Domekan, Vespa eta Lambretta motorren txanda

L.Z. | ELGETA

Aurten ere parte-hartze polita espero dute Elgetako Vespa eta Lambretta motorren topaketan. Domekarako, hilak 15, egin dute urteroko hitzordua, zortzigarrena dagoeneko. Motorrak 10:30ean elkartuko dira herriko plazan, eta ikusgai egongo dira eguerdira arte. Jarraian, 65 kilometroko ibilaldia egingo dute denek batera. Bazkariarekin emango diote amaiera 2013ko topaketari. Tarteetan izango dira, nola ez, Elgetako motorzaileak.

## Xalbadorpek deituta elkarretaratzea egin zuten atzo pentsio sistemaren defentsan

L.Z. | ELGETA

Pentsio sisteman aldaketarik ez egiteko Gipuzkoan deitu dituzten mobilizazioekin bat egin zuen atzo Xalbadorpe elkarteak. Hala, 19:00etan elkarretaratzea egin zuten herriko plazan. Pentsio sisteman aplikatu nahi dituzten murrizketen kontra agertu ziren Elgetako erretiratuak.

## Irteera eta podologoia

Hilaren 21eko irteerarako izena eman nahi duten erretiratuak bihar eta etzi izango dute aukera. Xalbadorpeko ordezkariak Ozkarbi elkartearen izango dira 11:00etatik 12:00etara. Podologoaren kontsulta, berriz, hilaren 19an izango da. Interesatuak 943 76 80 77 telefonora deitu behar dute.

## Eskolako neska-mutikoei gaur egingo dute eskola aurreko lanen inaugurazioa

L.Z. | ELGETA

Luze jo dute, baina amaituta daude eskolako aurreko lanak, eta eskolako neska-mutikoei gaur egingo dute inaugurazio ekitaldia. Udalak eskolarekin batera prestatutako ekitaldia 15:55ean hasiko da, eta umeak izango dira protagonista gaurko zinta mozketan.

## Dantzak eta bertsoak

Astebete besterik ez da ikasturtea hasi zenetik, baina irakasleen laguntzarekin ekitalditxo antolatu dute eskolako umeek. Dantzan, kantuan eta bertsoetan egingo dute neska-mutikoei. Herritar guztiak daude ekitaldian parte hartze- ra gonbidatuta.

## Elgetarrak Kontxan

Traineru berdeak jarraitzaile sutsuak ditu Elgetan, eta domekan Donostian izan ziren. Gainerako jarraitzaileek bezala, une gogorak bizi izan zituzten epaileek bandera nork eramango zuen argitu zuten arte. Gero lehertu zen festa, eta arraunlariek elgetarren berotasuna ere sumatu zuten kaian bertan.



GEMA IZAGIRRE

## Frontenis txapelketak hilaren 20tik aurrera izango du jarraipena

Antolatzaileek adierazi duteenez fronteniseko hurrengo partiduak hilaren 20an jokatuko dira. Gabonetako pilota txapelketako antolatzaileak ere hasi dira lanean. Egutegia egiten hasi nahi dute. Hala, parte hartu nahi duten bikoiteek Fernando Zenitagoiaren gana jo behar dute.

## LEINTZ GATZAGA

# Jose Felix Diaz de Tuesta, gatzagarren argazkilaria

ANDER LARRAÑAGA | LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako Udalak eskatuta hasi da Jose Felix Diaz de Tuesta gatzagarrei argazkiak egiten.

Helburua oraindik ez dago finkatuta, baina, seguruena, argitalpen baten moduko proiektua izaten amaituko du.

Joan den asteburuan Gatzagako jaiak izanda aprobetxatu zuen Diaz de Tuestak bertako herritarren aurpegiak erretratatzen. Bada, hemendik bizpahiru astera joango da berriz ere Diaz de Tuesta Gatzagara, proiektu horrekin jarraitzeko asmoz. Zapatu baten joango da, baina alde

aurretik jakinaraziko dizkiete xehetasun guztiak herritarrei, hitzordua zehazteko.

## Sareko argazkilaria

Ogibidez ez da argazkilaria profesionala Jose Felix Diaz de Tuesta, baina sarean eta Debagoienean nahiko ezagun bilakatu dira haren argazkiak.

Sarean *Atauri* moduan ezaguna da eta inguruko txokoetako argazkiak ateratzeko ohitura handia du; argazkiok oso harre- ra ona izaten dute.



Diaz de Tuesta (argazki txikian), gatzagar bati argazkia ateratzen. | IMANOL SORIANO

**FUTBOLA**

# Hastera doa liga

- ▶ Antzuolaren estreinaldia eta Mondrak utzitako hutsunea dira nobedadeak
- ▶ Bergarak eta Aloña Mendik jokatuko dute lehenengoa etxean

**XABIER URZELAI** | ARRASATE

Asteburuan hasiko da futbol ikuskizuna, ohorezko erregionaleko liga. Eta, hainbat nobedadekin etorriko da aurtengo txapelketa; nabarmenenak, Antzuolak kategorian egingo duen debuta eta Mondrak utzitako duen hutsunea.

Ikusi egin beharko da antzuolarrak zelan moldatzen diren kategorian berrira eta aurrean duten erronka politaren aurrean ze talde osatu duen Juanina Garaik. Ezinbestekoa izango da Estala futbol zelaia gotorleku bilakatzea, batez ere zelaiaren

ezaugarriak kontuan hartuta. Sorpresa efektuak, baina, lehenengo itzulia baino ez du iraungo. Lehenengo partidua Anaitasunaren etxean egingo dute, bihar.

**Kategorian beteranoak**

Gainontzeko hiru taldeak aspaldiko ezagunak dira. Alberto Albistegik beste pauso bat eman nahi du Aretxabaletarekin, eta hiru-

garren mailara igotzeko egingo dute borroka; halaxe aitortu digu, gainera. Detaile askoren batuketa behar da helburu hori lortzeko, baina, behintzat, aurrealdeko postuetan egon nahi dute. Hala, Touringen zelaian hasiko dute aretxabaletarrek liga.

Aloña Mendiko entrenatzaile Andoni Azkargortak ez du horren helburu zorrotzik jarri, baina adi aurtengo Aloña Mendirekin. Talde gaztea izatearen aitzakiak ez du balio, azken hiru urteetako lanaren emaitza da egungo blokea, eta aurten jokalaria garrantzitsuak itzuli dira Oñatira. Entrenatzaile antzuolarra horren jakitun da, eta taldearen exigentzia mailak igo egin behar duela dio. Garrantzitsua izango da, hasieratik tren ez galtzeko, iaz izandako hasiera txarra ez errepikatzea, baina ez dute kontrario makala, Real Union etorriko da-eta domekan Azkoagainera.

Bergarak, azkenik, proiektu berria hasiko du; entrenatzaileari dagokionez bai, behintzat. Azken urteotan Neka Galanek lan txukuna egin du Agorrosinen, eta



Antzuolako Iñaki Agirre. | GOIENA



Aretxabaletako Zaitegi. | GOIENA



Bergarako Egoitz Reyes. | GOIENA



Aloña Mendiko Olalde. | GOIENA

**Juanina Garaik eta Aitor Arratek entrenatuko dituzte Antzuola eta Bergara**

**LIGAKO LEHEN JARDUNALDIA****ZAPATUA**

16:30 Touring-Aretxabaleta

17:00 Bergara-Vasconia.

17:30 Anaitasuna-Antzuola

**DOMEKA**

16:030 Aloña Mendi-Real Union.

Aitor Arratek hartu du haren testigua. Taldeari dagokionez, baina, kategoriari eustekoa baino helburu zorrotzagoengatik amets egiteko moduko taldea du markinarrak. Agorrosinen jokatuko dute lehenengoa bihar, Vasconiaren kontra.

**Mondra datorren astean**

Ohorezko erregional maila zeharka jarraituko du Mondrak, talde zuri-morearen borroka erregional preferentean egongo da-eta. Urzelaiaren taldeak itxura polita erakutsi du; haiek datorren asteburuan hasiko dute liga.



**RK^UZ**  
MUEBLES  
ARETXABALETA

**ETXE MOBEL**  
ALTZARIAK  
ARRASATE



**RK^UZ**  
COCINA INTEGRAL  
ARETXABALETA **FAGOR**  
banatzaile ofiziala

**RK^UZ**  
ELECTRODOMESTICOS  
ARETXABALETA **expert**  
banatzaile ofiziala



Arkauz zure etxea da.

**GRUPO RK^UZ**  
ARETXABALETA 1950-2013 ARRASATE

**60 urte baino gehiago**

## ENDUROA

# Xabi Abasolo, podiumari eustera Bartzelonara

Arrasatekoa Espainiako Enduro Txapelketan bigarren postuan dago

XABIER URZELAI | ARRASATE

Denboraldiko lehen zatian hankan izandako lesiotik errekueratuta –Munduko Txapelketa lesionatuta korritu zuen–, Xabi Abasolok gogotsu ekingo dio urteko azken zatiari. Eta Bedoñakoak baditu horretarako motiboak, Espainiako Txapelketako podiumeko bigarren postuan egoteaz batera talde berria ere estreinatu berri duelako (Sherco): "Duela hilabete Kantabrian korritu nuen –lasterketa irabazi zuen–, eta sentsazio onak izan nituen motor berriaz. Lehengoa ere oso motor ona zen, baina oraingo hau apur bat arinagoa da", diosku Abasolok.

Kantabriako garaipenak konfiantza eman dio Arrasateko pilotuari, seguru, eta geratzen zaizkion hitzorduetan aurrean egon nahi du. Hala, domekan Bartzelonan lehiatuko da, baina urtea amaitzeko oraindik Galiziara eta Bartzelonara itzuli beharko da osterara, azarora arte iraungo duen txapelketan: "Urtean zehar izan ditudan arazo eta zailtasunak kontutan hartuta uste dut nazionaleko bigarren postua

emaitza oso ona izango litzatekeela. Eta geratzen diren lasterketetan ahaleginduko naiz postu horri eusten". Lehengo postuagatik galdetuta, Arrasatekoak ez du baztertzeko oraindik ezustea ematea, baina onartzen du zail ikusten duela.

Sharco talde berriarekin

Aurreratu moduan, asteburuan estreinatuko da talde berriaz Espainiako Txapelketan, eta horrek ere gauzak ondo egiteko motibatzen du: "Ez naiz Sherco taldeko pilotu ofiziala, denboraldi erdian aldatu naiz taldez, eta oraingoz materialarekin laguntzen didate. Ikusi egin beharko da datorren urtean hor egon naitekeen, eta ze asmo duen taldeak. Baina, oraingoz, pozik nago egin



Abasolok motor berriaz egingo du denboraldiko azken zatia. | ARITZ GORDO

dudan aldaketarekin. Hori bai, emaitza onak lortzea lagungarria izango da, seguru".

**Bihar, entrenamendu saioak**

Arrasatekoa gaur bertan abiatuko da Bartzelonara, eta bihar,

zapatua, entrenamendu saioak izango ditu, Puig-reig herriko zirkuituan. Lasterketa, osterara, domekan korrituko du. Eta ondoren atseden hartuko du, urrian izango duelako hurrengo hitzordua, Galizian.

## ESANAK

"Lehengo motorra ere oso ona zen, baina hau apur bat arinagoa da"

"Urtea zelan joan den ikusita, bigarren izatea ondo legoke"

XABI ABASOLO | PILOTUA

Aukeratu zure beharretara egokitzen den etxebizitza, eta kalitatezko bizimodu baten alde apustu egin. Aprobetxatu aukera eta ekin bizimodu berri bati. Gozatu luxuz kalitate-prezio ezin hobean.



- Zure neurriko aukera
- Diseinu paregabea.
- Kalitatezko materialak.
- 2 eta 3 logelako etxebizitzak, igerileku eta guzti.
- Garajeak eta trastelekuak.


## ZUMAIAN ORTIZ BIZIGUNEA

2 logelakoak: 170.000 €-tik hasita

3 logelakoak: 240.000 €-tik hasita

Urria  
31

Urriaren 31 baino lehen kontratua sinatzen duten guztientzat, dutxa integral bat opari.



ORTIZ BIZIGUNEA  
AXULAR IBILTOKIA 18.  
20750 ZUMAI

**INFORMAZIO GEHIAGORAKO:**  
Telefonoa: 606 95 75 32  
E-posta: info@inmoloiola.com  
Webgunea: www.zumaiabizi.com

SUSTATZAILEA:

inmoloiola

ERAIKITZAILEA:

ALTUNA Y URUA S.A.

SALMENTA-GUNEA:

legain



Gatzagako pilotalekuak nagusien partiduak hartuko ditu bihar. | GOIENA

## PILOTA

## Dorletako Amako pilota txapelketako finalak jokatu dituzte asteburuan

X.U. | ARRASATE

Leintz Gatzagako pilotalekuak Dorletako Amako finalak hartuko ditu asteburuan, otsaila ezkerrean ia 130 partidu jokatu ostean.

Mauri Zubillagak antolatzen duen txapelketan otsail amaieran hasi zituzten partiduak, kategoriatan. Maila txikiak finalak joan den asteburuan jokatu zituzten. Eta bihar, zapatua, beterranoen bigarren mailako, beterranoen lehenengo mailako eta seniorren partiduak izango dira; domekan, osterara, gazteek jokatuko dute.

**Bihar, arratsaldean**

Zapatuan 16:30ean hasiko dituzte finalak. Hala, beterranoen biga-

ren mailako finalean Arrasate eta Bergara izango dira aurrez aurre, Agirrezabalek eta Salegik Arana eta Etxagibelen kontra jokatuko dute-eta.

Beteranoen mailako finalean, berriz, Bergarako Gomez eta Azagirre eta Anoetako Arrieta eta Etxeberria izango dira zein baino zein gehiago. Amaitzeko, senior kategorian ez dugu ibarreko ordezkariarik izango, Gasteizko Rodriguesek eta Resanok Lopezen eta Otamendiren kontra jokatuko dute-eta.

Hala, Mauri Zubillagak eskerak eman nahi izan dizkio Gatzagako Udalarri txapelketa herrian antolatzen uzteagatik, eta herri-tarrei babesa emateagatik.

# Goiena Klubeko iraileko zozketak

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!



**EROSKI**

## Kafe-makina

### Kafe-makina bat

Parte hartzeko sariaren izena:  
Kafe-makina



### Otarra

**DEBAGOIENEN BASERRI SARE**ri esker baserriko produktuez osaturiko 5 otar zozketatuko ditugu.

Parte hartzeko sariaren izena:  
Baserrisarea




**ARRIKRUTZ**  
oñatiko obak

### Sarrerak

**Arrikruz kobak** bisitatzeko, 6 sarrera zozketatuko ditugu.

Parte hartzeko sariaren izena:  
Arrikruz



**Argia**

### Bi joko sorta

**Bizi-Birzi eta Kosmojet** jokoek osatutako sorta.

Parte hartzeko sariaren izena:  
Jokoak



**Argia**

### Hiri liburu sorta

**Txorakikeriak, Erlea gure sendagile eta Ertzeko zatiak** liburuek osatutako sorta.

Parte hartzeko sariaren izena:  
Liburu sorta

### PARTE HARTZEKO:

**SMS:** KLUBA sariaren izena [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira

**Telefonoz:** 943 25 05 05

**E-postaz:** kluba@goiena.com

**WhatsApp:** KLUBA sariaren izena [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.  
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko. Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, hainek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!

## KULTURA

## Kantari gatoz berriro ere

Irailaren 16tik 23ra bitartean eman ahal izango dute izena 8 eta 12 urte arteko gaztetxoek

GOIENA | ARRASATE

4, 3, 2, 1... *aurrera!* Badator Kantari Debagoieneko karaoke ikuskizunaren laugarren edizioa. Horrek esan nahi du bailarako gaztetxoak kantuan eta dantzan jarriko dituela Goiena telebistak, beste behin. Izena emateko epea astelehenean zabalduko da eta herririk herri grabatuko diren ikuskizunak ere segituan etorriko dira. Gainera, hainbat berri-tasun egongo dira aurtan.

**Nortzuek har dezakete parte?**

Aurreko urteetan bezala, Kantarin parte hartu ahal izango dute 8 eta 12 urte bitarteko gaztetxoek; hau da, 2001. eta 2005. urte bitartean jaioak. Eta partaideek hiru eta bost pertsona bitarteko taldeak osatu beharko dituzte ikuskizunean abesteko.

**Eman izena**

Izena emateko epea datorren astelehenean zabalduko da, hilaren 16an, eta astebete geroago itxiko da izena emateko epea; hau da, hilaren 23an.

Bailarako ikastetxe guztietan banatutako izena emateko orriak bete beharko dituzte parte hartu nahi duten gaztetxoek, eta orri horiek eskolako idazkaritzan edo Goienaren edozein egoitzatan entregatu beharko dituzte.

**Euskal kantuak**

Euskal kantuak abestu eta dantzatuko dituzte parte-hartzaileek; Vendetta, Esne Beltza eta Hesian taldeen abesti berrienak izango ditugu karaokean. Eta, nola ez, Kantarin hain ezagunak diren *Iñaki*, *Sarri sarri* eta *Amets bat* ere entzun ahal izango ditugu edizio berrian. Abestiak zozketa eginda banatuko zaizkie taldeei eta posta elektronikoz jakinaraziko zaie.

**Abestiak ikastea, garrantzitsua**

Artista gazteek Kantariko blogetik ikasi beharko dituzte kantuen letra eta koreografiak. Dantzen bideo guztiak eta letrak helbide honetan izango dituzte ikusgai: <http://blogak.goiena.net/kantari>. Bertatik ikasi beharko dute kantua. Bada, abestiak ondo ikastearen garrantzia azpimarratu du Amaia Txintxurreta Kantariko aurkezlea: "Oso garrantzitsua da letra eta koreografia ondo ikastea; izan ere, ikuskizunetara ondo ikasita etortzen badira, erosoago egongo dira agertokian eta gehiago disfrutatuko dute".

**Berritasunak**

Berritasunak ere badaude aurtan. Horietako bat da Kantariko ikuskizunaren aurretik, entsegu bat izango dutela gazteek. Hala ere, entsegu hori ez da izango bertan dantzak ikasteko: "Gazteek aurretik etxean ikasitakoa errepara-



Amaia Txintxurreta da Kantariko aurkezlea. Argazkian, duela bi urteko saio batean ageri da gazteekin kantuan. | GOIENA

4. edizioa  
**Kantari**

Aurtengo logotipoa. | GOIENA

**ENTSEGUAK ETA IKUSKIZUNAK****ARETXABALETZA**

**Entsegua:**  
Urriak 12. Arkupe.  
**Ikuskizuna:**  
Urriak 19-20. Arkupe.

**BERGARA**

**Entsegua:**  
Azaroak 3. Zabalotegi.  
**Ikuskizuna:**  
Azaroak 9-10. Zabalotegi.

**OÑATI**

**Entsegua:**  
Azaroak 30. Gaztelekua.  
**Ikuskizuna:**  
Abenduak 14-15. Gaztelekua.

**ARRASATE**

**Entsegua:**  
Urtarrilak 11. Kulturate.  
**Ikuskizuna:**  
Urtarrilak 18-19. Amaia.

**Informazio guztia, blogean**

Kantariri buruzko informazio guztia uneoro kontsultatu ahal izango duzue blogean, helbide honetan: <http://blogak.goiena.net/kantari>. Batetik, entseguei eta ikuskizunei buruzko informazioa jaso ahal izango duzue bertan. Bestetik, saioetako argazki eta bideoak ere blogean izango dituzue ikusgai. Eta gogoratu behar da kantuen letra eta dantza bideoak ere hortxe daudela eta gaztetxoek bertatik ikasi beharko dutela ikuskizunerako kantua.

tuko dugu entseguetan. Entseguetara gazteek dantza ikasita joan beharko dute. Helburua da gaztetxoek ikuskizuna egingo duten tokia ezagutzea".

Herririk herri egingo diren saioetan ere izango da berrikuntzarik: agertokian DJ bat egongo da. Grabazioetan eta grabazio tarteetan giroa alaituko da horrela, guztiak ondo pasatzeko.

**Saria: Port Aventura bidaia**

Kantarin parte hartzen duten gaztetxoek artean Port Aventura bidaia zozketatuko da familia osoarentzako, eta zozketa horretan parte hartzeko beharrezkoa izango da Goiena Klubeko bazkide izatea. Bazkide ez direnak, 15 euroren truke egin ahal izango dira promozio berezian. Saioak grabatu ondoren egingo da Port Aventura bidaia zozketa.

**ESANAK**

**"Gazte guztiak animatzen ditut Kantarin parte hartzera; bikain pasatuko dugu batera kantuan eta dantzan"**

AMAIA TXINTXURRETA | AURKEZLEA

**ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA**

Arimazubi plaza, 2  
(Eskola Politeknikoaren ondoan)  
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88  
Faxa: 943 79 91 43  
[euskaltegi@arrasate-mondragon.net](mailto:euskaltegi@arrasate-mondragon.net)

**BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA**

Barrenkalea, 33  
(Irizar jauregia)  
Tel.: 943 76 44 53  
[berg.eusk@udal.gipuzkoa.net](mailto:berg.eusk@udal.gipuzkoa.net)

**LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA**

Nafarroa 2-4 Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 21 68  
Faxa: 943 79 92 62  
[leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net](mailto:leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net)

Intxaurtxueta 10 Eskoriatza  
Tel.: 943 79 21 68  
[leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net](mailto:leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net)

**BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA**

Bidebarrieta, 18-behea Oñati  
Tel.: 943 78 24 96  
Faxa: 943 71 82 96  
[euskaltegia@oinati.net](mailto:euskaltegia@oinati.net)

**Matrikula zabalik**

emaiozu euskarari!

UDAL EUSKALTEGIAK  
Ikasturteakurso 13/14



## Alvarez de Eulate margolariaren omenezko jardunaldiak izango dira

IMANOL BELOKI | OÑATI

Bihar, hilak 14, zapatua, izango da Xabier Alvarez de Eulate margolariaren omenezko txapelketa, Arantzazun. Arantzazuko Adiskideak elkarteak eta Arantzazu Gaur fundazioak antolatuta dute, eta, hain zuzen ere, Arantzazuko basilikaren beirateen sortzailea omendu nahi dute. Bada, txapelketa hori antolatuta, Arantzazuko basilikako muralaren egile Lucio Muñozen omenez iaz ospatu zen 50. urteurrenari jarraipena eman nahi diote.

Frantziskotar artistaren omenezko txapelketan hiru kategoria egongo dira: haurrena (11 urte artekoak), gazteena (12 eta 16 urte artekoak) eta helduena (16 urtetik gorakoak).

Parte-hartzaileek txokoak, paisaiak edo Arantzazuko santutegi inguruko monumentuak margotzeko aukera izango dute bihar. Hori bai, bakoitzak margolan bat bakarrik aurkeztu

ahal izango du, teknika librearekin erabilia.

Txapelketarako izen-ematea Gandiaga Topaguneko kulturagunean izango da, 10:00etatik 12:00etara. Eta margolanak, berriz, 17:00etarako bukatuta izan beharko dituzte parte-hartzaileek.

Jardunaldiak hasteko, mahai-ingurua egingo dute Alvarez de Eulateren eta bere lanen gainean. Horretarako, Edorta Kortadi, Miguel Angel Alonso, Iñaki Urrizelki eta Juan Mari Martinez de Ilardua izango dira hizlari.

### Sari bikainak

Sariei dagokienez, helduen kategorian hiru banatuko dituzte: lehenengo saria 1.500 euro izango da, bigarren saria 750 euro eta diploma eta hirugarrena 400 euro eta diploma. Eta gazteen eta haurren kategorietako irabazleek, berriz, margotzeko material sorta bana jasoko dute.

# Gaztelu Jaia ospatuko dute Atxorrotzen bihar, zapatua

Bigarren aldiz egingo dute, eta antolatzaileak gogotsu daude biharko

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Aitzorrotz kultura elkarteak antolatuta duen Errekan Gora egitarauaren barruan, Gaztelu Jaia egingo dute zapatuan Atxorrotzen. Jai hori ospatzeko arrazoia bertan egindako indusketetan aurkitutako aztarnak dira. Atxorrotzen

Erdi Aroan gaztelu bat egon zen, eta, hain zuzen, aurkikuntza hori ospatzeko aitzakia bat dela diote antolatzaileek.

Egitarau ederra prestatu dute bigarren edizio honetarako. Batez ere, kontzertuak izango dira ekitaldi nagusiak, baina beste hainbat ekintza ere antolatu dituzte egunerako: pailazoak, bertsolariak eta trikitilariak, besteak beste; eta, nola ez, indusketetara bisita gidatua.

60 pertsona inguru ibiliko dira aste bukaera osoan lanean: 4x4 autoetan materiala igotzen, sukaldean ogitartekoak prestatzen,

barran edariak zerbitzatzen eta egunerako atera dituzten kamisetak saltzen (10 euro). Jaia amaitzean denean ere, garbiketa lanean ibiliko dira asko, dena zegoen moduan uzteko.

### Jaiaren ostean, garbiketa

Orain dela hiru urte ospatu zen lehen aldiz Gaztelu Jaia eta orduko oroitzapen ona daukate antolatzaileek, giro ederraren ostean dena garbi geratu zen eta. Aurten ere, egubakoitzean material guztia Atxorrotzera igo, zapatuan jaia ospatu eta domekan dena garbi-garbi utzi beharko dute.

### EGITARAUA

**09:30** Txistulariekin kalejira.

**10:30** Eskoriatzako plazatik Atxorrotzera igotzeko elkartzea eta irteera.

**11:30** Atxorrotzen, ongietorria txalapartari eta trikitilariekin.

**12:00** Ekitaldi nagusia. Bertsolariak: Sarriegi eta Apalategi.

Hizlariak: Beñat Herce alkatea, Ikerne Badiola Kultura diputatua eta Nafarroa Bizirik-ekoak. Dantzariak eta sorpresak!

**12:30** Indusketen gaineko bisita gidatua Iñaki Sagredorekin.

**14:00** Eñaut Elorrietaren kontzertu akustikoa.

**15:00** Potx eta Motx pailazoekin irri eta algarak.

**16:00** Hesian akustikoa kontzertua.

**17:00** Fiachras taldearen kontzertua.

**21:00** Pentatonix Folk taldea herrian, Inkernu taberna kanpoan.



Atxorrotzen aurkitutako gaztelu aztarnetan bisita gidatua. | GOIENA

### Indusketetara bisita gidatua

2009tik hona, Iñaki Sagredoren eskutik, Larrate taldea dabil arkeologia eta dokumentatze lanetan Atxorrotzen, Erdi Aroan zegoen gaztelua berreskuratzeko eta dokumentatzeko helburuarekin.

Hainbat bisita gidatu egin dituzte bertan eta aste bukaera honetako ekitaldia ere aprobetxatuko dute bertara hurbiltzen direnei indusketak erakutsi eta informazioa emateko.



**Euskara praktikoa**

# Eman euskara elkarri

 Ikola

 Mintza praktikoa

 Barnetegia

 On line

 Autoikaskuntza

 Normalizazio planak

 Titulu homologatutak



**eman izena**

www.aek.org  
902 362 294



**• EUSKALDUNTZEA** (5 / 10 ordu astean, erreleboak)

- B1 maila edo 1. perfila; erabiltzaile autonomoa.
- B2 maila edo 2. perfila; erabiltzaile gaitua.

**• C1 MAILA / 3. MAILA / EGA** (5 ordu astean)

- Astean 2 egun azterketa ofizialak prestatzeko.

**• MINTZA-TALDEAK** (5 ordu astean)

- Astean 2 egun ahoz hobetzeko eta soltatzeko.

**• C2 MAILA / 4. MAILA-PERFILA** (6 ordu astean)

- Astean 2 egun + etxerako lanak + proiektua + tutoretzak. (180 ordu).

**• AUTOIKASKUNTZA** (190 ordu)

- Programazio pertsonala etxerako + tutoretzak + mintza-saioak.

*Bekak Arrasateko Udalaren laguntzaz!*

DEBAGOENEO AEEK EUSKALTEGA ARRASATE



Gaitza: 14, Arrasate 943 77 03 00 • arrasate@aek.org

**MATRIKULA zabalik**

2013-09-30era arte

Goizez, 11:00etatik 13:00etara.

Arratsaldez, 18:00etatik 20:00etara

## 'Leihotik mundura, Pupu eta Lore' ikuskizuna domekan



Leihotik mundura ikuskizunean Pupu eta Lore. | KUKUBILTZO

I.B. | ARETXABALETA

Kukubiltzo taldearen *Leihotik mundura, Pupu eta Lore* irailaren 15ean izango da, 17:00etatik 18:00etara, Aretxabale-tako Zaria aretoan. Gazte-xoenek antzezlan bikaina izango dute ikusgai, eta baita ondo pasatzeko aukera paregabea ere.

Pako Aristik idatzitako, Josu Camarak zuzendutako eta Marifeli Etxeandiak eta Ainhoa Alberdik antzeztutako *Leihotik mundura, Pupu eta Lore* lanak fantasiazko mundura eramango ditu ikusleak.

Bi pailazo txikiak mundua deskubrituko dute, *Lagun* txakurra bidaia-lagun dutela. Iruimenaren mundua erakusten duen leihoa zabalduz, ipuinak eta mezuak kontatuko dituzte bertako hodei eta loreek.



# Eñaut Elorrietak bi kontzertu egingo ditu Debagoienean aste bukaeran

Bergarako pilotalekuan izango da gaur eta Atxorrotz mendian, berriz, bihar

**A. ARANBURUZABALA** | ARRASATE  
Ken 7 taldearekin gurean hainbat alditan izan den arren, gogotsu dagoela aitortu du Eñaut Elorrietak Debagoieneko musikazaleen aurrean berriz ere kantatzeko. Oraingoan, maiatzean kaleratu zuten *Deserriko kantak* proiektu pertsonalarekin dator. Formatu ezberdineko bi emanaldi egingo ditu: Bergarako pilotalekuan gaur, egubakoitza (23:00), taldearekin jardungo du; eta gitarra lagun bakar duela kantatuko du, berriz, Eskoriatzako Atxorrotz mendian bihar (14:00) egingo duten Gaztelu Jaiaren barruan.

Biharko emanaldirako sarre-ra doakoa bada ere, Bergarako pilotalekurako txartelak 15 eurotan izango dira leihatilan salgai eta 12 eurotan, ohiko tokietan aurrez erosiz gero.

## Bi kontzertu, bi formatu

Bergarako Udalak eta herriko tabernariak elkarlanean antolatutako emanaldia San Martin jaien egitarauaren barruan dago. Deserriko Bandarekin igoko da taularen gainera, laukote moduan, Txus Aranburu (teklatura), Igor Telletxea (bateria eta xilofonoa) eta Ruben Caballero (gitarra akustikoa, gitarra elektrikoa eta mandolina) lagun dituela. "Oso argi nuen diskoa landuko nuen musikariekin egingo nituela zuzenekoak gero; teknikaria ere bera da, Haritz Harreguy", dio Eñaut Elorrietak. Kantuen zerrendaren gainean galdetuta, zuzeneko *Deserriko kantak* diskoan oinarritzen duela dio, nahiz eta badien beste batzuk ere erreperatorioan: diskoan sartzerik izan ez zituen bi abesti eta Ken 7 taldearentzako konposatutako beste bi; horiek ere, deserri gaiarekin bat datozenak.

Bestelako asmoak ditu, berriz, zapaturako, bakarrik eta forma-

tu akustikoan joko du-eta Atxorrotzen. "Hasieratik harrapatu ninduen proposamenak, aretoetatik kanpo, mendian jotzeak, bakarka... magia berezia izango du, seguru. Ken 7ren diskoa grabatzen ari garenez, agenda kon-

plikatua dudan arren, lortu nuen azkenean puzzlea egitea", dio Elorrietak. Kantu zerrenda ere ez da Bergarako bera izango: "Aukeratutako erreperatorioa joko dut, bertan mugitzen den energia eta sinbologian oinarritutakoa.



Eñaut Elorrieta. | LANDER GARRO

*Deserriko kantak* diskoako kantu batzuk, Ken 7ren diskoetatik beste batzuk eta baita espresuki emanaldi horretarako egin ditudan beste batzuk", dio, ilusioz.

**Askotariko musikazaleentzako**  
Gustura dago diskoak izan duen harrerarekin, besteak beste, agendari erreparatu: "Hitzak kontzeptualak diren arren, mota guztietako publikoarentzako egingakoa da. Burutik baino gehiago, gorputzarekin eta emozioekin ulertzen den diskoa da eta horrek zabaldu egiten du publikoa".



## 'BaserriSarea.com', bertako produktuak ezagutzera emateko tresna ezin egokiagoa

Deba Garaia Landa Garapen Elkarteak bultzatzen duen 'BaserriSarea.com' webgunea erakusleho aparta da gure ekoizleen produktuak ezagutzera emateko; eta, gainera, erosteko aukera ere ematen du.

**Kooperatiba da, gaur egun, Arantzazuko Gomiztegi baserria. Bertako ardi gazta saltzen dute, besteak beste; tartean, BaserriSarea.com-en.**

### Nolatan kooperatiba Gomiztegin?

Duela zazpi urte, ikusita fraideek ezin zutela jardunarekin segi, elkarre bat sortu zuten fraideen, Itsas-mendikoiren —gaur egun Hazi dena— eta Diputazioaren artean, Gomiztegi kudeatzeko. Helburuak ziren: artzain izateko formazioa eta aholkularitza eskaintzea; artalde bat kudeatzea —eta gaur egun ditugu 350 ardi eta egiten ditugu bost gazta mota: Idiazabal gazta inportanteena, baina baita urdina, krema...—; eta gizarteratzea artzaintza jardunaren onurak.

### Eta nola egiten duzue gizarteratze hori?

Gero eta indar gehiago ari gara ematen hirugarren helburu horri. Aurten, dagoeneko, 2.500 pertsona pasatu dira baserriatik; azaltzen diegu oso artzaintza mota jatorra



"BaserriSarea.com" ataria leiho polita da, ezagutzera emateko ditugun produktuak, bezeroa animan dadin gero guregana etortzera, harreman zuzena edukitzera

dela Euskal Herrian ia artzain denek egiten dutena: lurralde zati handia kudeatzen dutela —horregatik dugu dugun paisaia: belardiak, ...—; latxa ardi arrazarekin lan egiten dugula —ingurunera oso ondo egokitutakoa—; eta helburua ez dela asko produzitzea izan, baizik eta produzitutakoa kalitatezkoa izatea eta merkatu lokaletan —bailaran, adibidez— aukera izan dezala jendeak produktuak dastatzeko.

**Ze ekarpen egiten dizue BaserriSarea.com ekimenak?**

Oso ekarpen polita egiten ari da. Hurbiltasuna eskaini behar dugu batetik: azokak bultzatu, elkarte gastronomikoetara joan, ... Baina Internet eta teknologia berriak interesgarriak dira etorkizunera begira. Horregatik sartu ginen eta oso pozik gaude poliki-poliki egiten ari den ibilbidearekin. Izan daiteke salmenta modu aproposa, baina esango nuke gehiago dela leiho polit bat ezagutzera emateko zer dugun, gero animatu dadin bezeroa guregana etortzera, harreman zuzena edukitzera.

### Zer deritzozu duen bailara ikuspegiari?

Bailara dinamikoa da hau eta badiara, *BaserriSarea.com*-ez gain, hainbat mugimendu —Bagara, ...—. Eta artzainok hor sartzen ari gara. Borroka izango da jendeak jakin dezala ze balio dituzten gure elikagaiak, eta bertako produktuak defendatzea era militante baten, guk eginez eta eurek kontsumituz. Bailarak erronka handia du etorkizunera begira, eta ari gara pauso batzuk ematen, erakutsiz jendea-ri gure elikagaien balio erantsia.

## Malenkonia taldearen bigarrena, gaur Donostian eta bihar Arrasaten

Uztailean jaioterrian aurkeztu zuten *Homo Homini Lupus*, oñatien bigarren lan luzea, gaur Donostiako Udal Liburutegian komunikabideen aurrean erakutsiko dute eta zaleen aurrean, berriz, bihar, zapatua, Arrasateko Uribarri-Erguingo jailetan.

Mutrikuko AME estudioan grabatu zuten zortzi kantuko bilduma; haien esanetan, orain arteko helduena. Aurreko lanaren soinua eta izaera duen arren, oraingoan beste errekurtsio batzuk bilatu dituzte, kantu askoz zuzenago, azkarrago eta rockeroagoak sortuta. Oñatiko tabernetan 10 eurotan dago salgai.

**baserrisarea.com**  
Debagoieneko landa eremuaren erakuslehoia

- :: Gure ekoizleen produktuak baserriatik etxera
- :: Landa bizitza eta ondare historikoa
- :: Gune interesgarriak eta ibilbide naturalak
- :: ...eta askoz gehiago!

Debagoiena BASERRI SAREA Auzoaren Zuzenak

Maria Gartzia | Marketinean, publizitatean eta irudian aditua

## "Cibeles-en, ekitaldiak antolatzen nituen; P&Gn, kontabilitate finantzarioaz arduratzen nintzen"

Maria Gartzia arrasatearra, Monterron parkean.

NAIARA URIARTE | ARRASATE

Maria Gartzia (1991, Arrasate) Irudi Aholkularitza modulua egin zuen bi urtez Madrilen. Horren ondoren, hiriburuan bertan, Marketineko eta Publizitateko Kudeaketa Komertziala egin zuen, beste bi urtez. Orain, Arrasatera itzuli berri da, Enpresa Administrazioa eta Zuzendaritza gradua egitera.

**Publizitate moduluko praktikak Procter&Gamble multinazionalean egin zenituen. Zer-nolako esperientzia izan da?**

Paregabea. Hiru hilabetez aritu nintzen. Enpresak askotariko produktuekin dihardu lanean. Ni botika alorrekoekin aritu nintzen -Oral B, Fluocaril, Clear Blue-, haien kontabilitate finantzarioaz arduratzen nintzen; fakturak, berankorrekin harremanetan jarri, inbentarioak... Hasiera batean, lan gutxi nuen, baina berehala lan gehiago eskaini zidaten eta asko ikasi nuen.

**Irudi Aholkularitzako praktikaldia, oster, Cibeles-en egin zenuen. Zer esango zenuke?**

Cibeles-en lan egiteko aukera apartekoa izan zen. Nire egin-beharra ekitaldiak antolatzean oinarritzen zen. Bi urtez egon nintzen lanean. Mirian Okariz eta Ailantoren desfilearen harreman publikoaz arduratu nintzen: modako prentsara eta telebistara deitu, VIPak [pertsoneia famatuak] konbentzitu ikuskizunera joan zitezten, jesarlekuak antolatu... Eguna iristean, ez ginen modeloez arduratzen, baina famatuak edo VIPak jantzen nituen; besteak beste, Martina Klein, Laura Sanchez, Laura Pamplona eta Veronica Sanchez. Desfileak hiru minutu besterik ez du irauten, baina hori guztia antolatzea sei hilabeteko lana da.

**Zertan datza ekitaldia?**

Lehenik, tokia eta zenbat pertsona izango diren jakin behar da. Ondoren, jendeari deitzen diogu: gonbita bidali eta baieztapena izan arte itxaron, astebe. Pertsonea kopurua jakinda, catering-a antolatu behar da. Jarraian, prentsari deitu eta moda aldizkariari prentsa oharrak bidali, gure ekitaldia iragartzeko. Famatu asko egonez gero, photocall delakoa antolatu behar da.

**Egindako bi lanetatik, zein gustukoago?**

Dudarik gabe, Cibeles. Egindako lana gustukoago dudalako. Jende

askorekin lan egiteko aukera izan dut, baita, aipatu bezala, famatuak jantzeko ere. Baina, batzuetan, faltsukerian murgilduta nengoela sentitzen nuen, askok interesen arabera jokatzeko baitute. Horrela, nik ere nire interesen arabera jokatzeko ikasi nuen. Procter&Gamblen egindako lanak, aldiz, ez ziren hain dinamikoak, baina ezin naiz kexatu, moduluan ikasitako materia ia guztia praktikan jarri dudalako.

**Nola ikusten duzu lan egoera gaur egun?**

Modan, nahiko gaizki. Diseinatzaileek ez dute dirurik. Lanean egon nintzen diseinatzaile batek utzi egin dio Cibeles-en parte hartzeari, egoera finantzario eskasagatik. Egoera horrela egonda, zaila da esparru honetan lan egitea. Gainera, Procter&Gamble eta halako multinazionaletan lanpostua lortzea ia ezinezkoa da. Eskatzaile asko dituzte; ondorioz, azterketa asko gainditu behar dira bertan lan egiteko. Esperientzia izatea ezinbestekoa da.

**Lan egoera dela eta, pentsatu duzu ikasten jarraitzea?**

Bai. Ikasi dudak Marketineko eta Publizitateko Kudeaketa Komertzialeko moduluak badu antzekotasuna Administrazioa eta Zuzendaritza graduarekin. Betidanik atsegin izan dut, eta orain, Arrasaten nagoela, hori egiteko aprobeztatu behar dut.

**Madrilera bueltatuko zinateke?**

Ez. Madrilen bost urtez bizi izan naiz, eta, gustuko izan arren, faltan igarri dut herria. Gustura nago Arrasaten, baina etorkizunean hiribururen baten bizi izango naizela uste dut; aukeran, Donostian.

**Atzerrira joango zinateke?**

Bai, dudarik gabe. Orain, beste ikasketa batzuk egin arren, haiek amaitzean, atzerrira lanera joateko aukera izanez gero, ez dut birritan pentsatuko.

### MARRA AZKARREZ

**Gogoan duzun iragarkia:** 2012ko Joko Olinpiarrek.

**Liburu bat:** *Un mundo sin fin*.

**Egiteko duzun bidaia:** New York.

**Bizi izateko toki bat:** Donostia.

**Pelikula gustukoena:** *El diario de Noa*.

**Armairuan ez zaizu falta:** Blazer beltza.

**Bazkari gustukoena:** Nire amaren tigreak.

**Abesti bat:** Passenger-en *Let her go*.

**Telefono dei pozgarriena:** Procter&Gambletik deitu zidatenean.



## 1. ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Antzuola.** Sagasti auzoan, 90 metro koadroko etxebizitza salgai: hiru logela, egongela handia, bi bainugela, balkoi bat, terraza bat, despentsa bat eta guztiz jantzitako sukaldia. Berogailua, igogailua eta garaje itxiarekin. Deitu zerbaki hauetara: 617 00 37 30 edo 687 11 07 21

**Oñati.** Bidebarrieta kalean etxebizitza salgai. 68 metro koadrokoa. Egongela, sukaldia, komuna eta bilogela. Prezio oso onean. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 626 68 41 12

**Oñati.** Erdigunean. Guztiz berriua, kalitate oneko materialekin. 110 metro koadro. Hiru logela. Txokoa. Lorategi-lursaila. Prezio interesgarria. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 650 60 12 14

## 103. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Etxe berria, erdialdean, jantzita. Bi terraza handirekin. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 636 73 54 94

**Aretxabaleta.** Logela bateko apartamentua ematen da errentan. Iralabarrin, Beroako etxeetan. Garajea barne. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 606 72 04 63

**Arrasate.** Etxebizitza guztiz berriua, estreinatzeke. Bilogela, egongela eta sukaldia. Interesatuok deitu telefono honetara: 652 74 57 10

**Arrasate.** Zerrajaren pertsona bakar edo bikote batenzako apartamentu atsegina alokagai. Patio pribatua eta terraza dauka. Interesatuok deitu telefono honetara: 650 92 26 86

**Bergara.** San Antonion etxebizitza berriua ematen da errentan. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 943 76 21 39

**Elgeta.** Etxebizitza errentan ematen da Elgetako Salbador kalean, bi logela, sukaldia eta egongela. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 650 23 10 19

## 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate edo Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan, prezio onean. Hiru logelakoa gutxienez. Interesatuok deitu telefono honetara: 636 82 34 65

**Arrasate.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Hiru logelakoa, ahal bada. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 632 17 45 11

**Arrasaten.** etxea hartuko nuke errentan. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 655 88 49 10

**Garajea Aretxabaletan.** Garajea alokatu nuke Aretxabaletan, Mitarte kalearen inguruan. Interesatuok deitu telefono honetara: 943 76 08 76

## 105. ETXEA OSATU

**Arrasate.** Bi logelako etxebizitza bat osatzeko pertsona bat behar da, Nafarroa etorbidean. Interesatuok deitu telefono honetara: 635 70 79 69

**Arrasate.** Erdialdean bi logela alokatzen dira. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 693 80 64 18

